



## **BIGARREN AROA**

51. alea

## **SEGUNDA ÉPOCA**

Número 51

## **ERRETERIA**

2016ko uztailak 22

22 de julio 2016

**Erredakzio Batzordea / Comité de Redacción:**

Txema Arenzana  
José Ramón Cruz Mundet  
Leonor García  
Iñigo Imaz  
Juan Carlos Jiménez de Aberasturi  
Juan Miguel Lacunza  
Koldo Ordozgoiti  
Elixabete Perez Gaztelu  
Josean Ruiz de Azúa  
Mikel Zabaleta

**Azala / Portada:**

Antonio Valverde Casas "Ayalde"ren Goiko Kale (akuarela 63x49 cm) obraren erreproduzioa haren jaiotzaren urteurrena ospatuz.

Reproducción de la obra Calle Arriba (acuarela 63x49 cm) del autor Antonio Valverde Casas "Ayalde", conmemorando el centenario de su nacimiento.

**Kontrazala / Contraportada:**

Josean Ruiz de Azúaren "Cromos" izeneko artikuluan jasotako zenbait ilustrazio.

Goian, ezkerretik eskuinera: Jaime Boix txokolateen ale pare bat, Echeveste eta Samperio pilotariekin, Elíceguiren trokelatu-lan bat eta kromo komertzial bat azken hori Compañía Nacional txokolate lantegiarena.

Behean: garai hartako aktoreen kromoak, Olibet gaileta lantegiarenak.

Parte de las ilustraciones recogidas en el artículo de Josean Ruiz de Azúa "Cromos".

Arriba, de izquierda a derecha: un par de ejemplares de chocolates Jaime Boix, con los pelotaris Echeveste y Samperio, un troquelado de Elícegui y otro cromo comercial del mismo pelotari, en este caso de la Compañía Nacional, una fábrica de chocolate.

Abajo: cromos de actrices de la época, de la fábrica de galletas Olibet.

**Establezimendu kolaboratzaileak / Establecimientos colaboradores:**

Beraun: Paco Kioskoa.

Olibet: Rojas Liburudenda.

Iztieta: Iztieta Kioskoa, Razquin Estankoa, Osina Natur Denda, Madalena Gozotegia.

Erdigunea: Hostoak kopia-denda, Zumardi Kioskoa, Etxenike Loteria, Maitexa Estankoa, Mirentxu Liburudenda, Xenpelar Kultur Denda, Morrongileta Estankoa, Bitxi Kolore, Xenpelar Kioskoa.

Gabierrota: Café Zubia.

Fotokonposaketa, inprimaketa eta koadernaketa / Fotocomposición, impresión y encuadernación:  
Antza Komunikazio Grafikoa - Lasarte-Oria (Gipuzkoa).

L.G. / D.L. SS 474-1975

ISSN: 2386-9070



**Zutik, ezkerretik eskuinera / De pie, de izquierda a derecha:**

Bernar Lemos Taberna, Eñaut Gracia Ibarra, Jon Txasko Orgilles, Iñaki Ruiz Alonso, Almudena de la Torre Fernández, José Ángel Rodríguez Medina, Garbiñe Oyarbide Iruretagoyena, Joseba Echarte Martín, Jaione Karririkiri Garaño, Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi, Montserrat Luis Cano y José Manuel Franco Insausti.

**Eserita, ezkerretik eskuinera / Sentados, de izquierda a derecha:**

José Cruz Legorburu Ayestarán, Nagore Basurto Escamilla, Mikel Rodríguez Barbero, Itziar Ostolaza Galdós, Julen Mendoza Perez, Maite Peña López, Isaac Palencia Caballero, Yon Collar Rioseco y Maite Azpilicueta Llorente.



**Julen Mendoza Perez**

**Errenteriako alkatea**  
Alcalde de Errenteria

---

# Agurra

Iritsi da 2016. urteko *Oarso* aldizkariaren hitzaurrea idazteko unea.

Aurtengo alearen indizeari erreparatuta oso anitza dela argi dago eta neurri handi batean herri honetako historian atzera begiratzen duela.

Aitzbitarteko kobatako grabatuen aurkikuntzak eta Txoritokietako megalitoak ditu hizpide.

Errenteria Itsas hiri bat dela esan ohi dugu eta horren lekuko gure alde zaharra eta Kapitainenea. Bertan egindako indusketa arkeologikoen inguruko informazioa ere jasotzen du aurtengo aleak. Eta itsas hiri hori eta bere ondarea ezagutzeko antolatzen diren bisita gidatuen inguruko informazioa baita ere.

Musika kantatuak, ahotsak ere protagonismo berezia aurtengo ale honetan. Andra Marik 50 urte eta Landarbasok 25. Andra Mari abestatzak orain 50. urte hasitako ibilbideak gure herria koruen erreferente izatea ekarri du. Bere ondotik etorri dira Landarbaso eta beste batzuk. Zorionak !!

Euskal idazleei ere beren lekua Erramun Astibiaren heriotzaren eta Jose Mari Azkarraga "Lurgorri"-ren jaiotzaren 100. urteurrenaren bitartez. Artikulu hauen bitartez gure herriko emakume eta gizon idazleen lanak berreskuratu eta balioan jartzeko gonbita luzatzen zaigu gainera.

Eta beste hainbat eta hainbat gai. Hala ere, agian bukatu aurretik Errenteriako Asanbladaren 40. urteurrenaren aipamena egin gabe ezin gelditu. Seguraski badugu gaur egungo gure jardunean hortik zer ikasia. Herritarren parte hartze aktiboa sustatu nahi dugun momentu honetan asanblada bera bada adibide interesgarri bat eta azken 40 urte hauetan gure herriak egin duen bidea erakusten digu.

Jaso agur bero bana, bihotz-bihotzez.

Gora gure Madalenak!!

**Julen Mendoza Perez**  
Errenteriako alkatea

---

# Saluda

Ha llegado el momento de escribir el prólogo de la revista *Oarso*.

Si echamos un vistazo al índice del número de este año, vemos claramente que trata diversos temas y que echa la mirada hacia atrás en la historia de este municipio.

Se trata el tema del descubrimiento de los grabados de las cuevas de Aitzbitarte y los megalitos de Txoritxokieta.

Decimos que Errenteria es una ciudad marítima, y muestra de ello son nuestra parte vieja y Kapitainenea. De hecho, en el número de este año también se recoge información sobre la excavación arqueológica allí realizada, así como la relativa a las visitas guiadas que se ofrecen para conocer la ciudad marítima y su patrimonio.

La música cantada, las voces, también tienen especial relevancia en esta edición, ya que la coral Andra Mari cumple su 50º aniversario, y Landarbaso el 25º. De hecho, el recorrido iniciado por la coral Andra Mari hace 50 años ha situado nuestro municipio como referente de corales, y han seguido esa misma senda Landarbaso y otros coros. ¡Enhorabuena!

También se ha reservado un hueco para escritores y escritoras vascas en el marco del centenario de la muerte de Erramun Astibia y el nacimiento de Jose Mari Azkarraga "Lurgorri". Mediante estos artículos queremos recuperar los trabajos de escritoras y escritores locales e invitarlos a ponerlos en valor.

Asimismo, se tratan otros muchos temas. Sin embargo, no podemos pasar por alto el 40º aniversario de la Asamblea de Errenteria. Seguramente tendremos mucho que aprender de ella para nuestra actividad, ya que en este momento en el que queremos promover la participación ciudadana la asamblea es un ejemplo muy interesante, que además nos muestra la trayectoria que ha tenido nuestro municipio a lo largo de estos 40 años.

Un cordial saludo.

Gora gure Madalenak!

**Julen Mendoza Perez**  
Alcalde de Errenteria



Pasaian 20 urte zituenean. 1953-04-11.

## Zu zarelako gara gu

**MIRENAZKARATE BADIOLA<sup>1</sup>**

Tik-tak... segundoak eta orduak erlojuetan... Tik-tak, tik-tak... egunak eta hilabeteak badoaz egutegietako orrietan... Tik-tak, tik-tak, tik-tak... urteak geldiezin aurrera, ihesbiderik gabe. Ezin dugu ekidin, sortu ginen bezala desagertuko gara. Baina oinordekook dugu ardura gure nagusien ahotsak isil ez daitezen, haien memoriak kandela piztu bat izaten jarrai dezan. Asko dago kontatzeko, ezer ez ahazteko.

Oroitzapenak almatzen baina oroimena marra fin batean, azalpenik ez duen "hau gogoratzen dut eta hau ez". Berandu baino lehen, testigantza eman, errepika ez dadin historia.

94 urte betetzera doan emakume zoragarri bat elkarrizketatzeko plazera izan dut. Asko bizitako emakumea, begietara begiratuta hitzik gabe dena esaten dizuten horietakoa eta Guda Zibila bizitu zuen itzali ez den ahotsa.

Rita Azcarate Jimenez 1922an jaio zen Donostian. Datu hau orain gutxi jakin zuen, herentzia kontuak direla eta erregistroan bataiatutako papera soilik aurkitu zutelako. Berak, aldiz, lehen oroitzapenak Erreterian ditu. Bertara 3 urte zituela joan zen bere ama, Micaela Jimenez Urbieta erreteriarra, aita, Bonifacio Azcarate Orbaiz el-

<sup>1</sup> Mariasun Landa sariaren 6. edizioaren "Emakumeen begirada" sariaren lan irabazlea. Epaimahaia: Garazi Lopez de Etxezarreta, Leticia Bermejo, Aizpea Otaegi, Iñigo Imaz eta Eva Domingo.



Niessengo lankideekin. Hirugarrena eskubitik .

goibartarra eta anaia, Estanislao Azcarate Jimenezekin batera. Inoiz denbora luzez banaturik egon ez zen sendia.

14 urte zituela Durangora joan ziren, aitaren lana zela eta batera eta bestera ibiltzen zirelako eta bai,  $1922+14=1936$ . Urte asko eta belaunaldi batzuk igaro diren arren, gazteongan oraindik zirrara hotz bat eragiten duen urte madarikatua. Guda Zibilaren hasiera. Orain arte Ritaren begiak poza adierazten zuten, sendiaz mintzo zen bitartean. Orain aldiz begirada gogortu eta momentu jakinetan tristatu zaio, malkorik isuri ez duen arren.

Durango bonbardatu zuten egunean, Rita eta Micaelari denbora eman zien zeuden etxeko sotora jaisteko. Heriotza usaindu eta ia ukitu egin zuela dio hantxe, bere etxeko egongelako zoruan in situ ikusiko balitu bezala hilotzak. Nik ere farmaziako langilea ikusi dezaket, Ritak bere eraiketa nola izan zen kontatzen didan momentu berean...

Bere anaia maitea ere ia egun hartan nola erail zuten kontatzen hasten denean, bere ahots fin baina irmoarekin, oilo-ipurdia jarri zait. Testigantza bat izanik ere, zineman egongo banintz bezala da, hitzak dira, baina irudiak dirudite. Anaia lagun batzuekin frontoian jolasten ari omen zen taberna

bateko billarretara joan zirenean. Frontoian geratu zirenei bizia erauzi zieten.

Egun hartan bertan, Rita, herrira egunero jaisten ziren baserritarretako batekin haren baserrira joan zen. Micaelak ere bide hori hartu zuen, nahiz eta bidea nekeza izan. Eta ez naiz distantziaz ari, hegazkinez ari naiz. Goizeko sarraskiarekin nahikoa ez eta arratsaldean bizirik geratu zirenak eta ihesari eman ziotenak bidean tirokatzen baitzituzten. Micaelari gizon batek hegazkinak pasatzean lurrean gelditu geratzeko esaten zion, mugimenduan zegoen edozeinen aurka tirokatzen zutelako. Halaxe iritsi zen alaba zegoen baserrira.

Bertako jabeen alaba txikia hartzen zuen goizero Ritak, eta Anboto magalean zegoen baserritik goiko kobetara eraman. Bertan hegazkinak ez baitzituzten bonbak jaurtitzen. Leku seguru baten bila, gudan hori posible bada. Kobak ezkutaleku eta babesleku nahikoak ez iruditu eta barruan zegoen harkaitz baten atzean igarotzen zuten eguna, egunsentitik iluntzera arte. Beldurra hain zen muturrekoa, 16 urteko nerabeak ume txikiari behin eta berriz esaten ziola: "ez hitzik egin, entzun egingo gaituzte eta". Egunero egiten zuten ibilaldi hau, eurria egiten zuenean izan ezik; egun horiek zoriontsuak ziren, euriarekin kazak ez baitziren ateratzen.



Errenteriako lagunekin. 1958-10-29.

Egunak joan egunak etorri, Ritaren gurasoek Bilbora joatea erabaki zuten (aita orain arte beste etxe batean zegoen gordeta eta anaia boluntario gisa joan zen Durangoko bonbardaketa egunean bertan 17 urte zituela), alaba baserrian geratzen zen bitartean. Gutxira, ordea, baserriko jabeari alaba Bilbora laguntzeko eskatu zioten. Halaxe goiz batez, Rita eta baserriko jabea tren batera igo ziren, baina destinora iritsi aurretik, Lemoan jaitsi ziren. Faxisten hegazkin bat trenaren gainean zeramatan segundo oro eta gizona ez zen fio. Lagunak zituen bertan eta apopilo hartuak izan ziren, harik eta herri hau ere bonbek irentsi zuten arte.

Bilbora iritsitakoan La Merced izeneko aterpean babestu ziren hiru senideak. Baina Bilbora ere iritsi ziren faxistak eta handik Sopuertara mugitu zituzten. Hantxe izan zen amaiera, jada Euskal Herria faxisten esku zegoen, erresistentziak ez zuen gehiago jasan. Bertan, heriotzaz inguratutik, arrotzen menpe eta etsaien atzaparretan, jakin zuen anaia Santoñan zuela preso. Hango portuan hartu zuten atxilo euskal gudariz beteta alde egingo zuen barkuaren zain. Alabaina, erreketek bati bere garaian egindako mesede batengatik (esnea eman zioten berari eta bere sendiari), berak bueltan Estanislao kartzelatik atera zuen.

Rita eta Micaelak ez zuten amore eman eta helburu jakin bat zuten: Errenteriarantz itzultzea. Horretarako salbokondukto bat behar zuten, Bilbon bakarrik esleitzen zutena. Bi emakumeek egun bateko bidaia egin zuten Sopuertatik Bilbora oinez, deskantsurik gabe. Micaelak oinak zauriz beteta amaitu zuen bidaia, baina paperak eskuan.

Errenteriarantz bueltan, zortea izan zuten, etxe batean sartzeko aukera izan baitzuten, askok eta askok ez zutena izan. Dena konfiskatuta eta jabez aldatuta, itzuli ziren gehienak ez zuten ezer aurkitu.

1940. urteaz geroztik, Rita, gaur egun bizi den etxean bizi da, Galtzarabordako Villa Isabelen. Berehala jarri zen lanean jostun moduan amari laguntzen. Ondoren Niessenek zegoen orratzen fabrika aritu zen urte batzuetan, Pasai Antxoko Alaska izeneko puntu tailer batera joan zen arte. Hortik Donostiara beste puntu tailer batetara. Pasaian txapela fabrika batean jubilatu zen 65 urterekin.

Rita ez da inoiz ezkondu, ez duelako nahi. Borrokalaria, langilea eta errebeldea. Miresmen hitzak besterik ezin ditut izan nire izeba-amonaz. Oreretako kandelak, gainontzekoen gisara, sekula itzali ez daitezten.



# Historia de un cotilleo real

MIGUEL LOS SANTOS

Las personas que pertenecemos al grupo de quienes tenemos que trabajar duro para llevar una vida sencilla, encontramos placer en soñar con lo que haríamos en el caso de disponer de una capacidad económica mucho mayor.

En cambio, también se da el caso contrario: las personas de gran relieve económico o social cuya ambición es la de poder confundirse con la clase media y pasar desapercibidas por cualquier calle o paseo.

Mi profesión me hizo acudir varios años a un palacete (ya desaparecido), con terrenos adyacentes al Palacio Miramar, con motivo de que la señora venía a pasar la temporada estival, con más de 20 personas de servicio.

Todas las tardes que podía, la señora llamaba al chófer para que le llevase a un café de la calle Matía, donde pasaba la tarde jugando a las cartas con sus amigas, que eran sencillas amas de casa.

Cuenta Peña y Goñi que mientras toda la flor y nata de la sociedad buscaba al gran tenor Gayarre durante el verano, a fin de tratar sobre los nuevos contratos, preparación del repertorio y ofrecerle participar en sus elegantes actos sociales, el tenor se refugiaba en Irun una temporada ¡para jugar al mus!

Extraigo de una carta de 1982, del mismo Peña y Goñi al musicólogo Felipe Pedrell, donde se explica cómo recoge del pelotari Urchalle una bonita canción vascofrancesa (Agur, jaunak), y donde dice lo siguiente:

*... hay junto a San Sebastián un pueblecito muy bonito llamado Rentería, y que ese pueblecito por un lado tiene un restaurant...*

*...Se inauguró modestamente, sin estrépito de reclamos, con el nombre de Oarso-Ibai (Río Oarso), y no tardó en acudir allí la gente veraniega de San Sebastián, atraída por lo pintoresco del sitio, por la calidad de los manjares, bebidas y refrescos que se servían a la concurrencia así como por el esmerado trato que se ofrecía á todos en el establecimiento novel...*

*...Ha sido, pues, el restaurant de Rentería, durante el estío que acaba de transcurrir, pun-*



*to obligado de reunión de todos los mundos sociales: el grande, el chico y el mediano que se han solazado a piacere, bajo el imperio de la moda, en dulce y atractiva promiscuidad.*

Visto lo anterior como proemio, paso a relatar una historia escuchada de niño a mi padre y que, no cabe duda, tuvo que escucharla él de mi abuelo, si tenemos en cuenta las fechas.

Mi padre, nacido en 1906, en la calle Kapitanenea nº. 4, contaba en casa que la Reina Madre hacía frecuentes paseos a Rentería y que, a veces, hacía compras en el depósito de la fábrica de Hilaturas de Lino. Casualmente, un día entró en Casa Mendarte, donde se encontró con la propietaria en el mostrador y, en el lado del público, varias amigas. El grupo mantenía un interesantísimo cotilleo.

La Reina Regente, con gran llaneza, entró en la conversación causándole ésta tanto agrado que los paseos a Rentería incluían, frecuentemente, su participación en tan trascendentales tertulias.

Es difícil pensar que Casa Mendarte dispusiese de suministros tan especiales que la Real Casa tuviese necesidad de acudir a ella para suminis-

trarse de los productos que despachaba; y que, además, proveyese a la misma en tal medida que, con criterios comerciales, le concediese el título, a la sazón tan codiciado, de “Proveedor de la Real Casa”; más bien cabe suponer que tal título se concedía por la amistad entablada en tan entretenidas tertulias.

Investigando un poco en la hemeroteca de la época y posterior, se puede comprobar la proclividad de la Reina Regente y, posteriormente Reina Madre a dar paseos por Rentería.

Para confirmar que lo escuchado tantas veces era cierto, decidí hacer unas comprobaciones sobre Casa Mendarte e Hilaturas de Lino.

Puesto en contacto con la Real Casa, solicité información y obtuve las siguientes respuestas en diferentes correos electrónicos:

*21/08/2015: Por Fábrica de Hilaturas de Lino no ha aparecido ningún expediente.*

*21/08/2015: En respuesta a su consulta le informo de que hemos procedido a la búsqueda de información acerca de la Casa Mendarte en la serie de nombramientos como proveedor de la Real Casa y hemos localizado el otorgamiento de dicho título a Saturnino Mendarte y su establecimiento de géneros ultramarinos de Rentería, con fecha de 1901 (signatura: AGP, Administración General, C<sup>a</sup> 25271, Exp. 17).*

*Solo consta el nombramiento, no se conserva la solicitud ni tampoco el pergamino con el que se refrendaba el título que,*

*obviamente, se enviaba al interesado - (aunque en algunos casos, por diversos motivos, permaneció en el propio expediente).*

Con cierta sorpresa, veo confirmado lo que mi padre decía y que, forzosamente, tuvo que haber escuchado a mi abuelo.

El título era muy codiciado y para saberlo basta citar el diario *El País* (20 de octubre de 1994):

*... Medio centenar de establecimientos madrileños siguen regentados por los descendientes de un selecto grupo de comerciantes que, a lo largo de tres siglos, suministró productos de alta calidad a la familia real. Por esta razón integraron una lista en la que figuraban con el rango de Proveedores de la Real Casa, emblema que junto al escudo de la Corona adornó los membretes de su correspondencia y los rótulos de sus comercios.*

*... La distinción comercial de los Proveedores de la Casa Real se remontaba a 1614, fecha de la que data la primera autorización de ese tipo. En tiempos de Isabel II fueron 83 los títulos otorgados; 142 bajo el reinado de su hijo Alfonso XII, 96 fueron extendidas durante la regencia de la reina María Cristina y 66 en el reinado de Alfonso XIII.*

Para finalizar, creo interesante resaltar que la concesión se realizó en 1901 y que la reina María Cristina cesó como Reina Regente en 1902 al alcanzar su hijo Alfonso XIII la mayoría de edad y pasó a ostentar el título de Reina Madre.





Antonio Valverderen seme-alabetako batzuk

# Antonio Valverde Ayalde

## Mendeurrena - Centenario (1915-2015)

ARANTXA VEGA OTERO

Hitz andana idatzi da Antonio Valverde Ayalde pertsonaia polifazetikoaren inguruan. Margolari bezala gerraurre eta gerraondoko artisten lotune izan zen estilo oso ezberdinak jorratuz. Euskaltzale eta idazle, hainbat aldizkaritako kolaboratzaile. Arte grafikoetan barneratu zen enpresari gisa eta sortzaile moduan. Landutako diziplina guztiak aipatzea oso zaila denez, azken batean, Euskal Herriko bizitza artistiko eta intelektualean bere tokia lortu eta garrantzia berezko merituz irabazi zuen pertsona izan zela esan dezakegu.

Bere figurara modu ezberdinetan gerturatzerik bada. Ekoizpen artistikoa aztertuz ohikoena, baina horrelako figura baten aztarna ekoizpen materialaz haratago doa. Hau horrela dela ikusteko aukera paregabea izan dugu. Bere jaiotzaren mendeurrena ospatu berrian, Errenteriako Udalak Val-

verde-Lamsfus familiarekin elkarlanean Ayaldek Errenteriarekin izandako harremana jasotzen duen erakusketa antolatu baitu.

Lerro hauek, beraz, hitzez eta irudiz, erakusketa honen lekuko bihurtzeko asmoz sortu ditugu.

Modu naturalean sortu da erakusketa honen beharra eta modu naturalean ere sortu da elkarlana. Izan ere, Antonio Valverderen seme-alabetako batzuekin lanean aritzeko zortea izan dugu. Eta zortea diogu, haien laguntzak, prestutasunak eta umore onak beste aukerarik uzten ez digulako.

Erakusketa honetarako familiartekoez egindako lanak Ayalderen bizitzaren kontaketa propioa utzi digu.

Ezagunak diren obra esanguratsuekin batera, zirraborro eta obretan hautatutako motiboen bertsiok ezberdin eta idatziak erakutsi ditugu. Obra buka-



**Erakusketako panelak**

tuak protagonismo nagusia eraman ohi badu ere, hauen sorkuntzarako bitzako prozesuaren zertzeladak ezagutzeak interes nabarmena pizten baitu. Ekoizpen piktorikoa bere bizitzako irudi (txikita-koak, familiarekin,...) edota lan tresnekin osatu da.

Halere, bere oinordekoekin lan egiteak balio erantsia eman dio erakusketa honi. Bere seme-alabek aita zenaren inguruan erakusten duten goxotasuna eta miresmena bildutako elementu bakoitzean nabari baita.

Azken batean, Ayalderen herentzia plano publikoan garrantzitsua dela ezbaian jartzerik ez dagoen bezala, plano pribatuan utzitako arrastoa agerikoa dela esan dezakegu.

Antonio Valverde Ayalde, bere osotasunean, izan da erakusketa honetan azaltzen ahalegindu garena eta hemen bildu dugu honen guztiaren testigantza grafikoa.



**Goikokale. Litografia. 30x23 cm.**



Goikokale. Akuarela. 63x49 cm.



Goikokale. Luma paperean. 46x36 cm.



Goikokale. Arkatza eta luma paperean. 26x20 cm.




Orereta kalea. Aguafuerte. 30x25 cm.



Orereta kalea. Arkatza eta luma paperean. 20x25 cm.




Santa Klarako ermita. Olioa tablexean. 49x64 cm.



Antonio Valverdek mekanografiatutako idatzia Santa Klara ermitari buruz



Xenpelar, 1968. Olioa mihiSean. 100x81,5 cm



Antonio Valverderen eskuizkribua Xenpelarri buruz



P. CAMILO DE UTERGA. (FOTOGRAFÍA DE BEGOÑA BILBAO)

## P. Camilo de Uterga

MAITE RUIZ DE AZUA

103 años tenía el P. Camilo de Uterga cuando falleció, o quizá en su caso deberíamos decir cuando descansó, sin incurrir en eufemismos, vista su longeva, activa y viajera vida. Había nacido el 11 de mayo de 1892 en Uterga (Navarra), donde actualmente la plaza del frontón lleva su nombre: "Aita Camilo". A finales del XIX Uterga era una población agrícola que contaba con unos 400 habitantes. La familia de Antonio Arraiza Coello, nombre del P. Camilo, habitaba en la calle La Asunción 14, en la llamada Casa del cerero, título que hacía referencia a la ocupación que en otro

tiempo habría ejercido alguno de sus habitantes, si bien de quien realmente sí se tiene noticia es de Joaquín Jáuregui, bisabuelo materno de nuestro protagonista. Jáuregui desempeñó el cargo de secretario del pueblo e hizo acopio de una serie de documentos que guardó en su propio domicilio, y de los que hace mención el P. Anselmo de Legarda, que elaboraría el artículo *Uterga en su catastro de 1854* gracias a la documentación que le proporcionó el mismo Camilo de Uterga.

Otra referencia curiosa en relación a la familia del P. Camilo y a este mismo la hallamos en el



*Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* de 1973, donde se menciona cierta escritura en la que toman parte Joaquín Jáuregui y sus hijas Evarista (aspirante a religiosa) y Dominica, ya casada. En relación a esta última se menciona lo siguiente: “Ella y su marido Dámaso Cuello (sic) son vecinos de Pamplona. Años más tarde una hija de Dámaso y Dominica, por nombre Joaquina, volverá a Uterga, para contraer matrimonio con un Arraiza”. El texto a continuación pasa a hablar de un tal Faustino Mariñelarena, que ha enviado una carta desde Cuba a Dámaso Coello, animándole a emigrar al Caribe en busca de fortuna: “Dámaso al recibir la carta de su amigo, pensó muchas veces en la perla de las Antillas, pero no se imaginaba que un nieto suyo, el P. Camilo de Uterga, cruzaría también el mar y durante medio siglo ejercería el apostolado en tierras argentinas y chilenas”.

Siendo niño, Antonio Arraiza ingresó en el seminario de Estella, en donde un compañero de curso llamado Irujo le enseñó a bailar el auresku. Con 15 años tomó el hábito de novicio, entonces cambió su nombre por el de Fray Camilo de Uterga. Cuando completó sus estudios sacerdotales

fue ordenado presbítero el 18 de diciembre de 1915 en Pamplona.

El 10 de septiembre 1917 recibió obediencia y se trasladó a Argentina a ejercer su labor de misionero en un ámbito muy concreto: el de los emigrantes. Ya desde mediados del XIX la emigración de vascos y navarros hacia tierras argentinas era un hecho que adquiría cada vez mayor importancia. La tendencia de los emigrantes europeos, independientemente de su origen, era recurrir en busca de apoyo a instituciones de beneficencia, que con el paso del tiempo fueron adquiriendo un carácter más étnico, dando paso a las casas regionales. Así, a principios del siglo XX un grupo de vascos porteños decide crear una institución étnica modelo, que incluiría un orfanato, un asilo y un colegio; nace la *Euskal Echea* de Llavallol en 1904. Dos de los miembros de la comisión ejecutiva, Pedro Albaitero y Víctor Mendizábal, mediante correspondencia o con viajes para entrevistarse con los directivos de Lecároz, son los responsables de la contratación de los padres capuchinos de la provincia religiosa de Navarra-Cantabria-Aragón, para dirigir los proyectos docente y asistencial.



Algunos de los miembros de la comunidad capuchina con el equipo vasco de fútbol que visitó el colegio en 1922

El P. Camilo formó parte del profesorado de la *Euskal Echea* de Llavallol desde 1921 a 1930, donde se encargó de dirigir los anuarios del colegio. En dichos documentos recoge los acontecimientos más significativos del curso escolar: presencia de ilustres visitantes (entre ellos el P. Donostia, quien viajó a Argentina y otros países sudamericanos a impartir conferencias sobre diversos aspectos de la música vasca), premios académicos, la celebración de la fiesta vasca, competiciones deportivas, actuaciones diversas y las excursiones realizadas durante el curso. Por ejemplo, el anuario de 1921 recoge un día de campo en la playa de Quilmes: el entusiasmo de los colegiales, sus juegos, sus cantos, el asado de la comida... He de comentar que, según leía las notas del capuchino, me venía a la memoria aquel día en el que el P. Camilo, con cerca de cien años, se subió al autobús que partía con cincuenta jóvenes hacia Quintanar de la Sierra, porque quería conocer el tan nombrado campamento de Gaztedi. Llegó de los primeros a la parada,

tan ilusionado como los mismos chavales, allí se instaló en primera fila, junto al chofer, dispuesto a disfrutar del viaje, parecía que volvía a compartir con los estudiantes uno de aquellos días de campo, ahora entiendo que aquel día volvió a ser aquel joven fraile de Llavallol, pues estaba feliz e imparable.

En el anuario de 1922 aparece una referencia a sí mismo cuando comenta la salida a la Feria Rural: "Ya es tradicional la visita de los cursos superiores a la Exposición de Ganadería en Palermo. Acompañaron a los alumnos los PP. Conrado, Cipriano y Camilo". En el anuario de 1925 se le vuelve a mencionar: "Con extraordinario lucimiento se celebró el 13 de junio la fiesta de San Antonio; como cada año, la nueva Junta Directiva se esmera por aventajar a las precedentes, añadiendo nuevos números al programa. Desde la víspera, una nutrida sesión de pirotecnia, en la que no faltaron las carreras de "buscapiés" y los sustos consiguientes de los más formales, al mando del infatigable P. Camilo, anuncian la proximidad de un gran día". Tam-





Miembros de la comunidad de capuchinos de Errenteria en el año 1983

bién, como él mismo declaró en una entrevista a *Diario de Navarra* en 1994, les enseñaba los niños de *Euskal Echea* a bailar el auresku.

En 1930 fue destinado a Nueva Pompeya, en la zona sur de Buenos Aires, barrio que recibe su nombre del Santuario de la Virgen del Rosario de Pompeya, cuya fundación era obra de los primeros capuchinos navarros llegados a Argentina en 1902. Era Pompeya un barrio de emigrantes, habitado por gente trabajadora de los mataderos cercanos y obreros industriales; asimismo era uno de los barrios con más tradición tanguera. Adjunto al Santuario los capuchinos habían inaugurado también un convento y un colegio gratuito para niños pobres, otras de las instituciones de beneficencia fueron los dispensarios gratuitos y escuelas de segunda enseñanza. El P. Camilo ejercerá primero de profesor del colegio para convertirse luego en director del Seminario Seráfico de Nueva Pompeya para la formación de religiosos y sacerdotes autóctonos.

En 1935 cruzó los Andes para instalarse en Chile, donde desarrolló el resto de su vida misionera en América hasta 1969.

Su primer destino en Chile fue Paine, a 60 kilómetros de Santiago, lugar en el que en 1932 se había inaugurado un casa convento a cargo de los capuchinos. En 1935 al P. Camilo le nombran director del Colegio-Seminario, “dentro de sus muros, de una solidez de concreto formidable, bulle el genio de la inocencia y de la experiencia, unos aprendiendo y otros enseñando”, allí tiene a su cargo 34 muchachos “todos de sana complexión, de alegre continente, de vivacidad prometedor, atentos al reglamento de su director de Colegio”, según consta en la *Reseña histórica de los conventos del Comisariato Provincial en las repúblicas de Argentina y Chile*.

Posteriormente fue trasladado de Paine a Viña del Mar, donde ya antes habían estado el P. Remigio de Pamplona, primer director de *Euskal Echea*, y el P. Juan de Azpilicueta, primer director



El P. Camilo de Uterga a sus 100 años bailando el auresku. Errenteria, 10.05.1992

del colegio de Nueva Pompeya, ambos destinos recorridos también por el P. Camilo. En este nuevo destino los frailes predicaban sermones, pláticas y conferencias.

Estando en Viña del Mar prestó servicios eclesiales en la isla de Juan Fernández, de cuya Capellanía se ocupaban los capuchinos desde años atrás y que exigía un viaje anual. La distancia a la isla, partiendo del puerto de Valparaíso, era de 360 millas marinas, lo que suponía una navegación de unos tres o cuatro días, que habitualmente se realizaba a bordo de un buquecito de 60 toneladas que se movía como un juguete entre las olas, resultando el viaje bastante penoso. A veces se tardaba muchos más días si el viento no favorecía el servicio de las velas.

La predicación y la estadía de los capuchinos solía durar mes y medio aproximadamente. Durante ese tiempo, la misión del P. Camilo y de los demás expedicionarios era dar una serie de instrucciones morales y catequísticas. Por las tardes solía tener lugar la explicación del catecismo a fin de preparar a los niños para la Primera Comunión. También se cuidaba de la

administración del bautismo, de casamientos y confirmaciones.

Ya tenía casi ochenta años cuando en 1969 dejó Chile para instalarse en el recién construido convento de Errenteria. Enseguida fue conocido por todo el mundo como Fray Escoba, pues diariamente se le veía barriendo en el atrio de la iglesia, las escaleras y los aledaños, recogiendo las cáscaras de pipas que arrojaban los niños o el arroz de las bodas. Desempeñaba también la labor de portero todas las tardes en una pequeña habitación en la entrada del convento, atendiendo sin prisas los recados, los avisos a los frailes, los encargos de misas, y anotando en los registros con su cuidada ortografía los bautizos, casados, difuntos.

Estando en Errenteria, al P. Camilo de Uterga se le rindieron dos homenajes: uno el 7 de mayo de 1989 en Donostia, al cumplir las bodas de diamante como sacerdote; el otro fue en 1992 en Errenteria cuando cumplió los 100 años. Aquel día hubo una celebración en la Parroquia Nuestra Señora de Fátima con txistus y dantzaris incluidos, pero el protagonismo del baile se lo llevó el mismo ho-

menajeado, pues dejó a todos con la boca abierta cuando se puso a bailar un aurreku.

Ya en 1994 fue destinado a la enfermería de Pamplona donde falleció en 1996.

Para finalizar nos referiremos a cómo en cierta ocasión un grupo de jóvenes le hizo una pequeña entrevista para una revista que realizó el grupo de Tiempo Libre Gaztedi Txiki, esto es lo que contestó a algunas de las cuestiones:

**¿Cuál es la etapa de su vida que con más añoranza recuerda?**

*Todas en general. Quizás me he sabido acoplar mejor a Chile, porque he estado más tiempo allí, pero en general me gustan todos los sitios en los cuales he estado.*

**¿Por qué volvió de Chile?**

*En el año 1969, en mayo, volví a España por un problema de la vista. Los médicos chilenos me dijeron que la enfermedad que tenía (veía doble) la trataban mejor los médicos de mi tierra. Y así me dieron un año de permiso para venir aquí. Cuando me curaron vi que ya tenía 80 años y entonces pensé si merecía la pena volver o quedarme aquí. Pensé que me quedaba poca vida y me quedé.*



Ilustración realizada para acompañar a la entrevista para la revista *Xirika* del grupo de T.L. Gaztedi Txiki

**¿Cuál es su labor en la Iglesia?**

*Mi función es la de vivir en comunidad, ya que por la edad nos dejan libres de Sacramentos. Esa es la principal. Esto no quita que hagamos otras funciones como decir misa alguna vez, hacer de portero, barrer, etc., es una situación similar la del jubilado.*

**¿A qué dedica su tiempo de ocio?**

*Normalmente suelo decir la Santa Misa hacia las 7:00, desayuno y hago las funciones de portero y suelo leer. Me entretengo en lo que puedo.*

**¿Cuál sería para usted el mejor regalo?**

*La verdad es que en la vida lo he tenido todo y por eso no echo nada en falta para mí. Estoy contento por lo que me ha tocado y me podrá tocar.*

Otro día evocaba el P. Camilo sus años en Chile ante un grupo de chavales y monitores cuando de repente se le iluminó la cara al mencionar su paso por la isla de Juan Fernández. ¡La isla de Robinson Crusoe!, nos decía, y nos hablaba del naufragio de Defoe con absoluta familiaridad y de un crucero alemán, el *Dresden*, hundido durante la Primera Guerra Mundial por los propios marineros frente a la costa de la isla. Y a partir de ese momento su persona me cautivó por completo, cuando entendí en la portería que el P. Camilo de Uterga no era solo el abuelo centenario del convento, así que lo incluí en mi lista de personajes inquietos, viajeros y aventureros, al par del mismísimo Robinson. Y ahora al rematar el escrito, tras haber seguido sus pasos, estoy aún más convencida de ello: niño era cuando dejó su familia y casa de Uterga, un poco quizás por curiosidad por conocer otros horizontes, y después de Pamplona a América, a atravesar el Atlántico (Navarra en su equipaje), allí la inmensidad de Argentina por delante, entre emigrantes, niños, jóvenes, seminaristas y obreros. Después a atravesar los Andes, como quien va de expedición, camino de Chile, donde aguardaban nuevos retos: Paine, Viña del Mar, la isla de Juan Fernández, desempeñando labores de párroco, profesor, pedagogo, etc. Y luego viaje de regreso, 53 años después vuelta a atravesar el Atlántico (Argentina y Chile en su equipaje), con un nuevo destino en Errenteria, donde su andar, aunque fue más pausado, nunca fue parado:

**Antonio Arraiza Coello - P. Camilo de Uterga**



Bretainia Handiko euskal umeak, 70. urteurreneko omenaldian, Southampton, 2007ko maiatzaren 7an.

# Gu migratzaileok

## KAPITANENEKOA

Duela ia laurogei urte, euskaldunok migratzaile izan ginen. Ebakuazio antolatua izan zen gurea eta Gernikako bonbardaketa eta suntsipena izan zuen azken eragile.

1937ko umeen eta populazio zibilaren ebakuazioa, Agirre Lehendakariak munduari apirilaren 27an egindako deiaren bidetik egin zen. Gernikaren bonbardaketaren berri emateko egindako irratseaioa hitz hauekin bukatu zuen Lehendakariak:

*Quiero creer que las naciones acudirán en auxilio de las más de trescientos mil mujeres y niños que vienen a refugiarse a Bilbao. Nada pedimos para los hombres, pues nuestro propósito firme de defender la libertad de nuestro pueblo nos hará afrontar los mayores sacrificios con el ánimo sereno y la conciencia tranquila.<sup>1</sup>*

Ordura arte “ez interbentzioaren” politikaren barruan, guztiz aparte izan ziren Bretainia Handiko eta Frantziako gobernuak. George Steer kazetariak funtsezko papera jokatu zuen britainiar gobernuaren jarrera-aldaketan. Berak eman zuen Gernikako suntsiketaren informazioa, baina hortik harantzago, Eusko Jaurlaritzarekin kolaboratu, bitartekari lana egin zuen hauen eta Bretainia Handiko gobernuaren eta politikarien artean eta Eusko Jaurlaritzak ez zituela lurralde-urak kontrolatzen zioten gezurrak ezeztatuz, Steer-ek

frankistek zabaldutako gezurkeriak desmuntatu zituen. Horren ondoren, Frantziako eta Bretainia Handiko gobernuak laguntza eskaini zuten eta ebakuazioa gauzatu ahal izan zen, nazioarteko urak kontrolatzen zituen britainiar armadaren laguntzarekin.

Bere txarrean, ebakuazio hartan irten ziren zibil eta adingabeko haiek, gaurko ia inongo errefuxiatu ez duen abantaila bat zuten: egoeraren dramatikotasunaren barruan, ebakuazio antolatua izan zen hura. Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen ardura hori. Horren lekuko, Euskadiko Jaurlaritzak ebakuatzen ziren umeentzat atera zuen ebakuaziorako Nortasun Agiriaren ifrentzuan, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez jarritako mezua:

*Evacuación de ancianos, mujeres y niños dispuesta por el Gobierno de Euzkadi, bajo el patrocinio de los Gobiernos de Inglaterra y Francia.*

Agirre Lehendakariaren Eusko Jaurlaritzak buruan zuen populazioa zibila salbatzearen beharra. Arrisku bizia zen eta hori areagotzen zuten Bizkaian oro har eta Bilbo eta bere inguruan –bereziki– pilatzen ziren errefuxiatu multzo handiak eta matxinatuek azaldu zuten gerra totala egiteko mehatxuak. Testuinguru horretan, Gernikaren suntsiketak ebakuazioa azkartu eta behartu zuen.

<sup>1</sup> José Antonio Agirre Lehendakariak 1937ko apirilaren 27an Bilbon Radio Euzkadiren mikrofonoetan egindako diskurtsoaren zatia.



Ezin dira ahaztu Mola jeneralak izenpetuta, 1937ko martxoan, Bizkaiaren kontrako erasoaldia hasi zen garaian, gaztelaniaz eta euskaraz idatzita bota zituzten panfletoak:

*Azkaneko deia: España'ko nortian darabilgun guda edo guerra au beriala amaitzeko asmua artu dot. Iñor il ez badozue eta daukozuezan armak itxi eta gugana etorten bazarien suen bizija eta ondasunak gordeko doguz zuentzako oker barik. Onela gaur berian egiten ez badozue Bizkai guztiak deseguin edo apurtuko dot, guda edo guerrera'ko Fabriketatik azirik. Jakin eguizue ziur eguiteko oso-oso guertauta nagoela biar diran gauza guztiak ezkuetan daukedaz ta. General Mola<sup>2</sup>*

Eta, benetan, bazuen bitartekorik Emilio Mola jeneralak; lurreko ejertzitoaz gain, Alemania-ko Legion Kondor, Italiako Aviazione Legionaria

eta matxinatu frankisten hegazkinak ere bazeuzkan. Armada matxinatua eta gerra makinaria hori gogotik erabili zuen erasotzeko eta suntsitzeko. Mehatxua egiazkoa zen eta panfletoak bota eta egun gutxitara Durangoko bonbardaketa gauzatu zen eta ondoren Gernikakoa gertatu zen.

1936ko uztailaren 19an, Nafarroan gerra egoera aldarrikatu zuen egun berean, Emilio Mola jeneralak bere *Instrucción reservada* izeneko bat zabaldu zuen. Bertan, "direktoreak" hau agintzen zien hitzez hitz estatu kolpean parte hartu zutenei:

*Hay que sembrar el terror... hay que dejar la sensación de dominio eliminando sin escrúpulos ni vacilación a todos los que no piensen como nosotros<sup>3</sup>.*

Bortizkeria hori lehen egunetik aplikatu zuten eta populazio osoari zuzendua. Horren aurrean, biztanleria zibilak ihes egin behar izan zuen; familia

2 1937ko martxoan zabaldutako panfletoaren gaztelaniako testua: *He decidido terminar rápidamente la guerra en el norte. Se respetarán las vidas y haciendas de los que rindan sus armas y no sean culpables de asesinatos. Pero si la rendición no es inmediata, arrasaré Vizcaya hasta sus cimientos, comenzando por sus industrias de guerra. Dispongo de medios para hacerlo. General Emilio Mola.*

3 Emilio Mola, Instrucción reservada, 1936, uztailak 19.



osoak, adingabeko, zahar eta emakume askorekin. Irun erori aurretik 1936ko irailaren 5ean, iheslari askok —17.000 baino gehiagok— muga gurutzatua zuten, eta Frantzia geratu ziren errefuxiatuak, edo Kataluniara pasatu ziren Frantzia zeharkatuz. Baina, errefuxiatu gehienek Bizkaian bilatu zuten babes, Eusko Jaurlaritzak gobernatzen zuen lurraldean.

Ramón Sierra Bustamante, Gipuzkoako lehen gobernadore frankistak bere esku zen lurraldea izan zuen hizpide, irratiz eta egunkariaren bitartez 1936ko urriaren 16an zabalduz hitzaldian:

*¡Vosotros [los nacionalistas vascos] habéis engañado miserablemente al pueblo diciendo que el Ejército es una pila de asesinos y habéis aterrorizado a la tierra guipuzcoana; y por eso ahora falta actualmente de Guipúzcoa más del 50 por 100 de la población y de San Sebastián falta más del 60 por 100 de sus habitantes...!*<sup>4</sup>

Matxinatu frankisten aurrerabidea, egun gutxitako paseo militarra behar zuena, geldiarazi egin zuten 1936ko irailaren amaieran. Urriaren 7an Eusko

Jaurlaritza eratu zen, eta frontea sendotu egin zen Gipuzkoako eta Bizkaiko mugetan eta Intxorta eta Gorbeia mendikateetan. Horiek guztiak zirela eta, handik hilabete gutxitara, matxinatu frankistek populazio zibilari zuzendutako neurri are izugarri eta erradikalago bat aplikatu zuten: Gipuzkoatik etsaien familiak Euzkadiko Jaurlaritzak kontrolatutako lurraldera kanporatzeko agindua, baldin eta zortzi eguneko epean familiek ez bazuten lortzen beste aldean borrokan ziren beren senideek itzultzea eta beren buruak -eta armak- indar frankistei entregatzea.

1937ko otsailaren 9an familia osoen kanporaketak hasi ziren; zahar, emakume eta haurrak, besteak beste. Alberto Onaindia kalonjeak mila lagunetik gora pairatu zuten kanporaketa haren ankerkeria salatu zuen:

*La expulsión ofreció caracteres crueles e inhumanos. Salieron de sus casas sin más baje que un pobre hatillo de ropa. Sin un solo céntimo. Al llegar a las líneas de fuego, las autoridades franquistas obligaban a los padres ancianos, mujeres y niños a recorrer a pie tres*

<sup>4</sup> *Diario Vasco*, 1936, urriak 17, 5. or.

**PAIS VASCO**  
DEPARTAMENTO DE  
**ASISTENCIA SOCIAL**

**EUZKADI** 31  
GIZARTE-LAGUNTZA  
ZAINGOA

Expedición a **FRANCIA**

FOTOGRAFIA (CON GRAPA)

Apellidos **MOYANO YERIGARA**

Nombre **Francisco** 2.498

Edad **10** años, fecha del nacimiento **26.2.27**

Naturalidad **Bascongada**

Nombre y domicilio de los padres o tutores **Francisco Hernandez Peña**  
**Aurtonoia 16**

Lugar de residencia **Bilbao**

Familia que se hace cargo del niño

*M. Los Caminos*  
**GOBIERNO DE EUZKADI**

Evacuación de ancianos, mujeres y niños desamparados por el Gobierno de Euzkadi, bajo el patrocinio de los Gobiernos de Inglaterra y de Francia.

Evacuation des vieillards, des femmes et des enfants désemparés par le Gouvernement d'Euzkadi, sous le patronage des Gouvernements Anglais et Français.

Evacuation of old men, women and children orphaned by the Government of Euzkadi, in agreement with English and French Governments.

**CARNET DE IDENTIDAD** **EVACUACIÓN**

Excmo. Sr. Consejero de Gobernación de Euzkadi.

D. *Jesús Ruiz Apalaca*  
de **31** años de edad, natural de **San Sebastián** para  
domiciliada antes del 18 de Julio en **Basauri**  
calle **Uribari** y con residencia actualmente  
en **id** calle **id**  
casada con **José Fernández Ruiz** **Basauri**  
hija de **La U. G.**  
afiliado a **id**  
según carnet sindical o político que acompaña, lo cual supone el consentimiento del  
**Cyoto** para realizar este viaje, a V. E. respetuosamente expone:

Que desea trasladarse a **Inglaterra**  
en calidad de **Refugiada**  
en compañía de sus **hijos**

<b>Martha Aurora Fernández Ruiz</b>	de <b>9</b> años.
<b>José</b>	de <b>8</b> años.
<b>Carmen</b>	de <b>6</b> años.
<b>Guillermo</b>	de <b>3</b> años.
<b>María</b>	de <b>14 meses</b> .
	de años.
	de años.
	de años.

hijando su residencia accidental en la calle de  
para lo cual SOLICITO el pasaje correspondiente.  
Viva V. E. muchos años. Bilbao, **8** de **Julio** de 1937.

*Jesús Ruiz Apalaca*

SECCION DE  
DOS CAMINOS  
VIZCAYA

*kilómetros hasta llegar a las líneas enemigas, sin que antes se hubiera tomado la menor precaución de advertir a éstas la llegada de caravanas de expulsados, con peligro evidente de ser víctimas de algún fortuito tiroteo.*<sup>5</sup>

Testuinguru horretan gauzatu zituen Eusko Jaurlaritzak umeen lehen ebakuazioak. 1937ko martxoan, haurren lehen irtenaldia antolatu zuen Oleron frantses uhartera. Neurri handi batean, Olerongoa proba modukoa izan zen. Handik oso gutxira, populazio zibilaren kontrako bonbardaketa handi eta bereizi gabeen (hogeita hamasei udalerririk, gehienak erretagoardian kokatuak, bonbardaketak jasan zituzten) eta Durangoko bonbardaketaren (martxoaren 31n) eta Gernikako suntsiketaren (apirilaren 26an) ondorioz, Jaurlaritzak ebakuazio politika oso bat prestatu behar izan zuen, borrokan ez ziren herritarren bizitzak salbatu ahal izateko.



Apirila amaieran, Agirre lehendakariaren Jaurlaritzak abian jarri zuen makineria guztia, Euskadin eta kanpoan. Maiatzaren hasieran, Gizarte Laguntzako sailburua, Juan Gracia, eta Osasuneko sailburua, Alfredo Espinosa, Frantziara joan ziren handik ebakuazioa antolatuzera. Jaurlaritzak eba-

kuazio-komitea antolatu zituen Frantzian. Euskadin Gizarte Laguntza sailak haurren ebakuazioa koordinatu zuen eta Telesforo Monzon buru zuen Herrizaingo sailak helduen ebakuazioaren ardur hartu zuen. Azkenik, Jesus Mari Leizaola buru zuen Justizia eta Kultura sailak harrera-eremuen, irakaskuntza-langileen eta laguntzailez hornitzaeren ardura hartu zuen bere gain.

Ebakuazioaren koordinazio-lanek bizia kendu zioten Alfredo Espinosa, Unión Republicanako kide zen Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailburuari. Frankistek atzeman zuten Euskadira bueltatzeko hegazkin bidaiari Zarautzen, eta Gasteizen fusilatuta 1937ko uztailaren 24an.

Ebakuazio antolatuaren lehen irtenaldia maiatzaren 6tik 7rako gauean abiatu zen Santurtziko portutik, Frantziarako bidean. 2.500 ume eta 1.000 emakume eta gizon gutxi batzuk joan ziren Jaurlaritzaren jabegokoa ziren "Habana" transatlantikoan eta "Goizeko Izarra" yatean. Hortik aurrera, irteerak etengabeak izan ziren eta ez ziren amaitu ipar frontea urrian erori zen arte. Izan ere, Euskadi okupatuta zegoelarik ere, Eusko Jaurlaritzak zibilak ebakutzen jarraitu zuen, Santander eta Asturiastik.

5 Alberto Onaindia, "Hombre de paz en la guerra. Capítulos de mi vida I", Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1973



Ebakuazioaren zatirik handiena hirurogei zeharkaldi egin zituzten 30 itsasontzietan burutu zen, 116.746 lagun garraiatuz, horien artean ume ugari. Ebakuazio handi hura koordinatu zuen Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-laguntzarako Sailak 37.930an zenbatu zuen umeen exodoa. Ume horietatik, 22.234 Frantziara eraman zituzten; 6.200 ume Frantzian lehorreratuta Katalunian izan zuten aterpe herri hura oraindik Errepublikaren esku zegoen garaian; beste 3.956 ume eta gazte Britainia Handian jaso zituzten; 3.201 Belgikan, 1.889 Sobiet Batasunean; 245 Suitzan eta 105 Danimarkan.

Behin Euskaditik kanpo, errefuxiatu multzo handi hura egoera desberdinetan izan zen. Britainia Handian egonaldia bertako erakundeekin antolatua izan zen -eliza kuakeroa, laguntza taldeak eta abar- berdin gertatu zen Belgikan, Danimarkan eta Suitzan. Aldiz, Sobiet Batasunean estatuak hartu zuen ebakuatutako umeen ardura osoa.

Iritsi bezain pronto, Frantziara heldutako errefuxiatuen multzo handi bat Errepublikaren esku zen Kataluniara bideratu zituzten. Eusko Jaurlaritza bera 1937ko urrian Bartzelonan kokatu zen eta han izan zuen egoitza eta berrantolatu zuen errefuxiatu haiei zerbitzu emateko egitura oso bat, euskal egunkariak argitaratzen zituzten (*Euzkadi en Catalunya*, *Euzkadi* egunkaria, *Euzkadi Roja* eta abar) ospitaleak antolatu zituen Jaurlaritzak (Ger-

nika, Euzkadi, Otxandio) eta zerbitzu sozialak eskaini zizkien (horien artean "Concierto Económico Alimenticio" gisa funtzionatu zuen errazaionamendu autonomoa) Katalunian bizi izan zen ehun mila lagun ez osatutako *euskal herri* txiki hari.

Katalunian bezala, Frantzian ere Eusko Jaurlaritzak hartu zuen errefuxiatuen babeserako zuzendaritza, Frantziaren kasuan Jaurlaritzak ospitaleak (La Roserie), aterpetxeak (Donibane Garaziko Ziu-dadelakoa, esaterako) eta babeserako erakundeak antolatu zituen, horretarako LIAB (Ligue Internationale des Amis des Basques) erakunde antolatu zuen eta horren babesarekin jokatu zuen.

Salbuespenetzko eta aldi baterako neurria zela pentsatuz egin zen ebakuazioa. Hala uste zuen Eusko Jaurlaritzak. Euskaditik irteerako umeen eta populazio zibilaren itzulera mailaz maila egin zen, gerrak aurrera egin ahala, momentu eta egoera oso desberdinetan, eta askok ez zuten inoiz bueltatzeko aukerarik izan.

Ume ebakuatu eta errefuxiatu batzuk, Euskadi frankisten esku erori eta hilabeteetara, 1937an eta 1938an bueltatu ziren. Kataluniara iritsitako batzuek bi erbestaldi bizi izan zituzten, hauetako askok 1939ko neguko exodoan Frantziara joan behar izan zuten, beste batzuk han geratu ziren frankistek Katalunia hartu zutenean eta hortik aurrera bueltatu ziren Euskadira.



394

GOBIERNO DEL PAIS VASCO  
DEPARTAMENTO DE ASISTENCIA SOCIAL  
EUZKADI  
OSARTE-LAGUNTZA ZABINDO

Nº	DOMINIO DE LA TIENDA	EDAD	DOMINIO DE LA TIENDA	EDAD
994	SABATA HAZIEN, Juan Manuel	8	SABATA HAZIEN, Mª Teresa	6
995	SABATA HAZIEN, Alfredo	10		
996	SABATA HAZIEN, Juan	11		
997	SABATA HAZIEN, Juan	12		
998	SABATA HAZIEN, Juan	13		
999	SABATA HAZIEN, Juan	14		
1000	SABATA HAZIEN, Juan	15		

Total de niños.....212  
Total de niñas.....108  
Total de niños y niñas.....320

GOBIERNO DEL PAIS VASCO  
EUZKADI  
OSARTE-LAGUNTZA ZABINDO  
BILBAO

Leningrado, a 24 de junio de 1938

Querida madre y padre: estoy muy alegre pues hemos llegado a Leningrado estamos en una colonia, hay carnos de hieno como si serian de algun hospital. Recibister una cartonia? Pues la escribi en la llegada a Francia

Hautzaroan zein gaztaroan ikustez ezagutzen banuen ere, ez nuen Oiartzunera bizitzera etorri arte —duela berrogei urte baino gehiago— adiskidetasunezko harremanik izan berarekin. Eta, gure adinen alde nabarmena gorabehera, adiskide min-minak bihurtu ginen biok lehen momentutik.

Estu-estua izan baita bion arteko harremana urte luze hauetan. Etxean, kalean, ostatuan, autoan, erakusketa aretoan, zinean, mendian... zenbat eta zenbat ordu elkarrekin...! Eta zenbat kontu eta solasaldi, zenbat barre-algara...! Nire eskerrik beroena Adolfori, lagunoi eskaini digun adiskidetasunagatik. Baita berarengandik jaso eta ikasi dugun guztiagatik ere.

Esaera zaharrak dioen bezala, eltze guztietako burruntzalia izan da Adolfo —*“perejil de todas las salsas”*—: zertan ez du, bada, parte hartu Adolfo bere bizitzan? Hainbat eta hainbat elkarteren sortzaile eta partaide izan da; kontaezinezko ekimenen eragile eta sustatzaile; jarduera askoren aitzindari; esan ere esan liteke Adolfo kultura



eta kirola izan dituela bizitzaren ardatz —biak ere zentzu zabalean hartuta—; edo, bestela esanda, zientzia zein natura gaiak, alde batetik, eta letrak, bestetik, hala nola toponimia, kartografia, etnografia, espeleologia, ornitologia, argazkigintza, mendizaletasuna, atletismoa...; edota artea, historia, literatura... hainbat eta hainbat gai jorratu baititu Adolfo, nekaezinezko ahaleginean beti. Gizon diletantea (zentzu jatorrenean, jakina), era askotako zaletasunak izan ditu. Gehien kezkatzen zituen gaiak, hala ere, hezkuntzarekin lotutakoak ziren, nik uste, hain zen handia kultura- eta lanbide-heziketak sorrarazten zion ezinegona... (Lartauneko garai hura dut bereziki gogoan). Bide batez, oso estimatua izan dela ere aitor dezaket: adibide gisa, a zer nolako harrera egiten zioten Aranzadikoek, urtero, batzar nagusira biok elkarrekin iristen ginenean! —pribilegiozko lekukoa naiz—: iazko batzarrera iritsi ahala, berehala etorri zitzaizkigun Aranzadiko lehendakaria (Pako Etxeberria) eta zuzendaria (Juantxo Agirre) Adolfoarekin argazkia atera nahi zutela esanez... (Hura izan zen, tamalez, Adolfoaren azken batzarra, aurtengora —apiril honetan izan berri dugunera—, bakarrik joan behar izan baitut, Adolfoarekin gabe, hain gaixo zegoen-eta ordurako... Aretoko atletik sartu bezain pronto, berriz, hantxe aurkitu nuen Juantxo zuzendaria, ea Adolfo ere bazetorren galdezka, Juantxok ez baitzekien, artean, haren osasun-egoera larriaren berri...).

Arrasatearra jaiotzez, Erreterian (bere emaztearen jaioterrian) eta, batik bat, Oiartzunen eman ditu bere bizitzako urte gehienak, oparoenak. Hemengoak dira bere zazpi seme-alabak, eta hemengoak bere bilobak eta birbiloba ere, Oiartzunen hazi eta hezitakoak.

Adolfo, bestela, *bere Oiartzun maiteari* eskaini dizkie bere ahalegin eta nekeak, herriaren aurre-rapenari eta hobekuntzari... Oiartzunen garapen kultural eta soziala izan baitu betiere helburu nagusi. Eta asko gozatu du, gainera, eginkizun horrekin!

Hala, bada, kontaezinak dira Adolfo bere herri maitearen alde egin dituen lanak... hemen zehaztu beharra badut ere gure adiskideak *lana* eta *elkar-lana* sinonimotzat zituela, bere hiztegi partikularrean. Hona hemen bere lan edo jardun haietako batzuk: xanistebanetan agertzen den *Oiartzun* urtekariaren arduradunetakoa eta kolaboratzaile zintzo eta emankorra izan da urte luzetan, hainbat eta hainbat gaiz idatzitako artikuluak lekuko,

hain berea zuen umore zein ironia finez zipriztinduta betiere... Gaiak, berriz, hauek: San Esteban parrokiaren kronologia historikoa; erretaulak edota sakristiako kaxoiteria; Aiako Harria, Urkabe, kromletxak, Arditurriko trenbidea, Oiartzunen hegaztiei ematen zaizkien izenak...; bera izan da, halaber, urtekari honen “aurkibide orokorra” antolatu eta eratu duena, Luis Carlos semearen laguntzaz; bera, udalak urtero argitaratzen duen *Mugarri* liburuki monografikoen sortzaile eta gidaria; bera, baita ere, “Oiartzungo ibar eta bere inguruneke mapa eta leku izenak” titulupean inprimatutako mapan azaltzen diren lekuetakoa “izen-biltzaile eta eragile”, beste lagun batzuekin batera, oiartzuarrak tartean, eta Luis Carlos semea programatzaile lanetan. Garrantzitsua izan zen, orobat, Lartaungo elkartearen sorreran izan zuen lankidetzak, baita haren funtzionamenduan ere. Eta ezingo dugu ahaztu, bada, elizaren berritze lanetan izandako kolaborazioa, batzarkide bezala...

Oiartzundik kanpo ere nabarmena izan da Adolfo zenbait alorretan izan duen lankidetzak:

*Oarso* urtekariaren kolaboratzailea eta Urdaburu eta Amulletako elkarrekin sortzailetakoa izan zen, adibidez, Erreterian; Aralarko Desako aterpetxearena... baita *Comet* operazioaren ospakizunetan buru-belarri ibilitakoa ere, aipu gutxi batzuk hona ekartzearren.

*Ayalderen* jaiotzaren mendeurrena ospatu zen iaz, eta, hari buruz artikulu bat idazten nabilela *Oarso* urtekarirako, Adolfoarengana jo, eta zera galdetu nion, ea nola erretratatu ote zuen artista laguna bi pintzeladaz —lagun minak izan baitziren biok—. Eta bere lagunaz esandako hainbat hitzekin primeran kalifikatuko genuke Adolfo bera ere, nik hala uste: «gizon polifazetikoa», «fina», «hitzegile eta entzule aparta», «eskuzabala»... eta hitz batez —eta oroz gain— «gizon zintzoa» (erdarazko «*hombre de pro*» hitzak erabili zituen hori adierazteko).

Baita nortasun handikoa ere, laguntzeko beti prest egon dena; ekintza gizona, bere egitasmoak azkar eta irmo praktikan jartzen zituena (pertsonea ‘barojiarra’ zela ere esaten nion behin baino gehiagotan...), baikorra, eta, batez ere, dinamizatzaile, bultzatzaile eta akuilatzaile aparta: inguruan ibili ginenok badakigu, bai, horren berri...! Oiartzunen zinegotzi, baita diputatu ere: kargu horretan zegoela ezagutu zuen, hain zuzen, kartzela, frankismoaren garai beltzean.



Aranzadiko 2015eko Batzorde Nagusian (ezkerretik eskuinera: Imanol Irigoien, Pako Etxeberria, Rafa Zubiria, Adolfo Leibar, Txema Faus, Jose Miguel Larrañaga, Javier Cantera, Juan Arizaga eta Joxe Anjel Irigarai).

Gizakiok gizarte honetan arrastoa utzi behar dugula, txikia edo handia, esan ohi da. Bada, Adolfok bizitzan eta lagunongan utzi duena, zalan-tzarik gabe, eragin handikoa izan dela uste dut. Horregatik, estimatu ez ezik, mirestu ere izan dut Adolfo.

Eta ez pentsa panegiriko bat denik adiskide hil berriari egiten diodana, ez, bihotzetik irtendako esker oneko hitzak baino ez baitira idatzitakoak. Eta ez dira, inolaz ere, guztiak, asko baitira esan gabe utzi ditudanak...

Konfiantzazko laguna, isilpean gorde ditudan eta gordeko ditudan aitorten askoren lekuko izatea gertatu zait, zorionez. Bada, hala ere, bere heriotzaren egunean gordeko ez dudan aitorten bat, eta haxe da: erlijio kontuez ari ginen batean, berak, zenbat eta adintsuagoa izan, orduan eta fede handiagoa zuela aitortu zidan; erabatekoa zela Jaunarengan eta eternitatean zuen fedea... Eta nik, nola ez!, guztiz sinetsi nion.

Eta bukatzeko: Oiartzunen, 80koen hamarkadan egin nuen pintura-erakusketa batean, "atea" gaitzat hartuta, tamaina desberdinetako margo batzuk jarri nituen erakusgai. Adolfo harriduraz ikusi zituen... Eta noizean behin haxe galde-tzen zidan: «segitzen al duk atea pintatzen...?» («¿sigues pintando puertas...?») Eta, halako batean, irekiak ote zeuden, edo itxiak... Eta ez nekiela, erantzun nion irribarretsu, eta hura jakin arte, atea margotzen jarraituko nuela...

Gaur jakin dut, ordea, bat-batean, behin betiko erantzuna: ez diat ate gehiagorik pintatuko, ez, Adolfo, gaurdanik ondo baino hobeto baitakik nire ate horiek denak zabal-zabalik daudela, erdiz erdi zabalik, hik suhartasunez sinesten huen Paradisuko atea baitira, hiretzat erdiz erdi irekiak, Adolfo!

Egun Handira arte, Adolfo.

Oiartzun, 2016ko maiatzaren 8a



Arkeologia-lanen garapena balorazio-ikerketan.

# Arkeologia Errenterian

## Hiribilduaren sorrerari buruzko datu berriak

---


ALFREDO MORAZA BAREA  
MIREN GARCÍA DALMAU

Orain dela gutxi Kapitanenea Kaleko 6ko orubean, Kapitain Etxea bezala ezagutzen denean, egindako esku-hartze arkeologikoak Errenteriako hiribilduaren sorrerari buruzko datu oso interesgarriak eta berriak eman ditu. Obrak, eraikina Euskal Jantziaren Gune bezala egokitu beharrean zegoelako eraman dira aurrera.

Eraikinean egindako lanen ohiko arkeologia kontrolak metaketa arkeologiko desberdinak dokumentatu ahal izatea ahalbidetu zuen. Aztarna

hauen interes eta berezitasun handiak zonaldean esku-hartze handiago bat egitea eragin zuen, horretarako Errenteriako Udalaren eta bere teknikarien laguntza eta babesa ezinbestekoa izan da une oro.

Aurkikuntzen garrantzia orube honen eta orokorrean hiribilduaren bilakaerarekin estu lotuta dago. Aurkikuntza hauek, oso laburki esanda, orubearen bilakaerarekin lotutako hiru prozesu mota desberdinekin zehazten dira:



Iparraldeko profilaren ikuspegi orokorra.

### Orubearen azalerak jasandako handitzea

Hiribilduen sorrera Erdi Aroan, Errenteriako gurea bezala, orokorrean eraikuntza berrikoa izaten da, hau da, bere mugen, kaleen edo enparantzen trazaketa artifizialki egiten da, eskuairan. Batzuetan lehen herrixkak zeuden tokian finkatzen dira herriak, Gipuzkoako hiribildu askotan ikusi ahal izan den bezala (Donostia, Zarautz, Segura, Hondarribia...), batzuk erromatar garaikoak dirrelarik. Hiribildu berri hauek lursail erregular eta teorikoki berdintasunezko banaketa baten bitartez antolatzen dute beren barne-egitura. Elkarren ondoan prestatutako orubeak dira, elkarren artean mehelinez bitartez banatuz eta paralelo diren etxadiak osatuz. Orokorrean hauetako orube bakoitzak aurrealdean etxe txiki bat du (bi solairu eta ganbara) eta atzealdean baratza edo animalientzako eskortarako eremua.

Eraikuntza hauek jasandako handiagotzen ari den hirigintza-presioak (biztanle gehiago, etxebeak artisaun-tailer gisa prestatu) jabeak eraikuntza hauek handitzera bultzatuko ditu, solairu gehiago eraikitzen garaieran eta etxeen atzeal-

deko eremu hori betetzen. Orube honetan XVII. mendeko lehenengo erdialdeko uneren batean prozesu hori oso garbi ikusi ahal izan da, erretako eraikina berreraikitzen dutenean 1638ko hiribilduaren suntsipenaren ondoren. Horren ondorioz atzealdeko jatorrizko horma eraitsiko da egungo kokapenera mugituz, 1,70 m atzerago. Honela, etxeen atzealdeko eremu hori estutuz joango da eta karkaba bihurtuz non etxeetako ur zikinak botako diren.

### Errekuntza etxe-egitura desberdinen agerpena

Orube honetako aurkikuntza garrantzitsuenetako bat errekkuntza egitura edo sutondo desberdinekin lotuta dago. Zehazki, guztira hiru egitura erregistratu ziren (bat partzialki eta oso gaizki kontserbatuta) eta jatorrian ezaugarri oso antzekoak zituztela dirudi.

Egitura hauek trazaketa xumea eta antzekoa izango dute. Gutxi gorabehera erregularrak diren harri blokez mugatutako eremu bat izango dute eta oinplano karratuarekin (beste adibide



Ixteko atzeko hormaren ikuspegia.

batzuetan zirkulu-formako edo angeluzuzeneko oinplanoa dute). Barrualdean suaren eraginez gogortutako buztin plaka bat izaten dute, zolata bezala erabiltzen zena. Sutondo hauek etxerako ziren, hau da, janaria prestatzeko, gelak berotzeko edo argitzeko erabilitako sua zaintzeko eginak zeuden. Egitura xume hauek ez zuten estalirik eta sua zaintzen zuten inguruko harrizko hormatxo horien bitartez. Sutondo hauek lurrean jartzen ziren, eta bertan edo belauniko edo banku baxu batean eserita egiten zuten lan. Bere ezaugarriak zirela eta, txabolen edo etxeen erdialdean kokatzen zuten sute arriskua saihestearren, gehienbat kontuan izanda egitura hauek material begetalekin egiten zituztela (egurra, adarrak, lastoa).

Dokumentatutako errekuntza egitura nagusia orubearen aurrealdean aurkitu zen, sakonera handian (1,60 metrotara egungo zolata kotatik). Oinplanoa karratua zuen (1,15 m alde bakoitza), eta bertikalki jarritako harrizko blokeen bitartez egin zegoen (17 cm-ko garaiera) eta buztinarekin lotuta soilik. Barrualdean suaren eraginez gogortutako buztin kapa batekin osatutako zolata mantentzen zuen. Egituraren inguruan buztin erregogor kapa bat jarrita zegoen hezetasunetik babesteko eta tenperatura hobeto mantentzeko,



Labearen plakaren xehetasun bat.

hala ere, su-ihesaren ondorioz belztuta agertzen zen. Buztin kapa honek 4. zenbakitik banantzen duen mehelinaren azpitik du jarraipena, gaur egungo mugak eta jatorrizko eraikinarrenak ez datozela bat esan nahi du horrek.

Nahiz eta oso xumea izan, elementu hau oso ohiz kanpoko kasua da bai euskal arkeologian eta bai gipuzkoarrean ere bereziki. Sutondo mota hauek antzinako eraikinen pieza garrantzitsuenetako bat ziren, inguruan familietako bizitza soziala eta ekonomikoa garatzen baitzen. Baina berezko soiltasunak eta ondoren orubeetan egindako berriztapenek desagertzera eramanez ia denak. Sutondoarekin lotutako ikatz laginek erabilpena Erdi Aroan kokatzen dute (XIII. mende bukaera - XIV. mendearen bigarren erdialdea) eta bere garrantzia areagotzen dute antzinatasuna dela eta. Datazioek sutondoarekin lotuta dagoen eraikinari buruzko bi interpretazio hipotesi eratzea eragin dute:

- beharrezkoa zen ohituraz onartutako eskemaren hausnarketa (ez egiaztatuta), 1320. aldera sortutako herrigunearen neurriekin zerikusia duena. Hasieran pentsatzen zena baino azalera askoz handiagoa izateko aukera proposa daiteke, lehenengo unetik gaur egun Errenteriako kasko historikoak



osaten duen trazadura berbera hartuz. Dena den, hiribilduaren azaleraren zabalpenaren errealitatea onartzen bada, sorrerako datatik oso hurbil gertatuko zen (XIV. mendeko bukaeran egindakoa).

- eremu honetan azaldutako egiturak (Kapitanenea 4 eta 6), hiribilduaren sorrerarekin batera edo segidan okupatu zela iradokitzen du. Bizileku eremu bezala sortuz harresiz kanpoko errebaletan eta eraikin soil bat izanez, bere neurriak ez ziren bat etorriko egungo orubeen neurriekin. Ondoren eremu horretan partzela berriak sortuko dira eta eraikin berri bat egingo dute aurreko jarduerekin zerikusirik gabekoa. Horrek azalduko luke beheko mailatan dauden betelan sendoak.

### Eremua berdintzeko jarraian egindako betelanak

Orube honetan jasotako hirugarren prozesu arkeologikoa, bizi eremua berdintzearen, barrualdean garatutako jarduerekin lotzen da. Kasu honetan ikusi ahal izan dira ondo jarritako betelan desberdinak, apropos txikitutako teila pusketa ugarirekin osatutakoak edo hori koloreko buztin plastiko kapa sendoekin osatutakoak.

Betelan hauek, orokorrean, eraikinaren suntsipena eragin duen gertaera latz bakoitzaren ondoren jartzen ziren. Eremu hori beteko zuen etxe berria eraikitzeko, eroritako etxearen obra-hondakinekin berdintzen zen lurra. Orube honetan Errenteriako hiribilduaren historia guztia jasotzen duen sekuentzia ia oso bat dokumentatu ahal izan da, lurralde honen beste inongo orubean horren garbi gertatu ez dena, eta dokumentu bakar eta berezia bihurtzen duena. Sekuentzia, ezauga-

rri desberdinak dituzten kapek osatzen dute (betelanak, adreilu zolatak, teila zatiekin osatutako betelanak, buztin plastikoa, ...).

Uppsala-ko (Suedia) Unibertsitatera bidalitako ikatz laginen datazioek betelan horiek bere tesuinguruan kokatzea ahalbidetu zuten, bat etorriaz une oro hiribilduaren bilakaerarekin lotutako suntsipenekin. Zehazki, gutxienez hiru sute dokumentatu dira (eta ondorioz bertan zegoen eraikinaren suntsipena eta ondorengo berreraikitzea) betiere gerra-garaiekin lotutako uneetan:

- 1476.- Frantziar armadak egindako inbasioa Albret kapitainaren agindupean. 20.000 gizonekin Errenteria zeharo txikitu zutenekoa. Horren ondorioz Koroak 20 urtetarako zerga-salbuespena eman zion.
- 1512.- Franko nafar armadak egindako inbasioa Lautrec Dukearen agindupean. 10.000 oinezko eta 400 zaldunekin Donostia setiatu zutenekoa, bidean zeuden gainontzeko herriak txikituz (Irun, Oiartzun, Errenteria, ...). Kontakizunetan idatzita azaltzen da *“hizieron en hesa Villa muchos males e daños, e fueron maltratados de los franceses, y les quemaron no solamente la casa y hacienda que tenían en ella, mas aun las caserías que abia alrededor de la dicha Villa, e yglesia e canpanario ...e non dexaron cosa alguna que non fuese quemada y rrobada salbo solamente tres casas”*.
- 1638.- Hirugarren sutea, Hogeita hamar Urteetako Gerran gertatu zenekoa, eta frantziar armada berri batek egin zuen Condé Printzearen agindupean. Eskualdeko herriak txikitu zituen berriro ere, tartean Errenteria. Sute hauen guztien artean suntsitzailena izan zen, eta horrenbesteko izan zen herria beste toki batera eramatea pentsatu zela, Basanoagako gainaldera.

Laburbilduz, eta esku-hartze txiki honetan lortutako emaitzei esker, ez orube honek soilik, baizik eta Errenteriako hiribilduak orokorrean jasan dako bilakaeraren argazki ia oso bat egitea lortu da. Erdi Aroko bukaera aldera eramaten gaituen argazkia da honakoa, hiribilduaren sorreratik eta ia gaur egun arte. Euskal arkeologia mailan, soilak izanagatik ere bikaintzat jo ditzakegun aurkikuntzak dira hauek, eta egun osoak kontserbatzen direnak (behar den bezala babestuta) Errenteriako Udalak une oro erakutsi duen arreta eta ardurari esker.



## Edmond Hedouin, carnet de voyage, 1861

JOSEAN RUIZ DE AZÚA

El diario de viaje (*carnet de voyage*) es un género literario y plástico en el que es frecuente encontrar esquemas, dibujos o fotos acompañados de texto disperso en la página. El diario de viaje ofrece una lectura lineal, como una novela gráfica o un cómic, a diferencia del relato de viaje, que tiene una narrativa coherente y estructurada; y de la guía de viaje o guía turística, que proporciona información útil para el viajero.

Este género se remonta al siglo XIX, en el que lo practicaron artistas de la talla de Delacroix o Gauguin, y continúa pujante en la actualidad. En lo que se refiere a nuestro entorno, hay un muy curioso carnet de viaje escrito a mano por Charles Garnier, arquitecto de la ópera de París, titulado

*Voyage à Espagne*, que data de 1868 y en el que se narra en verso y con mucho humor las andanzas por España de Louise y Charles Garnier, Gustave Boulanger y Ambroise Brandy utilizando la línea de ferrocarriles creada pocos años antes. Garnier ameniza, además, el texto con hermosos dibujos a la pluma. De Rentería, al ser solo un lugar de paso, solo recoge el nombre de la población y el río que la atraviesa. Por lo demás, el de los diarios de viaje es un género que se ha mantenido hasta la actualidad<sup>1</sup>.

Tras este preámbulo, hay que mencionar a un artista: Edmond Hedouin. Pierre-Edmond-Alexandre Hedouin, conocido como *Edmond Hedouin*, nació en Boulogne en 1820 y murió en París en 1898. Fue

<sup>1</sup> Hay artistas contemporáneos que han continuado con esta tradición, por ejemplo José Luis Zumeta y su *Zumeta 98. África oeste. Cuaderno de viaje* o, sin salirnos del tema africano, Miquel Barceló y sus *Cuadernos de África*. También hay una revista francesa que se llama así y cuyos artículos son, precisamente, carnés de viaje. Finalmente, desde el mundo del cómic el género ha recibido aportaciones, con títulos como *Oaxaca* o *Cuadernos japoneses*.



un pintor, grabador y litógrafo que abarcó diversos campos, desde la decoración de teatros y palacios hasta la ilustración de libros. Como pintor de caballete cultivó el paisaje y la pintura de género –es decir, costumbrista–, con influencia del folklore español y oriental. El País Vasco de ambos lados del Bidasoa fue con frecuencia motivo de sus cuadros. De Hedouin dijo Charles Baudelaire en 1846: “M. Hedouin es sin duda un pintor de mérito, que tiene un toque firme y que entiende el color; logrará, sin duda, constituer una originalidad personal”.

Hedouin hizo diversos viajes –a Argelia, por ejemplo– y en verano de 1861 pasó por diversas localidades del País Vasco: Ustaritz, Baigorri, Donostia, Errenteria. En este viaje, allá por donde pasaba, iba emborronando su cuaderno, componiendo su *carnet de voyage*, tomando apuntes de paisajes rurales y urbanos; y también de los lugareños, del ganado que encontraba, escenas costumbristas, en definitiva: los dos géneros que dominaba, como ha quedado dicho. En sus dibujos a veces da de forma textual la información que no puede proporcionar el trazo gris de su lápiz y anota sobre el dibujo el color de una ventana, de una pared o de algún otro elemento: “rouge”, “bleu”, “vert”...

El paso de Hedouin por Errenteria quedó plasmado en tres pequeños dibujos de diversos rincones de la villa, fechados los tres en agosto de 1861.

Uno de ellos presenta el extremo de la calle Kapitaneña con la puerta que cerraba la muralla por el lado de la actual plaza Fernández de Landa, desde

un punto de vista muy similar al que había escogido diez años antes Hélène Feillet para ilustrar la guía de viaje *Description des environs de Bayonne et de Saint-Sébastien*. La concordancia entre ambas imágenes es absoluta, y la comparación con otras imágenes de ese rincón confirma la fidelidad de Hedouin como cronista gráfico. También nos lleva a preguntarnos si Hedouin conocería y habría utilizado la guía de Feillet. También puede ser pura casualidad porque hay al menos un par de fotografías de finales del siglo XIX de autor desconocido y una tercera de hacia la década de 1920, de Figurski, en las que aparece este mismo paraje que, según parece, en aquella época tenía un atractivo que hoy ha perdido.

Un segundo dibujo muestra la calle Santsoenea desde su arranque y con su curva característica. La calle se reconoce a primera vista, aunque una comparación más detallada con una imagen actual nos permite reconocer qué cambios se han producido en estos 155 años. Es en este dibujo donde Hedouin hace anotaciones señalando el color de algunos elementos como puertas o ventanas.

El tercer dibujo muestra el codo que forma la calle de Abajo para desembocar en la calle del Medio. Para entendernos, la pared de la derecha correspondería a la pared de la casa Zubiaurre que cierra el frente de la calle de Abajo, calle que continuaría al fondo y a la izquierda del dibujo. La casa que está dibujada frontalmente y en la que se aprecia un estado un tanto ruinoso ha desaparecido y ha sido sustituida por una edificación moderna.



# “Errenteriar idazleen historia egiteko lehengaiak: Errenderi aba (1881-1916)”


ELIXABETE PEREZ GAZTELU

José Ramón Gregorio Astibia Etxegoien, *Errenderi aba*<sup>1</sup> (padre Raimundo María de Rentería<sup>2</sup> erdaraz), aita kaputxinoa hil zela 100 urte betetzen dira aurten, 1916ko ekainaren 10ean zendu baitzen Tuterako kaputxinoen komentuan. Gazterik hil zen Astibia; 34 urte zituela.

Jaiotzako nahiz heriotzako mendeurrena ez da aitzakia makala izaten gizartean era bateko edo besteko itzala utzi dutenak ahanzturaren zokotik berreskuratzeko. Errenderi abak, behinik behin, utzia du arrastoa euskal letren sorotan. Honelaxe aurkeztu zuen Koldo Mitxelenak *Rentería* aldizkarian “Los renterianos y la literatura en lengua vasca” 1952ko lan eredugarrian:

*Su afán de perfeccionamiento y superación ha dejado honda huella en la poesía vasca. A los que lo han leído, y sobre todo a los que hemos oído hablar de él, nos parece casi que murió consumido prematuramente por la llama afectiva de su corazón.*

Zaharrak berritzeko besterik ez bada ere, komeniko da hasteko Errenderi abaren bizitzaren gainean zerbait esatea. Beharrik, badago, gainera, nondik hartu<sup>3</sup>.




Erramon Astibia Etxegoien Errenderi abak Miren eta Pantzeske arrebei bialdalitako agurra, "Gora Jel!" idatzia duela

1 *Aba* hitza "aita" adierazteko erabili izan zuten garai batean. “[...]Se trata, en conclusión, de un "término" que no ha llevado el asterisco que debía llevar, aunque ni siquiera se trata de algo que tuviera una existencia prehistórica: en otras palabras, por lo que sabemos, nunca ha existido nada semejante. Sin embargo, AG lo usó como primer elemento de los neologismos *abenda*, *aberi*, *abixen* (v. *abizen*), como sinónimo de *asaba* “antepasado”. [...]2. (Bera). Padre (tratamiento eclesiástico). “Antepasado, padre, Padre. *Albontsa Aba*, el P. Alfonso” Bera. *Tr. Parece que es Arana Goiri quien introduce su uso. Lo emplea antepuesto al nombre (tbn. Enbeita), al contrario de la tendencia posterior a posponerlo. Orotariko Euskal Hiztegia.*

2 “Recurso a la *Bibliografía de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón*, del Padre Felipe de Fuenterrabía, y encuentro los siguientes datos: Ramón de Astibia y Etxegoien (en Religión el **Padre Raimundo de M.<sup>a</sup> de Rentería**) nació en 1881 y falleció en 1916 (fecha en que nació en Rentería otro escritor; José Antonio de Loidi Bizcarrondo)”. (letra lodia gurea). Cortazar, N. (1966) “Padre Raimundo de Rentería”, *Cien autores vascos*. Donostia: Auñamendi (apud Perez Gaztelu, Elustondo (2003)).

Ramon, Erramun, Raimundo, Erraimunda izenak erabili izan dituzte gizon beraz aritzeko.

3 Errenterriako Udalak eskatuta 2003n egin genuen lanean jasota daude erreferentzia ugari (Perez Gaztelu, Elustondo, (2003). *Erramon Astibia “Errenderi aba” (1881-1916). Idazlanak*. Errenteria: Errenterriako Udala). Euskarri digitalean besterik ez zen argitaratu. Mendeurrenaren karian, udalaren webean izango du babes eta hedaleku.



**LA FANDERIA.** - Fresco retiro en las calurosas tardes de verano. - Meta de estivales paseos, por entre huertas, a orillas del río. - En "Esticho", media escuela bañándose: estudio ambulante de anatomía osteológica. - Este, que tiritita, aquél, que muestra el paso de legión de pulgas por sus exigüas carnes. - En el camino, al atardecer, rezagadas parejas de enamorados. - Bajo la umbrosa fronda de la chopera, el campamento de húngaros caldereros; romántica estampa del pasado siglo. - Y allí, a la puerta del molino, entre el ruido de los batanes y el murmullo del agua, el viejo soldado de Santa Cruz, contando sus hazañas de aquellos sus buenos tiempos. — Kirolec.

REVISTA OARSO 1931

Astibiatarren sortetxea. Gurasoak Fanderiako errotariak ziren.

## Bizitzako zertzeladak

1881eko azaroan jaio zen Ramon Astibia. Zein egunetan jaio zen jakiteko ohiko lehen mailako bi iturrietara joz gero bi erantzun topatuko ditu bila dabilenak: azaroaren 17an jaio zela dio bataio agiriak eta 18an izan zela, berriz, epaitegikoak. Agiri ofizialen arteko bat ez etortzeak oraingoan, zorionez, badu ordezkorik; lehen-lehen mailako ahozko giza iturria: Pantzeske Astibia Etxegoien, Erramon Astibiaren arreba<sup>4</sup>.

Izan ere, Pantzeske Astibia izan zuten berri-iturri bai Xabier Olaskoaga zenak 1981eko *Oarson* argitaratu zuen "Errenteria'tar Erramun aba. Olerkari eta lekaide" lana prestatzeko,

*Aita Éramunen nortasun berezia ikusiaz,  
bere izaeraren berri jakin naiean, bere arreba  
Pantzeskerengana jo det. Nor bera baño  
berri emaille obera...?*

<sup>4</sup> Ezin dugu saihestu Pantzeske Astibia *Onintze* olerkariaren gaineko aita Onaindiaren hitzok hona ekartzeari:

"Bera zan Errenderi Abaren arreba, ez nolanaikoa. Guraso gabe gelditu zan gazte xamar zalarik. Erropa denda euki zuten. Urduri ta zori-zale bait zan, Bilbo-ra aldatu zan eta itzaldi aberkoiak emateari ekin zion, Euzko-Gastedi-ko idazkari izanik. *Jagi-Jagi*-n idazten zuen. Ba-ditu olerkiak "Onintze"-z izenpetuta, *Euzkerea*-n eta nire poesi-bilduma *Milla olerki eder*-en bi beintzat. Gerra amaitzean Frantzia-ra jo zigun, andik Barzelona-ra ta azkenez urte mordoa erbesteratua emanik, 1970-an Errenteri-ra biurtu zan ezkontuta. Emakume jatorra, euskal idazle ta olerkari fiña, aipamen au merezi duela uste dut bere anaiaren liburu ontan". (Onaindia 1986 in Perez Gaztelu, Elustondo (2003: 231). *Onintzeren* olerki batzuk (13 zehazki) jasoak daude Julen Urkizaren datu base erraldoi (digitalizatuan): Ik. <http://urkiza.armiarma.eus/cgi-bin/urkiza/EBMODEGI.pl?Letra=A&Egile=976>

<sup>5</sup> In Perez Gaztelu, Elustondo (2003: 229-294).

bai Santi Onaindia karmeldarrak 1986an idatzi bai, baina 2003a arte<sup>5</sup> argitaratu ez zen *Jose Ramon Astibia. Aita Errenderi kaputxinoaren Olerkiak* saiakerako atal batzuk osatzeko. Astibiaren bizitza laburraren berri jakiteko ezinbestekoak diren bi lan horietan Olaskoagak eta Onaindiak diote azaroaren 17an jaio zela. Hori har daiteke, bada, Erramun Astibiaren sorteguntzat. Elizako dokumentuari arrazoia eman behar, hortaz:

*En la Villa de Rentería, correspondiente á la Provincia de Guipúzcoa, obispado de Vitoria, el día diez y ocho de noviembre de mil ochocientos y ochenta y uno, yo Pbro. José Ramón de Irigoyen, cura propio de la Parroquia de S<sup>ta</sup> María de la Asunción de esta villa bautizó solemnemente á un niño, que nació a las dos de la tarde del día precedente, hijo legítimo de José Fructuoso de Astivia, natural de Rentería, Molinero y de Sebastiana Eche-goyen, natural de Oyarzun, mis feligreses: siendo abuelos paternos Vicente María Gregorio de Astivia, ya finado y Josefa Francisca Eduarda de Sarvide, naturales de Rentería, mis feligreses; maternos, Pedro Echegoyen y María Josefa Aldaco, naturales y finados de Oyarzun. Se le puso por nombre José Ramón Gregorio. (letra lodia gurea).*

*Pantzeske* arrebak Olaskoagari esan zion Fanderiako erroteriek, Jose eta Sebastiana gurasoek ("casado, molinero" eta "casada, molinera" zehazten du epaitegiko jaiotza agiriak), hamalau seme-alaba izan zituztela<sup>6</sup> eta bera, *Pantzeske*, zela 1981ean bizi zen bakarra. Zaharrena zen Ramon; gurasoak ezkondu ziren urte berean jaioa. 1881eko urtarrilaren 25ean, Oiartzunen, ezkondu zirela jasotzen du ezkontagiriak.

*Errenderi aba* umetan nolakoa zen jakiteko 1928ko *Rentería* urtekarira jo daiteke, eskolaki-de izan zuen *Iturriak* haren berri ematen du eta:

*Panderían bizi gera: nos decía en la escuela aquel mocete potxolo-potxolo, algo kopet-illun pero muy despejado y sobre todo muy vasco que con su hermanico Julián (q. e. p. d.) venía todos los días puntual a la escuela. Llevaba en su sangre, en sus venas en su alma todo el caracter, psicología y temple que no los perdió ni en su postrer momento. Genio y figura hasta la sepultura. No era manco, no, el Ramoncete. (Iturria 1928).*

*Iturriak*, antza denez, bertatik bertara ezagutu zuen Erramun Astibia, Errenteriako eskolan ez ezik Lekarotzen ere ikaskide izan baitzuen.

12-13 urterekin joan zen Astibia Lekarozko komentura kaputxino artean ikastera eta 14 zitueneko kaputxinoek begiz jo zuten, ordenakide izateko ikasketetan bultzatzeko.

Ikasle argia omen zen, arrunt matematika zalea eta baita Filosofia eta hizkuntza gaietara emana ere. *Iturriaren* arabera, oso behatzailea zen, bakar eta isilzalea (*taciturno* dio), ikasketak gustuko zituen, baina, hala ere, Errenteria-ko bizitzaz ahanzten ez zena:

*No penséis, no, que sus estudios fueran óbice ni fueran el menor obstáculo para sentir a cada momento la nostalgia de su pueblo natal; antes al contrario, como la ausencia es aire que apagase el fuego corto y enciende el aire, giraba el tema de sus conversaciones alrededor de la Zumardia, plaza de verduras, fandería, Magdalenas, maisu zarra y maisu txikia, etc.; no en vano tenía por inseparables compañeros al vivaracho y nervioso Garaño, hoy P. Pedro de Rentería, renteriano y vasco eminente, versado en toda clase de conocimientos y al que esto escribe y relata. (Iturria 1928).*

6 Guk hamahiru Astivia Echegoyen senideren bataio-agirien berria aurkitu dugu Donostiako gotzaindegiaren webean (www.mendezmende.org). 1881-11-18: José Ramon Gregorio [*Errenderi aba*], 1883-01-28: José Julian, 1884-06-16: Esteban Maria Modesto, 1886-10-04: Román Cándido, 1888-05-27: María Luisa Trinidad (heriotza-ziurtagiria: 1888-08-21), 1889-09-10: Pedro Nicolás, 1890-09-16: Juan José Cornelio (heriotza-ziurtagiria: 1891-07-19), 1892-02-16: Elías Isaías Jeremías (heriotza-ziurtagiria: 1892-06-27), 1893-10-19: Lucas Román (heriotza-ziurtagiria: 1893-11-20 [hemen Lucas Román jartzen du]), 1895-10-25: María Margarita (heriotza-ziurtagiria: 1896-05-15), 1897-09-02: Ana Maria, 1899-04-04: Maria Ysidora Ricarda (heriotza-ziurtagiria: 1899-06-21), 1900-04-09: Francisca Maria Dionisia [*Pantzeske*, alegia]. Heriotza-ziurtagiri gehiago ez dugu aurkitu elizako artxi-bo digitalean: 1900. urtea arteko datuak besterik ezin dira horrela eskuratu.



Errenderi abaren lan guztien bilduma azala. Perez Gaztelu, Elixabete (ed.) (2003)

*Ayalak*<sup>7</sup> 1935ean argitaratu zuen *Olerkiak* Errenderi abaren poesien bildumako hitzaurrean dio Lekarozko komentuko giroa aski “integrista” eta Euskal Herriaren eta euskararen kontrakoa zela. Salbuespen bakarra Etxalar aita zela. Haren bitartez iristen zitzaizkien aldizkari euskaldunak ikasleei. Etxalar aita eta euskal bibliografian oso garrantzizkoa izan den Ibero aita ere bai, Onaindia aitak jasotzen duenez:

*Egia duzute, ikastaroan, Etxalar Aita napartarrak utzita, ba-zutela orduko ikasle gazteak, batzuk beiñik-bein, Azkuek Bilbo-n ateratzen zuen Euskalzale ta Donostia-ko Gipuzkoarra euskal asterokoak irakurtzeko egokitasuna. Aita Errenderi-ri bigarren au zitzaion oso begiko: lau orrialde zeuzkan, euskeraz eta erderaz; larunbatero kaleratzen zan, eta zeazki jarraitzen zion Arana-Goiri-ren irakatsiari. [...] Lekarotz-en irakasle zegoen gaiñera Ibero Aita, garai artan doi-doi Ami Vasco liburuxka idatzi*

*zuena. [...] Ibero Aita<sup>8</sup> au Erramon gazteak ere irakasle euki zuen, il baiño amar bat urte lenago; Aritmetika ta Algebra irakatsi zizkion, baiña olerkariak maiteago zituan poetak Aritmetika idazleak baiño. Zenbaki-arloan ere, orraitio, etzan ikasle meko gertatu. Elizkarrera ondoren, beintzat, bere bizitza ez luzean, 1908-tik 1916-ra, Aritmetika ta gai onen birako zerak azaltzen ibilli zan Lizarra-n eta Lekarotz-en. (Onaindia in Perez Gaztelu, Elustondo 2003: 230).*

19 urte zituela, eskaintza egin bezain laster<sup>9</sup>, Madrila bidali zuten, El Pardoko komentura ikasketak burutzera. Apaizgoa 27 urterekin hartu zuen, 1908ko abenduaren 19an, Madrilen bertan. Meza berria handik egun batzuetara egin zuen, 1908ko abenduaren 25ean, Hondarribian, Amuteko kaputxinoen elizan. Arestiko Onaindiaren hitzek dioten bezala, Lizarrako komentura bidali zuten geroxeago, irakasle. Tuteran hil zen biriketako gaixotasun batek jota 34 urte zituela.

7 Tomas Etxeberria Elozegi, Elduainen jaioa (1882-1953). Errenderi aba bezalaxe, kaputxinoa. Lekarotzen aldi berean bizi izan ziren biok. [http://www.eresbil.com/fmi/xsl/Musikaste/eus/browserecord\\_compositor\\_aa.xml?lay=Musikastegeneral&ID\\_BIO1=EEELD001&-find=-find](http://www.eresbil.com/fmi/xsl/Musikaste/eus/browserecord_compositor_aa.xml?lay=Musikastegeneral&ID_BIO1=EEELD001&-find=-find)

8 “Ebangelista Ibero, Lekarozen 1897an apaiztua, izan zen Lizarrako ikastetxearen zuzendaria zenean *Ami Vasco* 1906an argitaratu zuena. Abertzaletasunaren ikasbidea, hain zuzen! Baina Aita Ibero erbesteratu zuten Hijarko komentura eta han hil zen 1909an, 36 urte zituenean”. (Arana Martija, J. A. (2001). *Jose Antonio Zulaika. Aita Donostia*. Bidegileak. Eusko Jaurlaritza). [http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/105\\_zulaika.pdf](http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/105_zulaika.pdf)

9 “1901-eko otsaillaren 15-ean jantzi zuen, pozez beterik gero, urrengo urtean egun berean, ots, 1902-ko otsaillaren 15-ean profesatxikia egiñik. 1905-eko martxoaren 19-an eman zioten profesia nagusia” (Onaindia in Perez Gaztelu, Elustondo 2003: 230).

## Kaputxinoa, abertzalea, olerkaria

Elduaienek eta Onaindiak diote herri-minak eramane zuela etxean bertan edoskia zuen eta barren-barrenean ernatzeko bidean zeukan abertzaletasunaren hazia<sup>10</sup> —Arana Goiriren jarraitzaile sutsu-sutsua zen— lehenbizi Madrilen loratzera: ikasle euskaldunak bildu eta Euskadiren eta euskararen, euskal letren alde lanean jarri zituen. Euskal aldizkariak irakurtzen zituen; EAJren *Gipuzkoa* zuen batez ere begiko. Badirudi, hortaz, idazteko grinaren eta ideologiaren arteko ezkontzak, fede erlijiosoak guztia estalita, bultzatu zuela idaztera; bihotzetik isurtzen zitzaizkion olerkiak ez ezik, artikuluak ere plazaratzera.

1909. urtean argitaratu zuen, guk dakigula, lehen lana, eta 1914an azkena (hil ondoren ere argitaratu dira gehiago); 5 urtetsutan 40 inguru olerki (aski luzeak batzuk), euskaraz guztiak, eta 11 saiakera antzeko artikulu, gatzelaniaz, erlijioari eta euskararen azterketari eskainiak, eta ez oso aldeko giroan, gainera.

1911g. Oñako 31. an

Azkie. tar Dunixi jaunari.

... Eskartxo bat eskatzera natorkizu. Nere idazkunak Gipuzkoa-n agertu ziranetik onuntz ez digute eman nai **Gipuzkoa**-rik. Aitzaki arekin gebendu edo galerazi zuen Iruñan bizi dan Aba Nagusiyak, esanez emengo Aba Lendakariyari ez utzitzeko irakurtzen **Gipuzkoa**-k.

Ala ere, nondik edo andik, orain arte gureganatu dira gure ingi [paper] maitiak. Baño orain ezin zaizkigu sartu, eta nola edo ala sartzeko asmua artu det; neri galerazpenik ez dit iñork egin-ta. Beraz ez bidali zenbaki bat bakañik ere etxe onetara; bidali era onetan zuzenduta... [Errenderi aba]

Horregatik erabiltzen omen zituen *Errenderi*'tar Erraimunda Aba, *Errenderi* Aba, *Errenderi* tar Erramun Aba, *Errenderi*'tar Erraimunda Aba, *Errenderi*'tar Erramon Aba *Buruñurduna*, *Erraimunda*, *Ramón de Rentería*... izengoiti gardenen ondoan beste hauek ere lanak sinatzeko:

*Aya, Buruñurdun bat, E., Fanderiya, Panderi. tar, Sarbide, Argitzale, Gabiola, Arrobi'tar Danel, A'tar D.*

Olerki-gai nagusiak erlijioa, euskara eta aberria dira. Erlijiozko batzuei aita Donostiak eta Tomas Elduaienek musika paratu zieten. Partiturak Eresbilen kontsultagai daude.

Izan bitez Koldo Mitxelenaren hitzok Astibia olerkigilearen soslai modukoak:

*La vieja nostalgia, que viene al mundo con nosotros y nos acompaña hasta el último momento, el anhelo de paz, el cansancio de las luchas y contradicciones de este largo destierro. Casi se siente físicamente el impulso con que el alma, la pobre golondrina, quiere romper, por fin, y arrancar el vuelo;*

Orra, Josu on-ona,  
enara gaxua,  
ludi ontan min-gaitzez  
gutziz ondatua.  
Orain ega-egaka  
Zuganantz dijua:  
ez duzu edatuko  
Zuk zure besua,  
ene Josu maitia,  
ene Jaungoikua?  
Enara dardaiz gabe  
dago sendotua,  
Zu zeralakoz, Urtzi,  
oso urrikaltsua.  
Baño ludi zitalez  
oi, zein nekatua!  
Igesi duanari  
ukatu lekua?  
Ideki, Jauna, atiak,  
ideki leyua!

Onaindiak arestian aipaturiko 1986ko lanean olerkien azterketa xehea egin zuen, batez ere alderdi metrikoari begira; hobeto esan, “poeta bikain onen lanai, ots, oarkizun labur batzuk erantsi, ark darabilzkin gai, egitura, aditz berezi ta itz ez aruntai zeaztasun batzuk ipiñi”.

10 Aita Errenderiako lehen abertzaleetakoa izan omen zen (Koldo Mitxelenaren aita bezala). *Euzkadi* elkartearen sortzen lagundu zuen eta zuzendaritzan ere egon zen, hil zen urtean behintzat, 1904an. Pedro eta Pantzeske senideak ere abertzale porrokatuak izan ziren. Euzkotarren Anaitasunean (Abertzaleen “sociedad de socorros mutuos” delakoan) parte hartu zuen eta 1928an “Escuela Vasca” bat irekitzeko saioa izan zenean tartean zen, babesle moduan. Mikel Zabaleta lagunari zor dizkiot Astibiarren gaineko datuok. Eskerrik asko.

## Prosagilea

Hamaika (‘hamar eta bat gehiago’) artikulu argitaratu zituen Astibia bizi artean *Gipuzkoa* (1913a arte) eta *Euzkadi* aldizkarietan, 1910etik 1914ra: “Yo envidio”, “Amor patrio”, “Un punto etimológico y alguna cuestión adyacente”, “La lengua nacional”, “Las lenguas y el derecho canónico”, “En defensa del euzkera”, “La muerte del euzkera”, “Comentarios”, “Pro euzkera”, “Euzkerafobia”, “Estudio genético y evolutivo del euzkera”.

Prosazko lan bat ez beste guztiak izengoiti “ilunak” erabilita sinatu zituen; arestiko atalean aipatutako *Sarbide*, *Argitzale*, *Gabiola*, *Arrobi’tar Danel*, *A’ tar D*. Litekeena da izenak aukeratzean eragina izatea lantzen zituen gaiak (erlijioso eta politikoak). Euskararen azterketari hertsia eskaion “Estudio genético y evolutivo del euzkera”, *Euzkadin* 1914an argitaratua, sinatzeko bakarrik erabili zuen Ramón de Rentería O.M.C. sinadura gardena.

Izenburuek ispiatzen duten bezala, olerkigintzan landu zituen gai berak jorratu zituen hitz lauz, baina erdaraz: abertzaletasuna, erlijioak blaituta, eta euskararen (garai bateko modu bateko) azterketa —*euzkerologia*—, hau ere fedea lagunduta. Platon (“herri-etimologiaren” aitzindaria<sup>11</sup>), ildo bereko Astarloa eta, ororen ginetik, Arana Goiri “el gran Patriota, el Rey de los euzkerólogos, el Príncipe de los euzkerógrafos, el ejemplar de los euzkos, el genio de nuestra raza” gidari dela.

Maitasun-miresmenok, hala ere, ez zuten eraman “euzkeralogoen erregeak” esandako guztia itsu-itsuan onartzera. Bere “zera” badute eta, ekar ditzagun Ramón de Renteríaren hitzok:

*Un límite hay que oponer a esta doctrina  
[euskarak ez duela zertan beste hizkuntze-*

*tatik ezer hartu] por el lado de las fronteras que ideológicamente no son de Euzkadi, y es: que un pensamiento peculiarmente extraño debemos expresar, aun hablando euzkera, con el nombre o nombres extraños con que son designados en sus respectivos países. Así, el lama de Tartaria, los brahmines de la India, los bonzos, los guardiaciviles, gobernadores, carabineros..., se dirán en euzkera: **lama, brakminak, bonzuak, guardiazibilak, karabineruak...** (Ramón de Rentería, 1914, “Estudio genético...”).*

Azpitarratzekoa da Astibia —*Jautarkolek* eta beste hainbatek bezala— kezka bizia agertzen duela euskarak elizan ere, elizako bizitzan ere bere lekua, leku duina, izan behar duela eta (“Las lenguas y el derecho canónico” lekuko).

## Idazleen historiarako bultzada

Lanerako bultzagarri izateko ere balio behar-ko lukete mendeurrenek. Jose Ramon Astibia Etxegoien, *Errenderi aba*, berreskuratzea arrazoi egokia izan daiteke pixkanaka osatzen —emakumeak ere tartean dira!— eta ikertzen joateko errenteriar idazleen historia: Errenderi abaren garaikideak, XIX. mende bukaera eta XX. mendearen hasiera aldean jaiotakoak, ez dira desgogienak egin dagoenaz baliatuta aurrera egiteko: Juan Ignacio Uranga Berrondo, antzerkigilea (1863-1934), Joxepa Antoni Aranberri Petriarena bertsolari eta bertso-idazlea (1865-1943), Enrike Elizetxea Arrieta, genero asko landu zituena (1873-1947), Ramon Illarramendi antzerkigilea (1879-1927), *Jautarkol* idazle eta itzultzailea (1896-1971), Pantzeske Astibia, *Onintze* olerkaria (1900-1987)...

**11** Hitzen jatorria azaltzeko itxuraz antzekoak diren hitzen esanahiak lotzen dira ipuin-mito-usteetan oinarrituta. Esate baterako, Isidoro Sibiliakoak bere etimologietan egindako hau beste askorena artean: *mors* (‘heriotza’) eta *morsus* (‘kosk egitea’) lotuta daude Paradisuan Ebak sagarrari kosk egitean mundura heriotza ekarri zuelako. Etimologia egiteko modu sasizientifiko honek arrakasta handia izan zuen (du?) hizkuntza askotako hitzen historiaren “azalpenean”.

# Antton Obeso

## La aventura de escribir

JON ETXABE GOÑI


El escritor renteriano Antton Obeso ha publicado el que de momento es su último libro de relatos, **“Sinfonía de las botas”**. Santiago Aizarna en la reseña publicada en la sección libros del Diario Vasco del 16 de abril de 2016 decía que, *“En doce relatos da cuenta, Antton Obeso (Errenteria, 1933) –autor que cuenta con un importante haber literario y que ha ido ocultándose diría que exageradamente–, de su particular ámbito de vida”* y añadía *“estos relatos dan idea de la personalidad de su autor, de su delicado tratamiento de los temas personales en gran parte, si no en todos; con el recuerdo de viejos tiempos que marcaron su vida, su ámbito, su época”*

**Antton, ha sido una agradable sorpresa para muchas personas que te conocen la publicación de este libro. ¿Qué te ha llevado a publicar estos doce relatos?**

Verás, uno escribe como bien pudiera dedicarse a cualquier otra afición. En mi juventud era la fotografía lo que me llevaba. Un día escribí un relato y me dio por seguir escribiendo.

**Publicados... Además con muy buena acogida por parte de todos aquellos que lo han leído. ¿Los doce relatos de tu último libro se pueden describir como relatos de una vida?**

Son doce relatos que transcurren en el tiempo. En el primero, la víspera de unas maniobras militares doce soldados a punto de licenciarse se emborrachan, amparados en la oscuridad a riesgo de ser castigados gravemente. En otro, Pablo, un joven periodista de un diario de Madrid el año 1959 en plena Guerra Fría viaja a Berlín. José, el pastor navarro que desde California escribe una carta a sus padres. Hay un relato en el que dos periodistas discuten al tener noticia de cómo en Inglaterra un sacerdote se presentó ebrio al funeral de un difunto. También se cuenta la aventura emocional que para Benjamín supuso la visita a Las Meninas de Velázquez, así como el desencanto en la vida



del triunfador Jim o la pasión por el cine en la adolescencia, o el relato de un paseante por un camino al atardecer. Son algunos de los temas del libro en el que algunos personajes aparecen en varias de los relatos.

**La afición literaria de Antton Obeso se manifestó con 28 años, participando en un concurso de cuentos organizado por la Sociedad Cultural Ereintza de Erreterria, que ganó dos años consecutivos y del que ha sido jurado durante casi cinco décadas, como también lo ha sido del Concurso de Cuentos Ciudad de San Sebastián. Antes de formar parte del jurado fue seleccionado varias veces en el Concurso “Ciudad de San Sebastián”, siendo publicados dos cuentos en la Antología de dicho certamen en los años 1964 y 1970. Por la misma razón se publicó otro cuento en el “Diario Regional” de Valladolid, al concurrir al VII Concurso Internacional convocado por el referido diario. Igualmente, en Benidorm en 1972 publicándose en el “Diario Ciudad”. En 1970 ganó el “Premio Hernani” de novela corta. Y finalista, en 1993, en el Premio Internacional de Novela de San Fernando (Cádiz) “Luis Berenguer”. Ha sido colaborador de la revista “Kurpil” y desde 1963 de la revista “Oarso” de Erreterria.**

**Antton, ¿cuándo surge tu vocación de escritor? ¿Cómo es que te dio por escribir?**

No se puede decir que sea vocación lo mío por escribir ficción. Ya era mayorcito cuando empecé. El que la Sociedad Cultural Ereintza organizara un concurso de cuentos fue el motivo para que me metiera en la aventura. Sencillamente, leí las bases de la convocatoria y me animé.

**Y así comenzó tu andadura como escritor y tu relación con la revista *Oarso*...**

En 1963 publicaron, en Oarso, el cuento con el que gané el Concurso del Ereintza convocado para las Magdalenas del año anterior. Y en 1964 publicaron el cuento que gané en 1963. Y creo que fue éste el motivo por el que Boni Otegi me llamó. Por lo tanto, desde 1963, hasta el 2012 he sido colaborador de Oarso, 49 años.

Boni Otegi había sustituido hacia 1960 ó 1961 a Antontxu Sáinz que la dirigió desde el comienzo en 1958. Boni asumió la Revista como si formara parte de sí mismo, de su propia personalidad. Tenía las ideas claras de lo que tenía que ser una revista que se publica una vez al año, con ocasión de las fiestas patronales, revista propuesta y fi-

nanciada por el Ayuntamiento, siendo alcalde, en aquel momento, don Luís Echeverría. También habría que mencionar al hermano de Boni, Pedrotxo y a Ramón Mujica en el empeño de animar esta publicación.

**¿Ya en aquella época los colaboradores de la revista se reunían en una cena para proponer los temas a abordar en la edición de cada año de la revista?**

En aquellos primeros años no había cenas. Supongo que fue idea de Boni, después, reunir a los colaboradores en una cena a la que también acudían el alcalde y el concejal de cultura. Recuerdo aquellas cenas con verdadero placer. Yo procuraba cambiar de compañero de mesa cada año. Siempre aprendía mucho con cualquiera que tuviese al lado. En cierta ocasión le tuve a Pedrotxo Otegi. Hubiera podido escribir mil páginas con la “novela” que nos contó sobre la vida de un antepasado suyo con un sentido del humor y una ironía genial. También recuerdo con agrado la compañía del pintor Vicente Cobreros. No tuve la oportunidad entonces de tenerle cerca a Koldo Mitxelena, pero sirvió para conocernos y conversar en cualquier encuentro que tuvimos en la calle. Una vez me lo encontré en el cine Reina. En el momento del descanso me dijo que era la tercera vez que veía aquella película y que seguiría viéndola tantas veces se le diera la ocasión. Se trataba de “Grupo salvaje”, de Sam Peckinpah, le encantaban las del “Oeste”.

**¿Cómo surgió tu afición por la Literatura, esas ganas de escribir? . ¿Algún profesor cuyas enseñanzas te inspiraron, algún antecedente familiar, algún amigo...?**

Uno no puede menos que recordar aquellas clases de Literatura del Bachillerato que era la asignatura que más me atraía. ¿Antecedentes en la familia? Mi ama escribía muy bien. Mantenía una constante correspondencia con familia y amigos lejanos. Cartas con verdadero sentimiento, entrañables.

**¿Un renteriano, amigo de la niñez, Jesús Capo sí que se ha dedicado a la literatura?**

Con Jesús Capo y su hermano Eduardo éramos amigos desde niños mi hermano Andrés y yo. Vivíamos en la Alameda y ellos al otro lado del río donde su padre tenía una perfumería, justo enfrente del Panier Fleuri. En 1959, emigraron a Chile. Todavía en mí no se había despertado la afición por la literatura pero sí en Jesús. Traba-





31 de julio de 1952. Hamburgo. Paseo organizado por la Universidad para alumnos extranjeros por el río Elba.



Viaje a Goslar, zona del Harz, con amigos.

jaba en el terreno de la publicidad en Chile y, de pronto, un día, decidió dejarlo todo y dedicarse sólo a escribir. Ha obtenido premios como el 2º de “Gabriela Mistral” de teatro, el “Premio del Pen Club” de cuentos y en 1989 el “Premio Cáceres” de novela. Este premio le dio ocasión para venir a Erretería. Ha publicado una veintena de novelas.

**Alemania es una constante en tus relatos. Tu viste la oportunidad siendo joven, tengo entendido que con 20 o 21 años, de vivir un año en Hamburgo. ¿Qué impresión te produjo salir de la Rentería de los primeros 50 y encontrarte con una ciudad como Hamburgo? Supongo que sería un gran choque cultural.**

Si á los peligros anejos á la accidentada navegación por los mares del Norte, se adiciona el del torpedeamiento, tan fuera de razón en casos como

el del "Rentería", es de presumir que los armadores noruegos adopten la determinación radical prevista en el caso de ocurrir estos accidentes, de suspender las salida de sus vapores por puertos españoles.

Serían incalculables los daños que á la industria papelera, y al país por acción refleja, produciría la adopción de una medida de tal naturaleza.

Eliminados los buques noruegos, sería punto menos que imposible contar con vapores que pudieran transportar la pasta de madera indispensable para la fabricación de papel y surgiría por necesidad un conflicto de graves consecuencias, que debe el gobierno evitar, particularizando bien el caso sucedido y haciendo resaltar ante quien corresponda, el hecho de que el vapor "Rentería" era de nación neutral, que su cargamento recibido en puertos neutrales, se destinaba igualmente á puertos de España, nación igualmente neutral, á la que incesantemente rinden tributo de admiración (al decir de los germanófilos) los mismos que castigan sus buques y se complacen en privarla de las primeras materias necesarias en el país.

Insistimos en la necesidad de que el gobierno preste atención á lo sucedido. La repetición de hechos análogos determinaría un estado de cosas de perjuicios innegables para España.

# Arkaitza tabernako Iñaxi Peña gogoratuz

*JULIAN ALBISTUR ARANBURU*

Arkaitza tabernako Iñaxi Peña Sarasua iazko urriaren 9an hil zen, 88 urte zituela utzi gintuen. Orioko San Martin auzoko Itzaiz baserrian jaio eta bertan bizi izan zen, auzo bereko Andu baserrian jaiotako Manuel Arruti Lertxundirekin ezkondu zen arte. Emakume bizia, apala, baserri giroan hezia, langile aparta, jostuna ere bazen garai hartan. Ezkonduz geroztik euren jaioterrian, kalean bizi izan ziren. Bost seme-alaba izan zituzten: Patxi, Mari Koro, Mari Lourdes, Jone eta Amaia.

1977ko otsailaren 25ean, Erretereriako Zumardian itxita zegoen Sabin taberna hartu zuten Manuelek eta Iñaxik, lehen zegoenari Arkaitza izen berria jarri, eta herrian bizitzen jarri ziren euren seme-alabekin. Iñaxik zeraman tabernako martxa, Manuelen eta seme-alaben laguntzarekin, hauek hazi zituzten heinean. Erretiroa hartuz geroztik Hondarribian bizi ziren. Manuel 2012ko maiatzaren 9an hil zenez, Iñaxi orduz geroztik alargun zegoen eta Erretererian bizi zen iaz zendu zen arte.

Arkaitzari izena berak ematen dio nortasuna, sendotasuna adieraziz, jabeak baserriarrak izaki. Orio bezalako giro euskalduneko herri txikitik Erretereriako hirira etorri ziren, non erdal giroa zen nagusi. Hala ere, euskal giroa txertatu zioten Arkaitza tabernari, gaur egun ere mantentzen duena, inguruko baserriar, kaletar, euskaltzale, zahar nahiz gazte, bertsolari eta bertsozaleen ohiko bilgunea baita.

Aspaldiko urteetan, gurasoengandik ikasita, Jone eta Amaia arduratzen dira Arkaitza tabernak betiko moduan jarrai dezan, giro epel eta berezi hori mantenduz. Arkaitzan dena da berezia: izena, izana, giroa, gertutasuna, apainketa, komuna...

Sarreran, eskubi aldeko horman uztarri bat agertzen da, idi pare baten lau adarrekin. Uztarria, idi edo behi pare lepotik lotzen duen egurrezko tresna da, gurdi-ardatzari edo goldeari lotzen zaiona. Baserriko tresna hau gaur egun desagertzen ari da, lehen idi edo behi pareak egiten zuen lana orain traktoreak egiten baitu. Arkaitzaren



ARRUTI FAMILIA



Orioko Itzaiz baserria, Iñaxiren jaiotetxea.

ezaugarrietako bat bihurtu da, tabernari baserri kutsua ematen dion ikurra.

Sukalde ondoan, argazki zahar bat agertzen da, mitikoa, Txirrita bertsolari handia Erauskin anaien artean, Altzako Gazteluene baserrian, mahaian pitxerra eta atzean upela. Ezkerrean Joxe Manuel Erauskin, Txirritaren koinatua, eta eskubian Saturnino ("Xaturdino") Erauskin, Joxe Manuelen anaia. Txirritak bere azken urteak Gazteluene eman zituen Isabel Bizenta arreba gazteenarekin,



2002an Arkaitza tabernan egindako bertso-saioa.

hara ezkondu baitzen. Argazki honek ere ederki adierazten du Arkaitzako giroa, bertsolaritzak betidanik presentzia handia izan baitu, askotan goizeko ordu txikitetan herri mailako bertsolariekin. Xenpelar Bertso Eskolak, 2000ko Santo Tomas egunean omenaldi xume bat eskaini zion Arkaitza tabernari, bertsolaritzaren alde egindako lanagatik.

Iñaxi, Arkaitzako etxeoandrea, emakume langile eta apala, gure oroimenean izango dugu beti. Mila esker, bihotz-bihotzez, Errenteriako herriarroi eta ingurukoei emandako guztiagatik. Ez adiorik, gero arte baizik.

Doinua: "Habanera"

**1**  
Orioko San Martinen  
etorri zenez mundura,  
Itzaiz baserri hartatik  
gertu itsasoko ura.  
Manuelekin ezkondu  
erakutsirik ardura:  
bost seme-alaba hezi  
txertatuz euskal kultura.  
Bizitza aldakorra da  
momentutik momentura,  
beharrak eragitean  
aldatu behar ohitura.  
Jaioterria uzteak  
tarteka dakar onura,  
ondo integratuz gero  
bizitzen baita gustura.

**2**  
Jaioterria utzita  
taberna Errenterian,  
familia ezin utzi  
krisiaren miserian.  
Arkaitza taberna hemen  
jarri zenuten abian,  
urte hauetan mantenduz  
hortxe Gamon Zumardian.  
Manuel joan zitzaigun  
bi milata hamabian;  
iaz zendu zen Iñaxi,  
pattal samar aspaldian;  
baina transmisio lana  
ondo eginda agian,  
Jone eta Amaia hor  
daude betiko kabian.

**3**  
Senar-emazteak lotuz  
borondatez uztarrira,  
idi parearen gisa  
gurdiari gogoz tira,  
lanari gogor ekinez  
iristeko urrutira,  
zeharkaldia burutuz  
herri txikitik hirira.  
Urte mordoia joan da,  
ia berrogei badira,  
Manuelek nahiz Iñaxik  
goitik badaude begira,  
ziur pentsatuko dute  
ase nahian ikusmira:  
«Orduan eskerrak joan  
ginela Errenterira».

**4**  
Kalean galde eginda:  
zerbeza bat non hartuko?  
Erantzuna bat-batean  
horixe entzun orduko  
berehala irteten da  
nahiz ez garen ohartuko,  
motibo askorengatik  
Arkaitza dugu gustuko.  
Horko giro epelari  
ezin zaio egin uko;  
euskal giroa dario,  
ez du inork ukatuko;  
bertsoaren presentzia:  
Txirrita bera lekuko.  
Manuel eta Iñaxi:  
ez zaituztegu ahaztuko!

# Esculturas en Pancorbo

*JESÚS GUTIÉRREZ PÉREZ*


El desfiladero de Pancorbo está considerado una de las maravillas de la península Ibérica y, lamentablemente, hemos estado muy pocas veces en él.

La primera vez fue hace relativamente pocos años en una de aquellas felices excursiones con mi hermano y nuestras respectivas esposas, en un recorrido muy bonito hacia Oña en Burgos. Había una iglesia en obras de restauración que, curiosamente, no he visto las otras dos veces en que he estado. Ha sido otra la iglesia que hemos visto aunque no visitado. Estaba cerrada...

Aquella primera vez pasamos después por Santa Gadea del Cid, pueblo que no parece tener ninguna relación con el Cid, pues la iglesia de Santa Gadea (la misma santa Águeda de las canciones y los palos machacantes) la Santa Gadea de la famosa jura, está en Burgos capital. De todas formas en el pueblo, muy bonito por cierto, no hay ninguna alusión al Cid más que en el nombre. Tiene restos de un castillo. Al menos una torre. Durante nuestra visita se veía gente que entraba a dicha torre por una especie de pasarela pero no lo intentamos. Quedó para otro día. (Otro día con mi primo Jesusillo intenté subir a dicha torre pero la escalera exterior había perdido los escalones y el subir por ella equivalía a intento de suicidio).

Pasamos también por Poza de la Sal, patria de Rodríguez de la Fuente, pueblo del que conservo dos recuerdos. Uno que había un balcón conjurador. Desde él se conjuraban las tormentas. Cuando las nubes amenazaban tormenta, salía el cura al balcón y mandaba la tormenta a hisopazos al pueblo siguiente. Y el otro, que detrás del pueblo había un castillo sobre una pared rocosa casi cortada a pico. Las mujeres no se atrevieron a escalar. Había cables haciendo de barandilla para ayudar a subir. Mi hermano y yo subimos, yo con mucha dificultad, a fuerza de valor. Al poco tiempo me tuvieron que operar del corazón, al borde del infarto. Cuando subí al castillo ya estaba tocado del ala.

Y pasamos por Frías. Después de ver el puente medieval sobre el Ebro visitamos el castillo. Unas



mujeres de cierta edad cobraban las entradas. Debían ser las dueñas. De todas formas según las entradas se apellidaban Torre, Torre, apellido muy apropiado para las dueñas de un castillo.

Luego me he enterado de que Frías pertenece al selecto grupo de “Pueblos más Bonitos de España”, cuya lista la componen 35 municipios.

Luego estuvimos en Oña, donde está la tumba de San Íñigo de Oña que parece demostrar que Íñigo e Ignacio no son lo mismo. Conozco personas que quisieron llamar a su hijo Íñigo y en el Registro les pusieron quieras que no, Ignacio. ¡Carámbanos! ¿Y si yo quiero que se llame Íñigo como el de Oña?

También estuvimos en Villarcayo, bonita población burgalesa, lugar de veraneo de los vizcaínos (así como casi toda la Rioja).

Y estuvimos en Ojo Guareña en una ermita incrustada en la roca, un sitio precioso. A algún cura de por allí que había estado en Jerusalén y visitado el Santo Sepulcro se le ocurrió hacer un Santo Sepulcro espúreo. No era obligatorio entrar pero entramos los más decididos. Para entrar había que doblar la cerviz, como en las Horcas Caudinas y dentro había un Cristo yacente tallado por uno del pueblo que había estropeado un buen trozo de madera. Pero lo peor era la salida. Junto al suelo había una raposera, una especie de túnel como el que utilizan los zorros para salir de su madriguera. Me entró la claustrofobia. Quise salir por donde habíamos entrado, pero la gente que seguía entrando y la estrechez del recinto no me lo permitían. Tuve que arrastrarme como una sabandija. Al salir vi a las mujeres que nos esperaban y les dije que qué acierto habían tenido no entrando en aquel antro.

La segunda vez que estuve en Pancorbo fue con mi primo Jesusillo. Era un día pesado de calor y de cansancio. El pueblo es estrecho y largo como el desfiladero, y tuve que parar a descansar en un banco con respaldo. Creo que veníamos también de Oña. El monasterio cumplía mil años, y habían preparado unas Edades del Hombre especiales con el nombre de Milenium. Cuando llegamos vimos que se había clausurado la víspera y estaban recogiendo.

Recorrimos hasta el fondo el pueblo de Pancorbo, y estaba la iglesia, distinta de la que habíamos visto antes en obras, y en el recinto de la iglesia y en los alrededores unas estatuas muy bonitas montadas con hierros de recuperación, herraduras, etc.



En las escaleras que subían a la iglesia estaba sentada una mujer. Le preguntamos que quién había hecho aquellas esculturas y nos dijo que su marido (que casualmente estaba con su hijo con una máquina corta-césped cortando la hierba de junto a la iglesia). Nos preguntó de dónde éramos. Ella era de Anguciana, La Rioja, aunque yo en un principio me creí que me hablaba de Anguiano, cerca de Nájera, donde los danzantes con zancos, pero Anguciana está cerca de Haro, de camino a Cihuri donde hay un puente romano precioso. Y al decirle que yo era de Rentería, me dijo que había vivido muchos años en Hernani en casa de una tía. (También yo viví 20 años en dicha villa).

- ¿Y dónde?

- En la calle principal, en el centro.

- ¿En la calle Mayor?

- Sí, creo que sí.

Hernani es demasiado grande para que yo conozca a la tía de una mujer de Pancorbo y quedé así la cosa.

Pero al llegar a casa me acuerdo: ¡si aquella mujer de nuestra calle, la Carmen, era de Anguciana! ¡Esa tuvo que ser la tía! No vivía en la calle Mayor sino en la de Cardaveraz, la nuestra. Llamada también calle Urumea, aunque recientemente le han cambiado el nombre. Ahora se debe llamar, para estupefacción mía, Andrekale. El Padre jesuita Cardaveraz, cuyos restos se conservan en la parroquia de San Juan Bautista, nacido en Hernani el 29 de diciembre de 1703. Escribió innumerables libros en euskera pero, claro, no en euskera batua ni siquie-



ra con la graffa de Sabino Arana. Me dicen que este cambio de nombre se debe a las mujeres anónimas que jugaban a las cartas en dicha calle. Eso es más meritorio que escribir libros en euskera.

Por lo visto soy lento de reflejos, de efectos retardados, como aquél que paseando por calle Viteri (sí, éramos más jóvenes) uno al pasar al lado le dijo ¡guau! como saludo. En la siguiente vuelta, lo mismo. Y a la tercera vuelta, al decirle ¡guau! le dio un tortazo al burlón. Porque pensó: guau hace el perro, el perro se come al gato, el gato al ratón, el ratón, el queso, el queso se extrae de la leche y la leche, de la vaca, ¡este tío me ha llamado cornudo!

¿Y cuándo voy a volver a Pancorbo para decirle a aquella buena mujer que conocía mucho a su tía, que era amiga de mi mujer, como vecinas, y que no me había acordado en el primer momento?

La ocasión se presentó de repente. (O como decía aquel seminarista del seminario de Vitoria, francés, al menos venido de Francia, Onaindia, sobrino de aquel cura del mismo apellido que hablaba por alguna radio más o menos clandestina, Radio París, creo que era, se presentó “de repente”).

Tenía pensado para este verano de 2015 ir con mi primo y un amigo de Belorado a Ojo Guareña. Quería volver a aquellos parajes inhóspitos (o al menos poco hóspitos) y mi yerno, que lo sabía, me preguntó de sopetón:

- ¿Vamos mañana a Ojo Guareña?

Por aquello del pájaro en mano le dije que sí sin titubear.

Ya tenía preparado el itinerario. En lugar de por Villarcayo, por Medina de Pomar y Espinosa

de los Monteros. Resulta que Ojo Guareña está a pocos kilómetros de Espinosa, y Espinosa es un pueblo precioso lleno de casas señoriales de los monteros. Yo siempre he creído que los monteros eran los que ayudaban al rey en sus monterías. Pero, no, eran los que dormían ante la cámara del rey y le hacían guardia. Y tenían que ser de Espinosa por una vez que le descubrieron una conjura. Desde entonces tenían que ser hijos y nietos de espinosiegos. Curiosamente era un cargo sin sueldo. Pero tenían muchos privilegios como poder pastar (su ganado, no ellos) hasta en tierras de Vizcaya, lo que les proporcionaba buenos ingresos.

Esto se terminó con el advenimiento de la república, claro.

El plan de visita a Ojo Guareña ha cambiado, por lo que me dicen, desde hace 14 años. Antes se empezaba la visita desde la ermita pero llegamos tarde la vez anterior y no la vimos apenas.

Ahora hay una cabina metálica para las entradas. Allí te dan un casco blanco de minero o de espeleólogo. Se va todo el tiempo por una tarima de madera o de lo que sea porque la oscuridad no permite ver nada. Proyectan sobre las paredes de la cueva la corriente de agua de cuando la hubo, enseñan los silos artificiales donde guardaban sus cosechas de cereales (ya los vimos también la vez anterior) y explican cómo los hacían, y se termina en la ermita. Mi idea era que tenía el techo pintado de pinturas en negro sucio pero compruebo que son pinturas sobre figuras que representan milagros de San Bernabé, con su explicación. El que más me conmovió fue el de aquella pobre mujer que se asoma al precipicio con dos cántaros de aceite y pierde el equilibrio y grita:

- ¡San Bernabé! ¡Que no se rompan los cántaros!

Los cántaros llegaron al suelo milagrosamente intactos. La mujer, claro, espachurrada.

La vuelta (son unas dos horas de camino) la emprendemos después de bien comer en Espinosa.

Cerca ya de Pancorbo me pregunta Felipe, mi yerno, si no quiero ver alguna otra cosa.

- Pues sí. Si no te importa métete en Pancorbo.

Paramos cerca de la casa del escultor. Y vemos venir un matrimonio añoso. Son ellos. He reconocido a la mujer.

Nos paramos a charlar con ellos campechana-mente. Me presento como el que estuvo otra vez y me habló de que había vivido en Hernani en casa de una tía.

- ¿Se llamaba Carmen la tía? -pregunto.

- Se llamaba Carmen y era muy buena modista.

Mira por dónde hasta podríamos habernos visto en Hernani.

Ella se llama Encarnación Espinosa y él, Felipe Murga. Trabajó en un taller de Miranda de Ebro de ajustador. Pero veía a los soldados del taller trabajar y les pidió que le enseñasen a soldar. Y en los ratos libres mientras los demás descansaban o almorzaban él aprendía a soldar con los soldados. Vivieron varios años en Miranda. Pero luego volvieron a Pancorbo donde él había nacido. Va a cumplir 87 años, tres más que yo.

Las esculturas, de hierro, y las que más me gustaron fueron la del sin par Sancho Panza, la del estirado Don Quijote y la de una zarrapastrosa Dulcinea, princesa del Toboso.

Ya sabéis que Cervantes y Shakespeare murieron en la misma fecha (por eso se celebra en ella el día del libro), pero no en el mismo día, porque en España regía ya el calendario gregoriano, el actual, y en el Reino Unido todavía se regían por el juliano (vamos, que conducían por la izquierda) y hay 10 días de diferencia entre ambos calendarios.

Pero seguramente en Inglaterra harán grandes conmemoraciones con su literato mientras aquí estaremos discutiendo si Podemos o Debemos o no Hacemos.

Bueno, ése es mi homenaje, llamémoslo, público. El privado se lo he hecho a lo largo de mi vida leyendo su Quijote más de diez veces (perdí la cuenta) en castellano y una vez en euskera (fue soporífero), otra en francés actual, me gustó y otra en italiano (me resultó delicioso). Precisamente le había leído en esta misma revista a mi sobrino Jon Arretxe que tuvieron en el Instituto de Galtzaraborda un profesor italiano que decía que los españoles no habíamos entendido el Quijote. Que el Quijote había que leerlo en italiano. Pues yo ya lo he hecho. Y he disfrutado haciéndolo.

Y tengo Quijotes ilustrados por Gustavo Doré, Quijotes editados por la Real Academia Española y uno que costó 4 pesetas en los lejanos días de su publicación sin fecha, y uno en portugués, otro en alemán comprado en una feria del reciclaje y otro en inglés, estos dos últimos que no leeré nunca por razones obvias.

Y con la reproducción de esas esculturas quiero rendir mi pequeño homenaje a Cervantes, de cuya muerte se cumple este año el cuarto centenario.



# Orein bilakatu zen neska

MARIASUN LANDA ETXEBESTE [WWW.MARIASUNLANDA.NET](http://WWW.MARIASUNLANDA.NET)

## *Izeba Joxepi Etxebesteri, in memoriam*

Lehenik eta behin, aitortu behar dut aspalditik nuela buruan *Azken balada* liburua idaztea. Betidanik izan dut oso gustuko *Oreina bilakatu neska* edo *Ura ixuririk* izeneko balada, eta askotan entzun dut Haizea taldeak 1977an eza-gutzera eman zuen kanta zoragarria. Izan ere, aipatutako balada hori Pierre Lafitte folklorista lapurtarrak jaso zuen 1965ean, informatzailearen daturik eta zirkunstantziarik eman gabe. Beraz, *Oreina bilakatu neska* dugu euskal baladen ondareari gehitu zaion azken gai tradizionala. Hortik datorkio izenburua nire liburuari: *Azken balada*.

Hona hemen baladaren hitzak eta istorioa:

*Ura ixuririk sorginen bidean,  
dohaina bildu dut bazko arratsean:  
gauaz Mayi nuzu, egunaz oreina,  
etxeko zakurrek xerkatzen nutena.*

*-Jakes nun tuk horak? Eztiat senditzen.  
-Oianpean kurri, oreina xerkatzen.  
-Jakes, deit'zakurrak, salba zak arreba.  
-Ama, nola sinets Mayi daitekela?*

*Jakes zakurreri hasi da xistuka,  
oreina hil dute kolpez ausikika.  
Jakesek kanitaz eman du pusketan:  
-Aseko ahal da mayi gurekila.*

*-Afal, afal, Jakes. Ni nuk hor lehena,  
ene haragiaz betherik dupina.  
Ama, sala-zolan, nigarra begian,  
puñala sartu du bere bihotzean.*

Baladaren azpieuskalkia behe-nafarrera da, ekialdekoa, hain zuzen. Narrazioa eta elkarrizketa tartekatzen dira, baladen generoari dagokion bezala. Eta elipsiek ere garrantzi handia dute, era horretako ahozko literatur lanetan izan ohi den legez. Gaur egun, balada, praktikan, genero hila da,

zenbait agure baserritarren ahotan oraindik aldagai ederrak entzun daitezkeen arren.

## Argumentua

Maitaneri –nire narrazioko protagonistari– gertatzen zaion bezala, euskaldun arrunt bati gerta da-kioke istorioa oso ondo ez ulertzea. Hasieran, *sorgina, zakurrak, Mayi, Jakes, afaldu* eta beste hitz gutxi batzuk bakarrik ulertzen ditu Maitanek, ez askoz gehiago. Baina, azken esaldi osoa, behintzat, bai: *“amak puñala sartu du bere bihotzean.”* Maitanek, intrigatuta geratzen bada ere, ondorio bat atera-





tzen du berehala: balada dire-lako horiek oso aspaldiko istorioak dira, bertsoan emanak, eta jendeak, urtez urte, kantuz transmititu izan dituenak. Eta, kasu honetan, bukaera tragi-koa du, amak bere buruaz beste egiten baitu.

Bai, arrazoi du Maitanek, “*balada bat poema narrati- bo bat da, autore ezezagunak sortua eta autore samalda ba- tek errepikatua*”, definizioak dioenez. Forma aldetik genero poetikoari dagokio, eta eduki aldetik erabat narratiboa dela gehitu daiteke.

Beraz, hona hemen *Oreina bilakatu neska* bala- daren sekuentzia narratiboak:

1. Neska batek, sorgin-erritu baten bidez, orein bihurtzeko ahalmena lortzen du.
2. Neskak amari sekretua aitortzen dio, eta ja- kinarazten dio arriskuan dagoela, nebaren txakurrak atzetik dabilzkiolako.
3. Amak semeari txakurrak biltzeko erregu- tzen dio, ehizakia bere arreba delako.
4. Ehiztariak ez dio amari sinesten, eta txaku- rrak xaxatzen ditu. Orein-neskaren gainean jauzi egin, eta haginkadaka hiltzen dute. Ehiztariak berak zatitzen du afarirako, eta arreba etor dadila eskatzen du.
5. Bere haragia lapikoan egosten ari dela, orein -neskak hitz egiten du.
6. Amak, alabaren ahotsa entzutean, bere bu- ruaz beste egiten du.

Itxuraldaketa da, azken finean, baladaren gai nagusia.

### Istori bat eta aldagai asko

Ahozko euskal literaturari dagokionez, Koldo Mitxelenak esaten zuen beste edozein herritakoa bezain aberatsa eta anitza zela. Jon Juaristik, *La balada vasca de la muchacha ciervo* ikerketa in- teresgarrian<sup>1</sup>, zalantzan jarri zuen euskal balada honen originaltasuna. *Oreina bilakatu neska* beste baladen aldagai bat izan liteke haren ustez, XVIII. mendean European zehar zabaldu zirenetako bat.



Hala ere, euskal bertsiot honek baditu bi ezaugarri berezi: neskaren oreina bilakatzeko desira, eta amaren suizidioa. Baina, horretaz mintzatzeko, gogora ekarri behar genuke ahozko literatura nola zabal- du izan den mendez mende.

Baladak ahoz hedatzen eta iraunarazten dira. Transmisio bilakaera horretan, aldatu eta eboluzionatu egiten dira. Beraz, poema irekiak dira baladak, al- dagaietan bizi diren eredu bir- tualak, balada-errezitatzaileak edo kantariak bere urrats pro- pioa uzten baitu haietan.

### La blanche biche

Jesus Antonio Cidek, euskal baladan adituak, zehazki lotzen ditu *Oreina bilakatu neska* eta za- balkunde handiko balada frantses bat, *La blanche biche*. Doncieux folkloristaren arabera, *La blanche bichen* hamar bertsiot daude Frantzian, eta ho- rien arteko ahaidetasuna XVII. mendeko “vise” es- kandinaviar batekin lotzen du, zeina, beharbada, Britainiatik heldu baitzen Frantziara.

Izan ere, orein-neskaren tradiziozko gaiak, baladaren bidez zein baladatik sortutako ipuin baten bidez, eragina izan zuen XVIII. eta XIX. men- deetako literatur kultuan ere. Gutxienez bi aipa- men datozkit burura: Aulnoy kondesa famatuaren *La biche au bois* amandre-ipuina, eta, noski, Gusta- vo Adolfo Becquerren *La corza blanca* ezaguna.

Berpizkunde garaian, humanistek eta musika- riek herri poesia honen aztarnak jaso zituzten amultsuki; urrezko mendeko drama idazleak ha- rengan inspiratu ziren komedia ezagunenak sor- tzeko, eta Audenek eta Lorcak, adibidez, interes handia agertu zuten haien argitasun erakarga- rrian, primitibismo kutsuan eta molde arinetan.

Bukatzeko, aitortu beharra dut nik ere ezin izan diodala tentazioari eutsi eta beste bertsiot bat es- kaini dudala *Azken balada* liburu berrian. Batetik, baladaren bertsiot ezagunaren idatzizko narrazioa, eta, bestetik, beste bertsiot bat, desmitifikatzailea, errealistagoa, Maitane protagonistak eskaintzen duena. Eta bukaera zoriontsuagoa duena, noski!

<sup>1</sup> ASJU, 1987, XXI-3, 917-926.

# Ibai disdirak

*ESTHER OTXOA SUSPERREGUI*

Os invito a dar un paseo por la ría...

Os invito a estar unos minutos ante sus reflejos, a escuchar el sonido del agua...

Os invito a dar rienda suelta a vuestra mirada y a vuestra imaginación...

Os invito a descubrir las imágenes que me ofrece... a veces inesperadas, a veces metafóricas, casi siempre abstractas... y que capturo con mi cámara fotográfica.

Imágenes que cambian según la incidencia de la luz del sol, o de su ausencia...

Imágenes que varían por el efecto de la marea; de si está nublado, si llueve o si hay viento que agita las hojas de los árboles cercanos, formando curiosos reflejos en el agua...


“Mirar viendo” me permite descubrir que el agua tiene que estar en calma para que pueda emerger lo profundo, lo escondido. El movimiento del agua me remite a la transitoriedad de los momentos y de las situaciones, al paso de la vida, a lo que dejamos atrás y a la dirección que tomamos hacia el futuro; a las piedras que nos encontramos en el camino y a los continuos cambios que tenemos que realizar si queremos adaptarnos a las circunstancias que se nos presentan... porque el fluir del agua es el fluir de la vida.

La ría es mucho más de lo que pensamos, solo tenemos que dedicarle un tiempo y ante nuestros ojos aparecerán formas inexplicables, colores que no esperamos, sombras, reflejos de gaviotas, de árboles, sinuosos rascacielos... Imágenes en constante cambio, como la vida... en constante movimiento...


En cada paseo por ella descubro nuevos rincones, nuevos reflejos, diferentes colores y movimientos del agua que no dejan de sorprenderme.

Jugando con las sombras, el color, la luz y el agua en continuo movimiento, muestro una mirada diferente que surge desde la sensación de sentirme en profundo contacto con la naturaleza, en un espacio tan cercano como es el de nuestra ría.






Aunque el agua es suave, delicada y aparentemente débil, tiene la capacidad de erosionar la roca más sólida.



estherotxo



estherotxo



Agua que se adapta al camino que recorre...  
Ondas que cambian constantemente según la fuerza que lleve la corriente...

Es la suavidad del agua la que toma protagonismo junto al movimiento etéreo y al fluir delicado...

Cuando el agua está en calma, se ve el fondo, la esencia de las cosas y nos refleja lo externo... actúa como espejo de nuestras emociones y sentimientos...

La ría me acompaña en el paso del tiempo, me relaja y me da vida.

Me permite curiosear, imaginar y emocionarme.

Me permite crear, disfrutar y compartir.

Me permite recordar el pasado y soñar con el futuro.

Me remite a la historia de un pueblo, a la historia de sus gentes, a un proceso de transformación, a lo que fuimos y a lo que ahora somos...

La ría es generosa... nos ofrece sus aguas para poder ver el reflejo de nuestros pensamientos y sentimientos, nos ofrece espacio para abstraernos y también para reflexionar...

Tenemos un lugar bello, un entorno natural que nos da mucho, solo tenemos que descubrirlo y seguir cuidándolo.

Con mi profundo agradecimiento a todas las personas que han hecho posible, con su trabajo y su esfuerzo, que en la actualidad podamos disfrutar de una ría limpia, no contaminada y llena de vida.

[www.estherotxoafoto.com](http://www.estherotxoafoto.com)

# Iztietako parrokiak 50 urte

JULIAN ALBISTUR ARANBURU

Elizari lotutako gaia izanik eta hortik aparte nabilenez, agian ez naiz pertsona egokia lan hau idazteko. Duela 41 urte, 1975ean ezkonduz geroztik Erreterian bizi naiz, horietatik azken 33 urteak Erdialdean, Iztieta elizatik gertu. Nire bizitzan gidatzen nauena, etikatik gertuago dago erlijiotik baino. Hori uste dut behintzat. San Jose Langilea Parrokia eraikia ezagutu nuen. Elizara gutxitan joan arren, "nire" parrokia ere bada eta 50 urteko egitarauko ekitaldietara agertzen saiatu naiz, batez ere, jakinminagatik. Beraz, zertzelada batzuk ematen saiatuko naiz, ur sakonetan sartu eta inor mindu gabe.

Interesgarria iruditu zitzaidan Apirilaren 28an egindako mahai-ingurua, Joserra Trebiño, Antselmo Arrieta eta Arantza Morilloren partaidetzarekin. Antselmok, parrokiaren sorrerako eragile sutuak, duela 50 urteko kontuak xehetasunez kontatu zizkigun. Harrigarria egin zitzaidan 88 urteko pertsonaren ahotik hainbeste gauza entzutea, fisikoki mugatua egon arren, buru argia baitauka oraindik. Luxu handi bat.

Harrituta utzi ninduen Antselmok bere azalpenarekin: «Eraikin berria egin ondoren 18.000.000 pezetako zorra genuen eta ezin nintzen joan misiolari Ekuadorrera, zor hori murriztu gabe; hurrengoari ez nion karga hori utzi nahi». Gero, hasierako Hondarribia kaleko etxe azpiko lokala, eraikitzaileak dohainik emana, merkaturatu eta jendearen diru-laguntzarekin lortu zuen kopuru hori jaistea. Antselmok jarraitu zuen: «8.000.000 pezetako mailegua lortzeko, Aurrezki Kutxak 80 abal-emaile eskatu zizkigun, nomina eta etxebizitza zeukan jendea, noski, operazioa bermatzeko. Baita lortu ere, jendeak erantzun baitzuen». Gaur egungo ikuspegitik, diru-kopuru handia izanda ere, ez dauka zer ikusirik orduko balioarekin, garai

hartan 8.000.000 pezeta dirutza baitzen. 2001ean Euroa martxan jarri zenetik (Euro1=166,386 Pezeta), erreferentziak galtzeko arriskua dago. Kontuak ateratzeko, garai hartan Iztieta etxebizitzak 500.000 pezetako balioa zuen, gutxi gorabehera.

Gaur egun pentsaezina dirudi, krisiaren eraginez, lanean ezegonkortasuna nagusitzen ari baita. Atzerapauso handia eman da azken urteotan. Hala ere, orduko lorpena izugarria izan zen. Borondate onenarekin eginda ere, ez dakit arriskua neurtu zuten. Zoritxarrez, azkenaldian ederki ikusi dugu zer gertatzen den maileguari aurre egiten ez bazaio: etxea galtzen dela. Kasu krudelak gertatu dira, benetako dramak. Gauza hauek Europan, XXI. mendean gertatzea ezinezkoa zirudien arren, sarritan gertatu dira. Azkenaldi honetan, handiagoak ere gertatzen ari dira. Siriako errefuxiatuekin gertatzen ari dena lotsagarria da.

Maiatzaren 1ean bete ditu 50 urte Iztieta parrokiak. 1965ean, Erreterian betiko parrokia motz gelditzen zen, orduko biztanlegoaren hazkunde izugarriaren ondorioz, elizkizunak eskaintzeko. Horrela, 1965ean bertan abian jarri zuten Iztieta. Hasieran, behin-behinekoa, aipatutako Hondarribia kalean. Gero, eliza berria non kokatu erabakitzeke eztabaida latzak izan ondoren, egin zuten gaur egun ezagutzen dugun arkitektura bereziko eraikina, bere oina zirkulu erdia baita, gutxi gorabehera. Bi aldeetara dorreak dituelarik.

Urte gutxitan Erreteria, parrokia bakar bat izatetik (Jasokundeko Andre Maria), hamar izatera pasa zen. Iztietaarekin bateratsu egin baitziren kaputxinoen Fatima, Alabergakoa... Orduan parrokia gutxi eta apaiz asko eta orain alderantziz: parrokia asko eta apaiz gutxi. Egoera asko aldatu baita 50 urteotan. Herriaren biztanle kopuruaren bilakaera ikus dezagun:

<i>Urtea</i>	1950	1960	1970	1977	1981	1990	2000	2015
<i>Populazioa</i>	12.784	18.642	34.610	48.586	45.789	42.441	39.200	39.555



Iztietako San Jose Langilea Parroikia

Herriaren populazioa 1950etik 1977ra (27 urtean) ia laukoiztu egin zen, garaitsu horretan gailurra jo zuelarik, ia 50.000 biztanlera iritsi baitzen. Gero jaisten joan zen, eta azken 15 urteotan mantendu egin da, ia 40.000 biztanleren inguruan. Bestalde, bokazioak ere bakandu egin dira, sinismena ahuldu eta, azkenik, Estatu laikoan bizi garenez, elizara jende gutxi joaten da; bereziki, gazteen kasuan oso nabarmena da. Elizak, erakunde bezala, gazteak ez baditu erakartzen, nire ustez, oker dabil.

Azken 50 urteotako aldaketa ikusita, ez dut uste soilik moda kontua denik, gizartearen joera aldaketa baizik. Gizartean, aldaketak abiada bizian doaz; Eliza, ordea, zaharkituta dago, nire ustez eta Frantzisko Aita Santuak erabakiak hartu beharko dituela uste dut. Adibidez, genero ikuspegitik emakumeak diskriminatzea, gaur egun onartezina da. Apaizen zelibatu, edo ezkongetzari buruz ere, antzeko zerbait esan daiteke. Baina, hau beste kontu bat da, ez baita lan honen helburua ere.

Elizkizunetatik aparte, zerbitzu anitzak eskaini ditu eraikinak bere historian. Besteak beste, ha-

sieran mojek edo lekaimiek hor eskola ematen zuten; lehenengo urteetan, Orereta Ikastolako ikasleek ere gelak hor izan zituzten, Olazabaleko egoitzara joan aurretik; etorkinen bizileku ere izan zen. Gimnasia ere egiten zuten emakumeek. Sozial mailako beste ekintza ugari egin dira bertan. Elizaren azpian, elkarte gastronomiko bat ere badago. Azkenean, sozialki etekin ona atera zaiola esango nuke.

Izena ere hasieratik esanguratsua du: «San Jose Langilea Parroikia». Iztietan, sorreratik, oro har, langilez osatutako auzoa izan baita. Kapitalismo basatiaren agindupean bizi garen honetan, diruaren mende, agintari ezgai askoren laguntzarekin, urteotan krisiak eraginda, langileriak hainbeste urteko borrokan lortutako eskubideak urratuak izan ondoren pikutara joan dira, sozial mailan 30 urteko atzerapausoa emanez. Santuaren laguntza beharko da hau konpondu nahi badugu. San Jose Langilearen eguna, hain justu, maiatzaren 1ean ospatzen da. Langilegoaren erreferentea da, non langileek eta sindikatuek euren aldarrikapenak azaltzen dituzten.

Iztietako parrokiak, bere 50 urteko ibilbidean, 4 parroko izan ditu: Antselmo Arrieta, Jexux Zubillaga, Pedro Vazquez, eta oraingoa, Joserra Trebiño.

## ANTSELMO ARRIETA

Bergaran jaio zen 1928an, eta apaiz egin Donostian 1953an. Bergarako Angiozar auzoan egon zen 4 urtez. Handik Madrilera joan zen ikastera, eta Zientzia Politiko eta Sozialetan lizentziatu zen. 1966ko urtarrilaren 8an, Errenteriako San Jose Langilea Parrokiaren erretore izendatu zuten. Hasieran, Hondarribia kalean, ondoren Iztietako eliza berria eraikitzeko eragile nagusia izan zen. 1984an Ekuadorrera misiolari joan zen; han 19 urte igaro zituen. 2003an jubilatzen eta egun Donostiako Apaiztegian bizi da. Liburu ugari argitaratu ditu, eta, 88 urterekin gogotsu ikusten zaio.

## JEXUX ZUBILLAGA

Antselmoren ondoren, 1984ko ekainaren 17an, San Jose Langilea Parrokiaren erretore izendatu zuten, bertan urte batzuk eman zituelarik. Trintxerpen ere parroko izan zen. Gaur egun Donostiako Antiguako San Sebastian elizako parrokoa da.

## PEDRO VAZQUEZ

Hondarribian jaioa, 1972ko urriaren 12az geroztik, San Jose Langilea Parrokian 40 urte eman

zituen, Jexuxen ondorengo parrokoa izanik, 2012an apaizgintzan urrezko ezteiak ospatu ondoren, jubilatzen arte. Hala ere, apaizen beharretatik, oraindik mezak ematen jarraitzen du.

## JOSERRA TREBIÑO

Eibarren jaioa, Azpeitiko Urrestilla auzoan hasi zen apaiz bezala, gero Irunen eta Martutenen parroko izan zen. Caritasen eta, oro har, sozial mailan lan handia egin du. 2012az geroztik Iztietako San Jose Langilea Parrokian dihardu parroko. Jasokundeko Andre Maria Parrokian ere ari da lanean. Lanpetua dabil.

Apaiz gehiago aritu dira lanean San Josen: Andoni Lekuona, oiartzuarra (1966-1973); Joxe Mari Iza, oiartzuarra hau ere (1967-1972); Joxe Manuel Labaien, andoaindarra (1971-1973); Elias Zuloaga, berastegierra, 1973tik 1982an hil zen arte. Gerroago Esteban J. Agirre, eta orain Herman Bagara (Afrikarra, Beningoa).

Aipatutako 4 erretore eta beste apaizez aparte, jende asko aritu da lanean bolondres 50 urte haueetan, lan isila, baina beharrezkoa eginez. Besteak beste, eliz-batzarretan, katekesia irakasten, gaixoak bisitatzen, janaria banatzen, mantenu lanetan, garbiketari... Mila esker denoi, bihotz-bihotzez.

Doinua: *Mendian gora haritza*

1

Hirurogeita bostean,  
gabezia ikustean,  
Iztietako auzo berria  
eliza eskean.  
Aldarrikatzen hastean,  
batean eta bestean,  
elizatxo bat eratu zuten  
ia ezustean.

2

Antselmoren eraginez,  
lanean jardunda grinez;  
batzuk nekatu arte zeharo,  
beste asko minez.  
Bolondres lana eginez,  
denak borondate finez,  
auzotarrentzat lorpen ederra  
gogotsu ekinez.

3

Eraikin berria gero,  
Aurrezki Kutxan bezero,  
maileguari aurre eginez  
hamaika numero.  
Lanean blai egunero,  
kuota ere hilero  
ordaintzen zenez amortizatu  
dute honezkero.

4

Aukeratuta tokia,  
eraiki zen Parrokia:  
Jesusen aita San Jose zenez  
izen egokia.  
Zirudien utopia,  
baina zen filantropia;  
krisi garaian sozial mailan  
da behatokia.

5

Antselmo urrun joanda,  
hurrena Jexuxen txanda,  
Pedrok bizitza bertan eman du  
egia esanda.  
Bokazioen eztanda,  
galtzen doala bistan da;  
Joserra kristau zintzoen bidez  
egin propaganda.

6

Nagusi edo maizterra,  
ekidin behar da gerra;  
fededunentzat Eliza baita  
laguntza ederra.  
Mundua denez ankerra,  
baztertuz bide okerra,  
parrokiako jendea gida  
ezazu Joserra.

# La odisea de Xabierto: el último paquebote

KOLDO ORDOZGOITI

“Elkartasuna indarra da: izan hau beti gogoan”, esaldiak laburbiltzen du Buenos Aireseko EKIN argitaletxeak argitaratu didan *La odisea de Xabierto: el último paquebote* liburuaren mezua. Historia hau euskaldunok munduan zehar ihesi paperik gabe genbiltzan garaikoa da. 1940an gertatu zen eta gaur egun Mediterraneoan eta Europako lurretan

ikusten ditugun egoerekin antza handia du. *La odisea de Xabierto: el último paquebote* liburu honen aurrerapena hemen bertan, 2007. urteko *Oarso* aldizkarian argitaratu nuen, *Xabierto Casablancan* artikuluan. Bertan, *Groix* itsasontzian bidaiatu zuten lagunek bizi izan zuten ibilbidea azaldu nuen, beraiek idatzitako txostenean oinarrituta. Bide ba-




Primera fila, sentados, de izquierda a derecha: M<sup>a</sup> Carmen Blanco Irujo, Ángela Almazán Arribas, Miren Itziar Oyarzabal Lazcano, Izaskun López-Mendizabal Olano, Ixiar López-Mendizabal Olano, Miguel Artola Goñi, Miguel Rigabert Marín, Miguel Rigabert Fernández.

Segunda fila, (niños), izq-dcha: Mirentxu Solaegui Royo, Miren Maite Oyarzábal Lazcano, Miren Amaia Blanco Irujo, José Miguel Arbelaz Arrillaga.

Tercera fila, sentadas, de izquierda a derecha: Rosa Arriarán Galdós, Manuela Almazán Arribas, Presen -Aurkene- Lazcano Korostola, Aniana Ollo Elordi (viuda de Irujo), Angelita Arrillaga Vertiz, Alejandra Goñi Guillenea, Juana Marín Fernández.

Cuarta fila, izq-dcha: Luciano Solaegui Díaz, Elena Royo Cárcamo, Gral. Fernando Martínez-Monje Restoy, Manuel Cordero Pérez, Pilar Bago Lecosais, José Joaquín Oyarzábal Oyarzábal Irujo Olla, Josefina Irujo, Luis Bago Lecosais, Pilar Guerra Jiménez, Antonia Olano Mújica, Raimundo Aldecoa Andrinua.

Última fila, de izquierda a derecha: Magín Folch Adserias, Jesús Artola Goicoechea, Manolita Almazán Arribas, José María Gómez Lagorri, Xabier López-Mendizabal Olano, Rogelio Abella Montenegro, José Elezcano Mezo, Luis Zabala Aberásturi, Ángel Almazán Rodríguez.



Groix pailebotea



Groix-eko umeak, 1940 udara

tez, gure aldizkariaren arima zen Joxean Arbelaiz zena gogora ekarri nahi dut honen haritik, berari esker argitaratu baitzen orduko hura.

*La odisea de Xabierto: el último paquebote*, Europa eta Amerikako euskaldunen historia bat da, hura guztia bizi izan zutenen testigantzez, dokumentazio eta oroitzen bitartez josia. Alde batetik, *Groix* pailebotean bidaia egin zuten 43 lagunen joan etorri eta bizipenak azaltzen dira. Eta horrek gerra aurreko, garaiko eta ondorengo lagun haien ibilbide pertsonala eta gure gizartearena azaltzeko parada ematen du. Honen barruan sartzen da bidaia beraren peripezia eta jakina, horren bitartean Casablancan bizi izan zutena, filmean kontatutako alegiazko abenturarekin antza handia duena, hau benetan gertatutakoa izateko benta-jarekin, kronika honen sinesgarritasunaren alde.

Amerika eta Europako euskaldunen historia bat da, Euskadi eta Argentina estu uztarturik azaltzen zaizkigu. Ageri agerian geratzen da Argentinako "Comité pro inmigración vasca" eta Agirre Lehendakariaren Eusko Jaurlaritzak —oro har— eta bereziki Buenos Aireseko Jaurlaritzaren delegazioak II. Mundu Gerra hasia zen aro zail hartan euskal erbesteratuei ihesbidea eta irteera emateko egin zutena.

Eta horrekin batera, Ixaka Lopez Mendizabal bera eta *Xabierto* bere liburua ardatz hartuta, ikerketak itsasoaren bi aldeetako euskaldunen arteko kultur harremanak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Euskaditik irten beharrean izan ziren

denbora hartan, Euskal Pizkundeak Ameriketara salto egin zuela da liburuaren tesia. Hau da, Ixaka Lopez Mendizabalek eta Andres Irujok sortu zuten -eta liburua argitaratu duen- Buenos Aireseko Editorial EKIN Argitaldaria eragin eta hartu eman horren emaitza bikain bat dela.

Ondorengo hau duzue liburuaren lehen atala, Oarsoko irakurle guztiei eskainia.


### Un bananero cargado de refugiados arriba al país de las maravillas<sup>1</sup>

"Nadie, ni nada, salvo la alegría inmensa de llegar a tierra de democracia y libertad, podrá compensar al grupo del "*Groix*" de los angustiados momentos vividos en este viaje imborrable". He aquí una definición perfecta de odisea, realizada en primera persona. Esta es la historia de un grupo humano, cuarenta y tres personas que el azar reunió en el viaje del *Groix*, uno de los últimos paquebotes que salió de Burdeos antes de la rendición de Francia. Pero es mucho más, es el relato de un tiempo, de un mundo y de un país. Representa también la odisea de *Xabierto*, el largo viaje de un libro infantil.

En lo más negro de la guerra, cuando parecía que el mundo se acababa, en los mismos días en que Francia caía ante el avance nazi, el 12 de junio de 1940 en medio de intensos bombardeos partía de Burdeos, destino a Buenos Aires, uno de los últimos enlaces transatlánticos. Era el paquebote *Groix* a bordo del que, entre otras personas de toda Europa que

<sup>1</sup> Primer capítulo de "la odisea de Xabierto: el último paquebote", Koldo Ordozgoiti, Editorial Vasca Ekin, Argtaletxea, Buenos Aires, 2016. Disponible en Amazon.





huían de la guerra y de la ocupación, viajaba un grupo de cuarenta y tres emigrados republicanos, de los que veintiocho eran vascos. Diez familias constituían el grueso, con una mayoría de mujeres y niños. Gran parte de los protagonistas de esta historia se conocieron a bordo de aquel vapor en el que salían huyendo; cuando, tras “el estallido de la Segunda Guerra Mundial, muchos ojos en Europa miraban con esperanza o desesperación hacia la libertad de las Américas”, como relataría el narrador de la película *Casablanca*. Un viaje previsto de quince días se convirtió en una epopeya de siete meses largos, repleta de situaciones adversas, desde torpedeamientos en alta mar hasta la retención en el puerto de Casablanca, escenario real para aquellas personas, *avant la lettre*, del drama que en la ficción cinematográfica protagonizaron Humphrey Bogart e Ingrid Bergman.

Los familiares y amigos de los viajeros que habían partido en el *Groix* llevaban casi medio año trabajando desde Buenos Aires para conseguir que el viaje llegara a buen puerto. La arribada del carguero *Katiola* al Brasil, y la estancia de cuatrodías en Santos, habían permitido una mejor comunicación. El periódico *Euzko Deya La Voz de los Vascos en América*, publicado el diez de diciembre de 1940, salía en portada con la información que anunciaba la pronta llegada de un grupo de refugiados a bordo de un bananero: “En el vapor *Katiola* son esperados mañana o pasado numerosos refugiados vascos”, titulaba la noticia. “Después de una penosa travesía que ha durado varios meses, ya que salieron de Burdeos en medio de espantosos bombardeos el 12 de ju-

nio, son esperados en el vapor “*Katiola*” numerosos refugiados, entre los que figuran las familias de los señores López Mendizabal, Irujo, Bago, Aldecoa, Arbelaiz, Oyarzabal, Artola, Solaegui, Elezcano, Rigabert. Además de estos y algunos otros vascos llegarán también procedentes de Casablanca los señores Cordero, Almazán, Martínez Monje y algunos más. Igualmente figuran entre los pasajeros varios de los refugiados en la embajada de Chile de Madrid, entre los que figuran el señor Antonio Hermosilla, Santiago Ontañón, Edmundo Barbero y Pablo de la Fuente”.

El sábado 14 de diciembre de 1940 hacía su entrada en el puerto de Buenos Aires un pequeño barco cargado en cubierta con bananas, bien maduras, estibadas en el Brasil como pretexto para el viaje. La ciudad lo acogía inmensa y señorial, en paz en un mundo en guerra, con sus altos edificios y la avenida costanera que bordea el río. Pasando por delante del edificio del elegante y exclusivo Yacht Club, el *Katiola* enfiló hacia la Dársena Norte. Pasado el mediodía, amarró el barco, los pasajeros descendieron y pasaron directamente a la ostentosa terminal del Hotel de Inmigrantes, puerta de arribo a Argentina.

El diario vespertino porteño *Crítica* informaba de la llegada el mismo día: “hoy a las 12,30 horas, atracó en la Dársena Norte, el vapor de bandera francesa *Katiola*, conduciendo a un numeroso grupo de exiliados españoles, repatriados argentinos y desmovilizados franceses, después de haber soportado una verdadera odisea de barco en barco, hasta llegar a estas tierras de paz. El barco hizo escalas en Casablanca, Dakar y Santos, tiene 2.147



A bordo del *Katiola*, Izaskun Lopez-Mendizabal, Xabier Lopez-Mendizabal, Antonia Olano, Ixiar Lopez-Mendizabal. *Atlántico Sur*, nov-dic., 1940.

toneladas de registro y 33 hombres de tripulación, al mando del capitán Louis Hervé. Trajo un total de 64 pasajeros, 400 toneladas de carga y un saco de correspondencia. El buque, que llega pintado de gris como los navíos de guerra, viene sin armamento, con permiso especial del control británico. El pasaje estaba compuesto por 58 extranjeros y 6 argentinos, embarcados en Casablanca. De los extranjeros, 39 son españoles. Los repatriados han pasado cinco meses en Casablanca, a donde llegaron a bordo del vapor francés *Groix*. Este quedó detenido cuando la caída de Francia y luego de ser pasados a bordo del vapor *Ville d'Alger*, pudieron transbordar al *Katiola* para llegar a este puerto, luego de pasar en los tres buques mencionados 185 días. El *Katiola* no tiene comodidades para llevar a bordo a tantos pasajeros, pero el deseo de llegar a tierras libres hizo que los viajeros soportasen un sinnúmero de incomodidades. Muchos de ellos tenían camas en las bodegas y pasillo del buque, donde se les había tendido algunos colchones y mantas, a veces separadas por cortinas. A bordo les ha faltado hasta el jabón para lavarse. Ha



A bordo del *Katiola*, Miguel Rigabert y su madre Juana Marin. *Atlántico Sur*, nov-dic., 1940.

intervenido para que pudieran embarcar para esta ciudad el Comité pro Inmigración Vasca en ésta y la Cámara de Comercio Francesa en Buenos Aires<sup>2</sup>”.

El pequeño vapor era esperado con expectación por un heterogéneo y numeroso grupo de personas. “Se trata del primer navío de bandera francesa que viene a esta capital después del armisticio franco alemán. La nave efectuó el viaje con el exclusivo objeto de conducir hasta nuestro puerto a un grupo de pasajeros que desde el mes de julio pasado se encontraban en Casablanca, con motivo de la suspensión del viaje del vapor francés *Groix*, que se refugió en ese puerto al concertarse el armisticio y no continuó su viaje al Río de la Plata<sup>3</sup>”.

Los franceses saludaban al primer buque francés que cruzando el Atlántico arribaba a un puerto argentino, tras la rendición ante la Alemania nazi, que no todos habían admitido. Por eso, entre los que aguardaban “se hallaban presentes los miembros del Comité De Gaulle y muchas otras personas de la colectividad<sup>4</sup>”. Abordo del *Katiola*, Luis Zabala Aberasturi, uno de los emigrados vas-

<sup>2</sup> *Crítica*, diciembre 14, 1940.

<sup>3</sup> *La Prensa*, diciembre 15, 1940.

<sup>4</sup> *La Nación*, diciembre 15, 1940.

cos, lo vio así: “a la vista, ya, la gran costanera bordeando el río, y el edificio del *Yacht-Club* asomando sus terrazas como vigía, apiñada la colectividad francesa, agitando sus banderas, la Cruz de Lorena y la azul celeste Argentina, acogían al *Katiola* como mensajera de su patria<sup>5</sup>”.

Pero el núcleo principal de los que esperaban en la Dársena Norte del puerto de Buenos Aires era un numeroso grupo de familiares de los refugiados republicanos, vascos y españoles, que constituían el grueso del pasaje del bananero. Miembros del Comité pro Inmigración Vasca, de la colectividad vasca, autoridades argentinas, periodistas... se agolpaban en el muelle de la estación marítima, ante el edificio del imponente Hotel de Inmigrantes.

Las crónicas periodísticas relataron: “Fueron numerosas las personas que acudieron a recibirles al muelle. Allí vimos al Presidente del Comité Pro-Inmigración Vasca, Ingeniero Urbano de Aguirre, con el Secretario, Ingeniero Diego Joaquín Ibarbia, al Doctor José Bago, alma de las gestiones practicadas en la Argentina por los familiares de los refugiados, con su bella esposa Maite Grandmontagne, a los señores Ramón Aldasoro, Pablo Archanco, Santiago Cunchillos, Ángel Blanco, Manuel Ossorio, Miguel Cervera, Carlos Labra, Jesús Zabala, Isaac López Mendizábal, Marcelino Jáuregui, Jiménez de Asua y otros muchos que desde primera hora estuvieron en el muelle hasta que terminó el desembarco. El gran Salazar como siempre prestando servicios inestimables con la generosidad diligencia y eficacia que le distingue. No podían faltar las emakumes<sup>6</sup> que en nutrida representación con su Presidenta, señora Teresa de Del Horno y Secretaria, señorita Elena Aguirre y otra importante representación de Laurak Bat, con los señores Ignacio Burundarena y Benito Seguro al frente, juntamente con un nutrido grupo de Acción Vasca<sup>7</sup>, que al salir los viajeros de la Dársena les hicieron emocionante recibimiento<sup>8</sup>”.

“Entre los pasajeros del *“Katiola”* vino el señor Manuel Cordero Pérez, destacado dirigente socialista español, a quien fueron a esperar en el puerto el doctor Luis Jiménez de Asúa, el diputado nacional Juan A. Solari y el señor Espino, ex regente del

diario “El Socialista”, residente en ésta, entre otras personas conocidas<sup>9</sup>”.

Desde el barco los pasajeros contemplaban extasiados la gran ciudad y sentían que habían vuelto a la libertad. Jesús Artola Goicoechea, gobernador civil de Gipuzkoa en julio de 1936, lo describiría pocos meses después, “hacemos alto en la dársena de Buenos Aires, todo el mundo nervioso: la Sanidad, la Policía, los amigos, los periodistas, parece mentira que estas cosas tan vulgares se nos presenten tan nuevas, tan amables... Miramos con curiosidad los pilares del tinglado... afortunadamente han quitado el famoso letrero que según decían en Europa, leería atónito el recién venido”. Se refería Artola, tal vez, a la bienvenida al “país de las maravillas”, derivada de la invitación final, digna de presidir la entrada de un parque de diversiones, con la que treinta años antes el Director General de Migraciones de Argentina, Dr. José Guerrico, cerró el discurso de inauguración del Hotel de Inmigrantes porteño: “Están en un país de recursos gigantescos, de utopías realizadas que han disminuido las leyendas árabes haciendo efectiva la transformación de indigente en príncipe del éxito. Entran en el país de las maravillas”

El periódico *Euzko Deya*, pormenorizó al grupo: “llegaron en el *Katiola* el General Fernando Martínez Monje, el conocido ex Diputado Manuel Cordero con su esposa Doña Rosa Arriaran Galdos, originaria de Oñate, el técnico de Aduanas Don Ángel Almazán con esposa e hijos, el señor Rogelio Abella, el señor Magín Folch, y un grupo de vascos formado por el antiguo Gobernador de Guipúzcoa Don Jesús Artola, su señora e hijo, el Ingeniero Don Luis Bago que fue Vice Cónsul de España en Bayona y su distinguida esposa, con su hermana la bella señorita Pilar Bago, hermanos de nuestro buen amigo el popular médico donostiarra Don José Bago, la señora de nuestro compañero señor López Mendizábal y sus tres hijos, la señora de Arbelaiz con un hijo, Don Luis Zabala, pariente del señor Baqueriza de Bermeo, el Capitán de la Marina Mercante Don Luciano Solaegui con su señora y una hija, Doña Aniana Olo de Irujo, con su hija Josefina y dos nietas, hijas a su vez de nuestro querido amigo Don Ángel Blanco, Don José Elezcano

5 Zabala Aberasturi, Luis *De Bermeo a Buenos Aires 1936-1940*, Editorial López-Mendizabal, Tolosa, s/f.

6 Emakume Abertzale Batza de Argentina.

7 Organización política vasco-argentina afín al PNV y grupo de dantzaris.

8 *Euzko Deya La Voz de los Vascos en América*, diciembre 20, 1940.

9 *Crítica*, diciembre 14, 1940.



Hundimiento del petrolero *Yarreville*, (14,36 horas GMT, junio 21, 1940. Océano Atlántico, a la altura del cabo de San Vicente, frente a las costas portuguesas, en las coordenadas 39.40 N, 11.34 W). Sobre la cubierta del vapor *Groix*, en primer plano, de espaldas, Ángela Arrillaga y en sus brazos su hijo José Miguel Arbelaiz.

y el conocido funcionario del Ayuntamiento de Bilbao Don Raimundo Aldecoa. Juntamente con estos refugiados llegaron también los ciudadanos argentinos Don Joaquín Oyarzábal con su esposa e hijas”.

Amarrado el *Katiola* en el muelle de la estación marítima, “el desembarco de los viajeros comenzó a las 13,00, por no haberse habilitado horas y se realizó con gran lentitud<sup>10</sup>”. Desde el lado de tierra, familiares, amigos y prensa asisten al arribo de tan heterogéneo grupo.

El periodista del diario *Crítica* fija su atención primero en una joven viajera: “llegó también la señorita Pilar Bago, que fue jefa de enfermeras en Euzkadi. Al desembarcar nos dijo: *Con este viaje hemos dejado a Colón así de chiquito. Yo creía que ya no iba a ver más que moros en toda mi vida y me veía pasando algún tiempo con velo.* Y al decir esto se tapa la cara con la mano, dejando libres sus grandes ojos.

No bien descendió de a bordo entrevistamos al señor Raimundo de Aldecoa, industrial de Bilbao. Es un hombre maduro de una gran simpatía y serenidad. Él mismo nos lo cuenta con palabras sencillas: *Por ser el de más edad me nombraron el “Patriarca*

*del Katiola”.* Ha sido, como puede deducirse, un episodio amable a lo largo de un viaje poco menos que interminable y lleno de inquietud. Seguidamente nos relata la odisea en estos términos: *el 12 de junio nos embarcamos a bordo del Groix en Burdeos. Llegamos a Casablanca el 23 y estuvimos allí, sin desembarcar hasta el 3 de octubre en que nos trasladamos al barco Ville d’Alger el día 18 de noviembre. Y, finalmente, recién el otro día nos embarcaron en el Katiola*<sup>11</sup>.

La imagen de Aniana Olló, de 74 años de edad, impacta entre los periodistas: “quienes nos congregamos en la Dársena Norte, para recibir a los refugiados vascos que llegaban en uno de los barcos mercantes más pequeños que atraviesan el Atlántico, después de haber sufrido la penosa peregrinación que nuestros lectores conocen y a la que hacemos referencia en otro lugar de este periódico, quedamos hondamente impresionados, al ver descender por las escalerillas del barco, del brazo de su hijo Andrés, erguida, sonriente, con el temple que durante toda su vida ha venido acreditando en las situaciones más penosas, una dama de ilustre descendencia, que en estos momentos

<sup>10</sup> *La Nación*, diciembre 15, 1940.

<sup>11</sup> *Crítica*, diciembre 14, 1940.

puede ser encarnación de las virtudes y sufrimientos que viene padeciendo el Pueblo Vasco<sup>12</sup>”.

A la salida del Hotel de Inmigrantes, Andrés Irujo ayuda a su madre, Aniana Ollo, mientras su cuñado, Ángel Blanco Salvatierra abraza a su esposa, Josefina Irujo, y a sus hijas, María del Carmen, de cuatro años, nacida en Pamplona durante el encarcelamiento de su madre, y Miren Amaia, una niña de dos años y diez meses, que prácticamente no conocía a su padre, que al poco de su nacimiento había sido nombrado vicedónsul de la II República en Jerusalén. Miguel Arbelaiz, quien fuera durante la guerra civil delegado en Baiona de la Dirección de Pesca del Gobierno Vasco, cogía en sus brazos a su hijo Joseba Mikel, nacido en la maternidad de guerra de la Roseiraie, un bebé que había viajado en la sola compañía de su madre, Angelita Arrillaga; era el benjamín de la expedición. Tenía escasos trece meses de edad al inicio del crucero del *Groix* en Burdeos y había aprendido a gatear, dar sus primeros pasos y balbucear sus primeras palabras en las cubiertas de los paquebotas.

Años después, Xabier López-Mendizabal recordaba aquel momento: “Había mucha gente esperándonos, familiares y periodistas. Era el mediodía del 14 de diciembre. Mi madre me hizo desembarcar con el salakof puesto, por el sol, pues en el barco lo usaba en la estancia en Casablanca. Pero me dio vergüenza y me lo saqué al bajar<sup>13</sup>”.

Isaac López Mendizabal, miembro de la delegación del Gobierno Vasco en la Argentina, abrazó a su esposa, Antonia Olano, y a sus tres hijos, Xabier, Izaskun e Ixiar, a los que no veía desde hacía dos años. Ixiar recuerda vivamente —más de setenta años después— el momento del reencuentro con el padre ausente. La escena impresionó a otra niña vasca de la misma edad, Miren Itziar Oyarzabal, que arribaba con toda su familia. “De la llegada a Buenos Aires recuerdo que estaba esperando Isaac López Mendizabal, al ver a su padre, mi amiga Ixiar —dos años mayor que yo— empezó a llorar y llorar, de alegría. Recuerdo los abrazos de los familiares. Pero no tengo demasiados recuerdos. Me acuerdo, eso sí, que entonces probamos el pan blanco. Por lo que parece en Casablanca, y qué decir del “Katiola”, habíamos comido pan negro. Por eso, al llegar a Buenos Aires y probar el pan blan-

co, nos parecía un bizcocho. Como si comiéramos un pastel. ¡El pan blanco de la Argentina!”

Xabier, el hijo de Ixaka, se quedó admirado con Buenos Aires. “Nuestro padre nos llevó a la pensión donde vivía también el Dr. Ramón Aldasoro, justo enfrente de la Delegación Vasca en la calle Florida. La misma noche de la llegada mi padre me llevó a ver la calle Corrientes. Vivíamos al lado. Fue una impresión tan enorme el ver toda aquella inmensa avenida llena de carteles luminosos, cines, bares, mucha gente... que quedé totalmente asombrado de lo que veía. Fue impactante para mí”.

Padres que reencontraban a sus esposas e hijos, hijos que encontraban a su madre, familiares y amigos que abrazan a los llegados a la libertad del país argentino. Un grupo humano que recupera la libertad en la República Argentina. Lo constató con agradecimiento, todavía recién llegado, Jesús Arto-la: “estamos en América, estamos en la gran Nación Argentina, a la que debemos hospitalidad y amor. Sepamos con nuestra honradez y trabajo hacernos dignos de esta gran patria de hombres libres”. Por lo que tampoco es de extrañar que partir de ese momento aquellos emigrados sintieran como propia una de las estrofas del Himno argentino:

*Y los libres del mundo responden:  
Al gran Pueblo Argentino, ¡Salud!  
Al gran Pueblo Argentino, ¡Salud!*

La alegría del momento, la felicidad por lo que bien acaba, no haría olvidar a aquellos hombres y mujeres, la dureza de lo vivido. “Desde la escucha de los bombardeos cercanos a Burdeos y de la ribera del Gironda, en los seis días que permanecemos en el puerto del Verdon y el peligro de la salida de aquel puerto, minado por los aviones alemanes la noche anterior, hasta el espeluznante torpedeamiento, días después, de aquel petrolero inglés, vecino de línea, que acaso pagó con su vida su proximidad a nuestro barco; desde los sobresaltos causados por el bombardeo de un destructor inglés por las baterías costeras de Casablanca, estando el *Groix* anclado en la rada, y por la batalla antiaérea librada por dos veces a aviones ingleses, la segunda de noche, que volaron sobre nosotros en dicho puerto, hasta los sufridos por las dos tempestades padeci-

<sup>12</sup> *Euzko Deya La Voz de los Vascos en América.*

<sup>13</sup> Xabier López-Mendizabal conferencia “Vivencias de un niño del exilio vasco”, diciembre 4, 2003.



das en el mismo; desde que supimos la noticia de que el *Groix* no continuaba viaje y que íbamos a ser desembarcados sin otro horizonte para la mayoría (en instantes de paro forzoso y recelo sobre los extranjeros) que un campo de concentración africano, tortura inimaginable, y el envío a España de nuestras esposas e hijos, en separación nunca más dolorosa, hasta el momento en que supimos que había sido pedida por el Gobierno español la extradición de dos personalidades de nuestro grupo, los Señores Martínez Monje y Cordero; desde que el sábado 16 de noviembre, siete horas antes de partir, al fin, para América se nos comunicaba la orden de prohibición de nuestro embarque en todos los barcos franceses, hasta que en Dakar nos fueron recogidos los pasaportes y detenida la salida del buque, hasta 48 horas más tarde; ¡cuántos momentos en esos cinco meses corridos, de desesperación para unos, de cólera en otros, de desfallecimiento en los más, de honda preocupación en todos y, sobre todo, en quienes llevábamos la responsabilidad consciente

de la gestión colectiva y habíamos de silenciar lo mismo la noticia alegre, para evitar más tarde la amarga decepción, que la noticia mala, para que la moral a bordo no decayera totalmente...”

Fueran de origen vasco, o no, el conjunto del grupo, desde el general Martínez-Monje, pasando por el diputado gallego Manuel Cordero, el alto funcionario valenciano Ángel Almazán o el marinero gallego Rogelio Abella, todos aquellos emigrados, sin importar la nula validez de su documentación, ingresaron en la Argentina como ciudadanos vascos. Se acogían al Decreto del Presidente Ortiz que autorizó la entrada de vascos “sin distinción de origen y lugar de residencia (...) bajo la garantía moral y material en cada caso, del Comité Pro-Immigración Vasca”. El Comité tenía además la capacidad de “intervenir en la regularización de la situación de los pasajeros vascos que ya se encuentren en el País”.

Las actas de Inspección del *Katiola* no pueden ser más esclarecedoras: “permití su desembarco condicionalmente, pues el nombrado pasajero carece de pasaporte, pero teniendo en cuenta las circunstancias especiales por las que pasan los refugiados españoles, la situación de Francia, el haber considerado el Cónsul Argentino el permiso a modo de pasaporte, el hecho de pedirlo la madre, y las buenas referencias dadas por el Dr. [José] Bago, quien se comprometió a regularizar la situación de este pasajero ante la Dirección tomé la medida expuesta<sup>14</sup>”.

Uno de los viajeros, Xabier López-Mendizabal, joven de 16 años cuando el *Katiola* atracó en Buenos Aires, glosó su copia del Informe del viaje elaborado por la comisión con un texto manuscrito, con su firma, en el que se lee: “P.D.- Por fin llegamos a Buenos Aires con un pasaporte colectivo compuesto por 39 personas constituyendo un grupo vasco, caso excepcional por cuanto los Pasaportes e *Igarobides* estaban caducos, sin valor legal alguno. Aitatzu y sus amigos lograron el permiso de inmigración colectivo. Xabier”.

Así concluía la odisea de un grupo de viajeros del último paquebote que salió de Burdeos antes de la caída de Francia. Este es el relato de ese largo viaje, pero para comenzar a contarlo tenemos que retroceder hasta el mes de agosto de 1936 e intuir sus primeras escenas en las imágenes en blanco y negro de los noticiarios cinematográficos de la época.

<sup>14</sup> Datos de la inspección consular realizada diciembre 14, 1940 en el puerto de Buenos Aires al vapor francés *Katiola*. Archivo General de la Nación, DAI –Departamento de Archivo Intermedio-, Fondo Partes Consulares, 1940, Caja 7.



Salamankako Unibertsitatea

# Salamancan Koldo Mitxelenarekin...

---

PATRI URKIZU

1967ko irailean *Filosofía y Letras* zeritzan karrerako lehen bi kurtsoak Patxi Altuna eta beste zenbait irakaslerekin Donostian EUTGn ikasi eta Zaragozan etsaminatu ondoren matrikulatu nintzen *Filología Románica* delako espezialitatean Salamancako Unibertsitatean. Egun batez Koldo Mitxelenaren aurrean presentatu ginen Ramon Garmendia eta biok Jesus Mari Mendizabal lagun eta aurkezle genuela, honek ezagutzen baitzuen lehendik. Ramon eta biok hartua genuen gela bat Libreros kalean. Berrogeita zazpi urte geroago

bisitatu dudanean Salamanca zaharreko kale hau interesgarrienetakoa iruditu zait, Informatikako akademia bat dago nire gela zenaren azpian, gaur egun. Hogeita hamar pezeta egunean ordaintzen genuen bakoitzak lo egin eta arropa garbiketaren truke. Mitxelenak galdetu zidan ea zein espezialitate hautatu nuen eta nik *Románicas* erantzun nion. Ez zitzaion gaizki iruditu, eta galdetu nionean zer egin behar nuen euskaraz idazten ongi ikasteko erantzun zidan egunero ordu erdi batean aritzeko, ahalegintzeko zerbait idazten edozertaz.

Nire jardun idatziak ez du egunerokotasunik, ordea, beti izan ditu jauziak.

Mitxelena, ez izan arren hizkuntza erromanikoetan irakasle, Hizkuntza Preindoeuroparren katedra lortua baitzuen, bazeukan bere esku Antonio Tovarrek sortu *Cátedra Larramendi* deitua ere eta oroit naiz nola euskal idazleen zati bereziak gaitzat hartuz kurtso bat eman zigun. Oraindik gordetzen ditut eman zizkigun fotokopiak eta garai hartako apunteak, non honako testuak ageri diren: Milia Lasturkoaren eresia, Bernat Etxeparek Bernard Leheteri egin eskaintza eta *Contrapas-a* (1545), Joanes Leizarragaren *Testamendu Berriko "Heuskalduney"* (1571), *Atsotitzak eta Errefrauk* (1596), Juan Perez Betolazaren dotrinaren zatiak (1596), Estebe Materreren aitzin-solasa eta zatitxoak (1617), Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Balea zaleen othoitzak Manual devotioenezcotik* hartuak (1627), Joanes Harambururen *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua* (1635) liburuko *Tormentan*, Pedro Agerre Axularren *Gero* (1643), Bernard Gasteluzarren *Egia catholicac* (1686), Voltaire-ren *Tresora Hirur Lengua yetakua* (1620), Piarres Detxeberriren *Ixasoco navegacioneoa* (1677), eta Mongongo Dassançaren *Laborarien abissua* (1692) obren zatitxoak. Beraz, eta orden honetan emanak, XVIII. mendea arteko euskal idazle nagusien zati interesgarrienetari-koak. Oroitzen naiz gure irakasle zen José Antonio Pascual jauna ere joaten zela klase haietara eta segitzen zituela esplikazio guztiak interes handiz. Hala nola Alfontso Irigoienek... Ohi bezala beti zen orijinala planteamenduetan, antidogmatikoa, eta, batzuetan, norbaitek idatzitakoarekin haserretzen zenean, jenio bizikoa.

Hizkuntzaren historia pixka bat, Arnaud Oihearneren *Notitia Utriusque Vasconiae* liburuaz, eta bertan ematen den euskal deklinabide mugatu eta mugagabearen gaineko oharra. Esteban Garibaiz eta bizkaieraz. Claveriaren bertso antiapologista haietaz, *Burlatzen naiz Garibaiez / bai halaber Etxabez / zeinak mintzatu baitire / erdaraz Eskaldunex. / Ezen zirenaz geroztik / euskaldunak hek biak / eskaraz behar zituzten / egin bere historiak*. Erantsiz Larramendiren gaztelaniazko testuek onura franko ekarri ziotela euskarari, behar bezala baliatzeko euskara eta beste jende batzuk idaztera animatzeko balio izan zutelako. Egun ere nabarmen da euskara ez diren beste erderek balio dezaketela euskal gauzen zabalkunderako eta munduan barrena eza-gutarazteko euskaldunen fruituak.

Mila bostehun eta hogeita hamargarren urte inguruan Bernard Leheteren etxea Bordelen artista humanisten egoitza bilakatu ohi zen eran Mitxelenaen etxea Salamancan euskaldunena ere bilakatu zen, Matildek egiten zituelarik anfitrioi lanak tortilla paregabeak prestatuz.

## Arantzazu 1968

Hala bada, egun batez Koldok eman zidan testu bat irakurtzeko eta ea zer iruditzen zitzaidan galdetu zidan. Niri gustatu egin zitzaidala eta tankera Xenpelarren euskararena aurkitu niola. Nola ez zidan esan norena zen testua, berea baitzen, barrenetik barrez lehertzen egongo zela pentsatzen dut, eta hala arrazoi biologikoa ager zedin (Ibon Sarasola, Ramon Saizabitoria, Rikardo Arregi eta beste zenbaitekin batera) Arantzazuko Batasunaren Biltzarrerera gonbidatu ninduen.

Oroitzen naiz Pascual irakasleari Martineten teoriak entzun berriak nizkiola eta hizkuntzen ekonomiaz eta emankortasunaz memento batean aritu nintzela. Iruditu zitzaidan moderatzaile lanak oso ongi bideratu zituela Jose Maria Satrustegi apaiz nafarrak, eta Patxi Altunak idazle moderno bat proposatu behar zela esan zigun, alegia, Axularrek balio baldin bazuen XVII. menderako XX.era beste bat behar zela, eta egokiena *Euskararen batasun bideak* txostenaren egilea bera zela, hots, Koldo Mitxelena. Geroago hainbat aldiz esplikatu zuen bezala, lapurtera, bertan zegoe-lako tradizioa (Axular), eta gipuzkera, euskararen indar soziologikoa nahasiz goi nafarrera zertxobaitekin. Erdialdeko euskalkien lotura entseatzu, gehien ezberdintzen zirenak zuberera eta bizkaiera zirenez.

Atsedenaldira batean Arantzazun paseatzen urte batzuk lehenago Jorge Oteizak bere apostoluak etzanda zizelkatzen eduki zituen lekutik —zeinen *Quosque tandem* (sic) kontsideratzen baitzuen Koldok “como un amasijo de lecturas mal asimiladas”, hots, irakurketa gaizki hausnartuen nahaste-borraste bat— Piarres Xarritonekin, Iparraldeko apaiz sutsu, zakar, inkisidorearekin, honek gipuzkoar inperialismoaz eta beste gauzez esanak oraindik buruan dauzkat eta ez esateko hobeto dira. Hantxe ezagutu nuen ere Gabriel Aresti, eta honek esan zidalarik *ez izan hain abertzalea* esaldiak denbora luzez txundituta eta pentsakor utzi ninduela, nire lehen ipuin sarituaren aitzakiaz, hurrengo urtean 1969an *Euskal Olerti* liburuan argitaratuko zena zela eta.





Arantzazuko Ama santutegia

Hasiera batean arratsaldeko ordu gehienak fakultateko biblioteka orokorrean igarotzen nituen, gerora *Clásicas* eta *Románicas*-eko espezialitateek zeukaten liburutegi xumean pasatzen nituen orduak, bertan bazirelako zenbait euskal liburu eskura. Horrela gertuagotik ere ezagutu nituen irakasleak. Behin baino gehiagotan arratsalde iluntzeko bederatziak inguru zirenean lagundu izan genion Mendik eta biok Koldori Canalejas kalean zegoen bere etxeraino, bidean gerrako historiak kontatzen zizkigularik, hala nola geroago Eugenio Ibarzabalek bildu zituen *Koldo Mitxelena* (Erein, 1977) Eduardo Txillidaren portada daukan liburuan.

### Gerra zibila

“... Eraman gintuzten, bada, Gernikara eta Foruko irteeran dagoen agustindarren komentuan ezarri. Hemen *Itxarkundia* batailoien partaide izan ginen. Gero handik Bermeoraino joan ginen *Batallón Saseta de ametralladoras*-ekin eztabaida-

rik izan genuelarik. Sesioak izan ziren, baina azkenean bermeotarrak, beraiek ere herritarrak izaki, “Plentxi” eta Tolosaldeko herritarrekin hobeto konpondu ziren donostiar “señoritoekin” baino. Halako batean Sukarrietara eraman gintuzten, hemendik berriro Gernikara eta kamioietan Ubidea aldera. Orduñako San Pedron eraso txiki bat gertatu zen, baina benetako helburua Villarreal zen, eta honen atzetik, Gasteiz, noski.

Gu ez ginen batere gudari onak, baina lagun batak deitzen zituen bezala, *mandoak* askoz ere okerragoak ziren, esan nahi dut profesionalki, alegia, gerra kontuetan. Azken orduan gudaroste batzuk kendu ziren fronte honetatik, faxismo internazionalak Mondragoeri eraso egin behar ziola eta, ez dakit noiz eta nondik. Nire ustez, orain gertatzen den bezala, à la guerre comme à la guerre, jokatu behar da, hau da, baliabide guztiak, denak, ezarri behar dira helburua lortzearren. Irakurri berriak ditut Montaut-en ohoretan laudorioak. Ez diot ukatuko jakituririk, baina konpreniezinak egi-

ten zaizkit egiten omen zituen iruzkinak: “Total, lo mismo da. De una forma o de otra vamos a fracasar...”. Horrela pentsatzen duena intendentziara pasatu behar da, edo neurri gogorrek hartu berarekin...

Meabe II.ak inolako oztoporik gabe Nafarrateko gailurra zapaldu zuen. Ez dudana konprenitzen orain, bertatik igarotzen naizen bakoitzean, zergatik sartu gintuzten han, arratsaldeko hirurretan, zelai erabat ageri batetik edonork metraileta batez denak akabatzeke arriskupean elizako karpandorretik. Hantxe gindoazen bada astoak bezala kargatuak, mantak, motxilak eta armamentua. Armak izan ezik, beste dena zelaian gelditu zen sakabanaturik, ez baitziguten esplikatu bazirela gerran, pelotoiak, sailak, konpainiak eta batailoiak, eta bakoitzak bere egitekoa duela. Zehatz gainera. *Enfin*, Sasetari esker aurrera joan ginen eta derrepentean ibai batekin topo egin genuen, garai hartako mapetan agertzen ez zena eta oraingoetan *Angelu* izena daukana. Operazioen buru karabineren kapitan bat zen, Cueto izenekoa, Villarreal bertakoa. Hau eta bere anaia geroago Bilbaon gelditu ziren eta bertan fusilatu egin zituzten.

Ibaia ez zen oso zabala baina nahiko loditua zettorren, azaroaren 30a baitzen, eta hotzak akabatzen gintuen. Ni igeri egiten ohituta nengoen, eta korrontearekin bestaldera beheraxeago agertzea erraza zela pentsatu nuen, baina Zabalak, nirekin zetorren gudariak, bere burua bota zuen animaturik uretara ohartu gabe ez zekiela igeri egiten, eta aski lan izan genuen hura salbatzen. Ezin izango zitzaigun bidean ez bazituen enbor batzuk topatu. Ni blai bustita nengoen eta Constantino Araba batailoiko tenientearekin aurkitu nintzen, eta honen gizon gutxi batzuekin.

...Koldoren etxe ondoko kafetegi moderno batean geunden atsedean hartzen eta zerbeza batzuk edaten, eta txaketa poltsikotik zigarro paketea atera eta bati heldu zion:

—*Ducados* bat nahi?

Galdetu zion Jesus Mari adiskideari eta honek bere partetik *Celtas* pakete txikia atera zuen eta erretzen hasi zen *eztakitzenbatgarrena*. Koldok erantzun zion berehala, erantzuna esperatu gabe:

—Oso ongi, zerbaitetan berezi behar dira katedratikoak eta estudiante unibertsitarioak—. Eta jarraitu zion Villarrealgo erasoak kontatzeari.

... Gasteiz aldera ematen duten Villarrealgo etxe batzuen ondora iritsiak ginen ez genekiela zer

egin. Constantino tiro batez zauritu zuten sabelean. Berrero ibaian atzera jo behar izan genuen, aski zail eta penagarri gertatu zitzaiguna ez baitzuen bizirik iraun. Bestetik pasabidea, ibia aurkitua genuen pixka bat beheraxeago, baina gau iluna zen eta jadanik eta sakabanatuak genbiltzan. Sasetak ere erretiratu behar izan zuen zauritua, eta gelditu egin ginen. Goiz-alban berrero eraso egin genuen iritsi zitzaizkigun indar berriekin.

Villarrealgoa da arma berriak zituela euskal gudarosteak egin zuen lehen eraso, baina armak ez ziren aski, ezta behar bezain onak. Lehen munduko gerran erabiliak ziren eta maiz egiten zuten kale. Bestalde, garbi zegoen abioirik gabe ezer gutxi lortuko genuela, etsaiak faxista italiaroen eta nazi alemanen laguntza zuten bitartean. Zenbat gautan gerora kartzelan nengoela, gertakizun horiek oroitzu, loak ezin hartu ninduen...


Horrelako istorioak eta bestelakoak kontatzen zizkigularik, denak benetan interesgarri, adi-adi egoten ginen, arreta handiz, era orotariko komentarioak gustura entzunez.

## Julio de Urkijo mintegia

Salamanca 1970ean Licenciatura en Filología Románica titulua lortu nuen. Honek irekitzen zidan institutueta lan egitea. Donostiako Peñaflo ridan hasi nintzen irakasten Lengua y Literatura Española, Joaquín Forradellasen ekipoan. Hemen Manuel Agudek grekoa irakasten zuen eta inbitatu ninduen Gipuzkoako Plazan, Diputazioan, ASJU-k zeukan gela bisitatzerara. Hantxe topatu nituen Luis Villasante, Anjel Irigarai, Juan San Martín eta beste. Salamancatik etortzen zenean Errenteriara eta Donostiara, batzuetan ere bertan elkartzeko ginen Koldorekin.

Hantxe ikusi nituen liburu anitzen artean Meilleten *Les langues du monde*, eta Pierre d’Urteren hiztegiaren eskuizkribuaren argazkiak, zeini buruz aurkeztu nuen 17 urte geroago nire tesia. Manuel Agudek 1950ean hasi *Diccionario crítico etimológico de la lengua vascaren* fitxak idazten jarraitzen zuen Löppelmann-en alemanezkoaz lagundurik.

Luis Villasanterekin komentatu nuen euskal autore klasikoen sakabanaketa eta Akademiari zegokiola bilduma on bat egitea... Izendatu zutenean Euskaltzaindiko buru aitortu zidan nola arazo askotan Koldok, ezezkoa eman baitzion karguari, Salamancako askatasuna eta lan egiteko lasaitasuna nahiago zuenez hemengo saltsa-mal-



Arantzazuko apostolua

tsak baino, nola lagundu izan zuen aholkuekin eta oharrekin.

Haranburu editorialean 1978an gaztelaniaz argitaratu nuen liburua, batxilerreko ikasleentzat prestatua. *Lengua y Literatura Vasca* deitu nuen eta “Koldo Mitxelena maisuari” eskaini nion. Bi parte zituen. Lehenean hizkuntzaren gaiko sarrera ematen zen, eta bigarrean euskal literaturaren historia testuen bidez; testuok euskaraz eta gaztelaniaz zeuden. Poesia, teatroa, nobela, saioa, eta beste generoak aipatzen ziren modu xume eta xaloan. Jose Azurmendik *Egin* egunkarian 1978ko azaroaren 19an, igandez, artikulu bat aski interesgarria atera zuen erreseina moduan edo, aitzakiatzat harturik nire liburuttoa titulu honekin: *Saioa dela eta, euskal literaturan*. Noski, Montaigne aipatzen zuen, baina baita ere Axular, Etxepare, edota Mitxelena...

### Institutuetako lehen euskal katedrak

1979an Autonomia Estatutua onartu zelarik, beste dekretu batek (1979-V-10) euskarazko lehen katedrak institutuetan bideratzen zuen (“con el objeto de la progresiva incorporación de la enseñanza de la lengua y cultura vasca a los planes de estudio de Bachillerato se procederá a la creación de cátedras de Lengua y Cultura Vasca en los Institutos de

Bachillerato”). Prestatu zuen 59 gairen zerrenda bat Koldo Mitxelenak, eta ahalik eta sakonen prestatzeari heldu genion. Deialdiak honelaxe zioen, “Los ejercicios escritos se realizarán en Euskera Batua”. Epaimahaia honakoek osatu zuten: buru Koldo Mitxelena, Unibertsitateko katedraduna, beste lauak batxilergoko institutuetao katedradunak ziren: Rosario Igeregi, Lupe Artola, Agustin Zubikarai eta Ignazio Usabiaga. Proba batzuk pasatu genituen. Gogoratzen naiz tartean bazirela bi testu komentario. Bat Iban Tartasen *Olsa hilceco bidia* (1666) liburutik hartua eta bestea Bernardo Atxagaren *Ziutatea* (1976) eleberritik.

BOEn agertu zen 1980ko irailaren bateko ordenak honelako zerrenda eta ordena argitaratu zuen: Javier Quintana, Alfonso Irigoien, Patricio Urquizu, Jose Antonio Mujica, Juan Antonio Letamendia, Miguel Arregui, Javier Alcibar, Miren Egaña eta Javier Olarra. Bakoitzak zuen destinua jada hautaturik. Nik Errenteriakoa aukeratu nuen, dudatan egon arren Hondarribia eta Donostia artean, baina nengoen lekuan jarraitzea erabaki nuen. Hamar hauetarik batzuek gero unibertsitatera edo itzulpengintzara joko zuten, baina izan ziren batzuk nola Mikel Arregi, beti fidel batxilergoko destinoari eutsi diotenak.

## Bordeleko Unibertsitatea

Bordeleko Unibertsitatean irakasteko inbitazioa egin zidan Jean Haritschelharrek eta hamabost urte institutueta baneramanez, nire buruari esan nion: zergatik ez? Proba dezagun aukera berri hau, eta horrela ibili nintzen joan eta etorri Bordeleketik Lezora, eta hasi nintzen tesiarekin serioski. Tesia Gasteizen aurkeztu nuen 1987ko maiatzaren 19an Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean eta *cum laude* saritu ninduten. Epaimahaia honakook osatu zuten: Jean Haritschelhar lehendakari, Patxi Goenaga idazkari, eta bokalak: Patxi Altuna, Ibon Sarasola eta Pello Salaburu. Beti esan ohi da tesia pasatzeak ekartzen duela une txar bat irenstea, trago txarra, baina pasatu beharra doktore delako titulua lortzeko. Ohitua nengoen trago txarragoetara eta beraz ahalik eta defentsa txukunena aurkeztu nuen.

Patxi Altunari gogorxko iruditu zitzaion Urteren frantses hitzak *Grammaire Cantabrique Basque* delakoan idatziak oroitaraztea, "amaren sabeletik bertatik ez zuela Erromako elizaren superstizio guztietara inolako atxikimendurik". Poztu nintzen Sarasolak esan zuenarekin, alegia, halako tesi motak zituela gustuko. Salabururen lexiko oharrak funts handirik gabekoak iruditu zitzaizkidan. Beraz, aurrera joan ginen, bada, garai hartan ohikoa zen bezala, *Portalónera*, eta ohartu nintzen Koldo ez zegoela bere tenplerik hoberenean. Ohi bezala deus gutxi jan zuen. Edan dextente.

Patxi Altunak galdetu zidan ea zer asmo neukan eta erantzun nion ez nekiela garbi, oraingoz Bordeleko Unibertsitatean nintzela irakasle, institutuko katedraren eszedentzia batekin. Dena den, ongi etorriko zitzaidala titulua eta nahi banuen EUTGn izango nuela lana, erantzun zidan modu gozo eta amultsuan.

XIII. Azkue sarietara aurkeztu nuen tesia, eta geroago prentsak jaso zuenez Jose Ramon Etxebarria harritura agertzen zen ikerkuntza arloko saria jasotzeko aurkeztu ziren hamahiru ikerlanen kalitate-maila goragatik. Ahozko elkarrizketa ere pasatu genuen eta azkenean Bilbo Aurrezki Kutxak ematen zuten saria bitan banatu zuten, erdibana Iñaki Irazabalbeitiari prekozenoei buruzko tesiagatik eta niri Pierre D'Urtez egin lanagatik. Azkenean latin-euskara hiztegia berregituratzean euskara-frantsesa-gaztelania-latina bilakatu nuen, eta bi mila hitz erabilienak, Donostiako Informatika fakultateko laguntzari esker, eman nituen. Arlo berezitueta euskara modernotzeko ahaleginetan

genbiltzan unean biziki lagungarri izanen zen Urteren hiztegia. Larramendirenaren aitzindari.

2013ko urrian Shirburn gazteluan ordu arte egondako Pierre d'Urteren *Grammaire Cantabrique* eta *Dictionarium Latino-cantabricum* eskuizkribuak Londresen Southebyko enkante batean 72.000 eurotan bereganatu zituen Gasteizko Sancho El Sabio fundazioak. Jakin nuelarik enkantereana deitu nion Koldo Mitxelena Kulturuneko arduraduna zen Frantxis López Landatxeri. Bera jakinaren gainean zegoen ere, baina antza denez, Gasteizko Kutxa aberatsago zegoen une horretan Gipuzkoakoa baino. Bibliaren *Ethorkia* eta *Ilkhitea*-ren itzulpena duen eskuizkribua Bilboko notario bibliofiloa den Jose María Arriola ezagunaren liburutegian dago.

## UNEDen

1988-89 ikasturtean Madrilen hasi nintzen lanean UNEDen Filologia Fakultatean, eta bertan egin dut lan jubilazio garaia iritsi zaidan arte. 1990.ean lortu nuen Titularitatea, hau da, *Professor Titular de Lengua y Literatura Vasca* izatea, eta okasio horretarako *Introducción a la Filología Vasca* liburua (*Cuadernos de la UNED*, 1990) aurkeztu nuen. Honen atarikoan Jenaro Costas dekanoa eta geroago Errektore izango zenak hitz hauek idatzi zituen:

*Personalmente quisiera, desde esta sencilla presentación, dedicar un recuerdo de homenaje y gratitud al profesor Luis Michelena, uno de los padres de la Filología Vasca, destacado lingüista y filólogo clásico, que ha dejado una huella profunda en todos los que tuvimos la suerte de disfrutar de su magisterio, su amistad, su aguda crítica y de su innata "libertas".*

*Madrid, septiembre de 1990.*

Hemen argitaratu ditut zenbait lan gaztelaniazko irakurlearentzat *Introducción a la filología vasca* (1991), *Gramática de la lengua vasca* (2. ed. 2007), *Historia de la literatura vasca* (2000), *Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición* (1007), eta *Teatro vasco. Historia, reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones* (2009), zeinak izan baitira alde bategatik maisuaren irakaskintzen dibulgazio eta bulgarizazio ahaleginak, eta bestetik hark gutxi ikertu alorren (teatroa adibidez) sakontze lanak.



## Gutunak

Beti iruditu zait idazleen bizitza eta obrak aztertzekeo iturri interesgarrienetakoa gutunak direla. *Scripta manent*. Idatziek diraute. Baina oraingo tresneria modernoekin gordetzeko aukera izan arren, ez dakit galtzeko zoria ere errazegi duten. Hala bada XX. mendeko hiru idazle garrantzitsuenetakoen gutunak argitaratu ditut, euskara eta euskal literaturaren argigarri suerta dakizkiguketelakoan: *Jon Miranderen Gutunak (1948-1972)* (Susa 1995); *Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minez, gutunak (1935-1967)* (Susa 2000), eta *Koldo Mitxelenaren Euskal Gutunak (1951-1984)* (*Bilduma* 18, Erreterria 2004).

Azken honetan *Koldo Mitxelena eta Matilde Martinez de Ilarduyari esker onez* eskainian, 236 gutun jaso ditut. Badakit askoz gehiago ere idatzi zituela euskaraz eta zer esanik ez gaztelaniaz, edota frantsesez. Eta bertako laburtze hitzetan honakoxea nioen:

*Lan honetan Koldo Mitxelenaren Opera Minora lirakeenetarik 236 gutun biltzen, aurkezten eta aztertzen dira. Gehienak argitaragabeak (Jose Maria Satrustegi moldiztegiratu gutxi batzuetaz at) eta Donostiako KM kulturuneko liburutegian hala nola Euskaltzaindikoan aurkituak. Bere tipitasunean, ordea, badute gutun hauek interes berezirik, alde ezkutu bat ezagutzeko, alegia, bai*

*zenbait kultura gertakizunen, bai zenbait libururen eta artikulu-poema-itzulpenen argitaratze aurreko gora beherak argi berriz ikus daitezkeela. Egan literatur aldizkariko zuzendari gisara zein nolako lanak burutu zituen, frankismoaren urte zail eta gogortsuenetan animatzaile eta bultzatzaile moduan, eta irakasle bezala zein era zehatz eta zorrotzean zeramatzan ikasgai, biltzar eta jardunaldiak. Halaber, eta besteak beste, zein irizpide taxuzkoz antolatu zuen euskararen batasunerako hain garrantzizko izan zen 1968ko Arantzazuko Biltzarra ikus dezakegu gutun hauen bitartez. Hizkuntzalari ez ezik, literatur kritikari, kultur eragile nekaezin eta idazle aparta agertzeaz gain, bidenabar gutunotan jakintsuaren irudia samurberago egiten zaigu.*

Hona bada gizonaren bi aldeak, alde baikorra eta ifrentzua. Alde batetik samurbera adiskideekin, umore onekoa, eta bestetik jenio bizikoa, errepuntua zeukana, agian osasun ezak eragina. Kritikoa, baina Jakobsonek zioen eran, Kongresuak eta Jardunaldiak zenbat eta eztabaida eta puntu ezberdinetarako talka leku handiagoak direnean orduan eta emankorrangoak dira. Erreterriako institutuan euskara irakasten izan zen nire adiskide Mikel Arregik dioen bezala, Koldo Mitxelenari egin diezaiokegun omenaldirik onena irakurtzea da.

# Rufina, muga ondoko aterpe

JON MAYA<sup>1</sup>

Rufina Mikelarena Ayoroa (1912-1958) gerra osteko miseriak ekarri zuen Erreenteriara. Nafarroako iparraldean bizi izan zen ordura arte. Lehenengo Elgorriagako sortetxean; Iruritan ondoren, Iruñeara neska joan eta Felipe Maya ezagututakoan hura senartzat hartu eta berriro ere Iruritarat itzuli zen.

Sorteritik gertu bizi zen bikotea, baina etxeko egoera ez zen eroso. Rufina-Felipe bikoteak hiru seme-alaba zituen (Jero, Martin eta Tomas), lanik ez, Gerra Zibila piztu berria... Langile berriak behar zirela-eta, Felipe Erreenteriako Jose Antonio Lasaren haroztegiari hasi zen lanean orduan. Hiru herrikiderek heldu zen Erreenteriara, eta apopilo bizi zen Madalen kalean.

Familia, bi urtez, Erreenteria eta Baztan artean gora eta behera aritu zen, 1939. urtean behin betiko Erreenterian erroak bota zituen arte. Hain zuzen, Rufina orduan finkatu zen Erreenterian, aurreko urteetan bisita ugari egin ostean. Lehenengo Martin Etxeberria kalean, Viteri kalean geroxeago eta, azkenik, Segundo Izpizua kalean egonkortu zen Mikelarena-Maya familia.

Urte haietan, etxeko egoera latza zen. Tomas eta Jero Maya, Rufinaren seme-alabek ez dute ahazten: “Egun askotan etxean ez zegoen jatekorik, gosea pasatzen genuen... Ahal zenean frutaren azalak jaten genituen, azokara joaten ginen bertako soberakinak jasotzera... Miseria zegoen”.

Rufina prestua zen oso, eta han-hemenka ziharduena lantxo baten, diru-iturri, baten bila. Erreenteria zein Donostiako etxe askotara joaten zen lanera, garbitzaile beti. Etxeak, atariak... “Miseria ordaintzen zioten” oroitzen dute bere seme-alabek: “Ahaldunak, orain bezala, premia egoera horretaz baliatzen ziren. Amak lan eskerga egiten zuen, ordu pilo bat, ezer gutxiren truke; lau sos ordaintzen zizkieten. Gu, aldiz, beti haren esperoan, irrikaz itxaroten genuen”.



Testuinguru horretan, 1948. urtean, Rufinak dei bat jaso zuen. Iruritako Martina bere amaginarrebaren lagun bat zen. Proposamena egin zion, “lantxo” bat eskainiz. Rufinari eskatu zion Espainiako lurralde ezberdinetatik heldu ziren iheslariei aterpe ematea eta muga igarotzen laguntzea.

Jero eta Tomas seme-alabek “lan” berriari buruzko informazio askorik ez zuten, baina etxean “mugimendu” bereziak oroitzen dituzte: “Lehenengo gutunak iristen ziren etxera, asko. Handik gutxira jendea iristen hasi zen”.

Rufina goizean goiz ateratzen zen etxetik. Lezo-Gaintzurizketako tren geltokira joan, eta bertan jasotzen zituen *bisitariak*. “Batuetan gizonetakoak bakarrik ziren, beste batuetan familia osoak”. Segundo Izpizuako lehenengo zenbaki

<sup>1</sup> Mariasun Landa sarien 6. edizioan aipamen berezia. Epaimahaia: Garazi Lopez de Etxezarreta, Leticia Bermejo, Aizpea Otaegi, Iñigo Imaz eta Eva Domingo.

	FOLIO <u>18</u> REGISTRO CIVIL DE PAG. <u>20</u> <u>Baztan</u>	
<b>MATRIMONIO</b>		<b>MONIO</b>
Celebrado el día <u>22</u> de <u>Diciembre</u> entre <u>Felipe Maya Goraya</u>		de mil novecientos <u>treinta y dos</u> y <u>Rufina Miquelarena Ayorea</u>
Nacido el día <u>19</u> de <u>Marzo</u> de <u>1902</u> en <u>Leizaroz</u> , provincia de <u>Navarra</u> hijo de <u>Miguel</u> y de <u>Martina</u> vecino de <u>Leizaroz</u> , provincia de <u>Navarra</u> calle o plaza de _____, núm. _____ Profesión <u>carpintero</u> Estado civil <u>soltero</u> (1) <u>Doventa</u>		Nacido el día <u>4</u> de <u>Enero</u> de <u>1910</u> en <u>Elgorriaga</u> , provincia de <u>Navarra</u> hija de <u>Martin</u> y de <u>Fulgencia</u> vecina de <u>Arurita</u> , provincia de <u>Navarra</u> calle o plaza de _____, núm. _____ Profesión <u>cos labores</u> Estado civil <u>soltera</u>
(1) Si hubiesen otorgado capitulaciones matrimoniales, se indicará la fecha de la escritura, lugar del otorgamiento y nombre del Notario autorizante. Caso contrario, se hará constar que no se otorgaron capitulaciones matrimoniales.		EL ENCARGADO DEL REGISTRO, 
- 2 -		- 3 -

horretan egun bat edo bi egiten zituzten. Ondoren, Rufinak Iruritara zihoan lurrunezko trenean Baztanera laguntzen zituen. Bertan, amaitzen zen bere lana.

Rufinaren *bisitariak* Espainiako lurralde ezberdinetakoak eta Portugalgoak ziren. Haien etorreraren arrazoia ez zuten ezagutzen etxean. Baina, Josu Txueka historialariaren esanetan, motibo horiek anitzak izan ohi ziren: "Normalki sare hauek antolatuak ziren, eta erabilpen ezberdinak ematen zitzaizkien. Batzuetan erabilpena politikoa zen, frankismotik ihesi zihoazenei laguntza emateko. Baina antolamendu hori kontrabandorako ere erabiltzen zen, edota legez kanpo herrialde batean sartu nahi zutenei zerbitzua emateko".

Hala, Tomasek gogoratzen du nola Portugaldik, Salamankatik, Zamoratik... iristen ziren *bisitariak* etxera. Frankismotik ihesi zihoaztenak, Frantzia edo beste herrialdeetan lan eta etorkizun hobia bilatzen zutenak. Josu Txuekak dioen moduan, "gaur egungo etorkinen kasu bera da, antolakuntza formatu xumeago batekin"

Rufinak diskrezio osoz betetzen zuen lana. Baina *bisitariak* batzuetan agerian geratzen ziren; auzoan susmoak hasi ziren. Jerok oroitzen du: "Gu lagunekin kalean jolasten geundela, lehiora edo balkoira ateratzen ziren. Jendeak gure etxean zeuden horiek nor ziren galdetzen zigun, eta gu beti ixilik".

Bi urtetan jardun zuen Rufinak lan horretan, nonbait salatua izan zen arte. «Lehenengo udaltzaina etorri zen etxera gutun batekin. Deklaratzera joan zen. Baina hurrengo txandan Guardia Zibila etorri zen, gauez, eta ama atxilotuta eraman zuten». Irungo polizia etxean giltzapetu zuten. Oso bortitza izan zen bertan bizi izan zuena. Meliton Manzanas polizia komisarioa buru zela tortura izugarriak jasari zituen. Kolpeak, indarkeriaz beteriko galdeketa gogorrak... Bertatik leher eginda atera zen, hiruzpalau egun beranduago. Martutenen sartu zuten preso. Sei hilabete egin zituen giltzapean.

Bertatik irtendakoan ama izan zen berriro. 1951. urteko irailean Juantxo seme gazteena jaio zen. Pozak gutxi iraun zuen, ordea. Gaixotu egin zen; bularreran konkorr bat atera zitzaion. Minbizia zuen. Medikuek sendagaia eman zion, eta itzultzeko esan. Baina Rufinak ez zion inoiz lan egiteari utzi. Odol isuriek ere ez zuten etenik egiten. Azkenean, gaixotasunak Rufinaren kemena gaudituz zuen. 46 urte zituela hil zen. Irakurtzen eta idazten ez zekien; soilik sinadura egiten ikasi zuen espetxean. Baina kabi goxo eta sendo bat eraikitzen ederki jakin zuen. Iheslari askoren laguntzaile izan zen, Segundo Izpizua kalea haien gotorleku bihurtu zuen, eta bertan familiaren haziak landatu zituen. Horren fruitu izan dira gero Marixabel, Begoña, Jon, Alain, Asier, Beñat, Mairi, Xalbat, Aide...

# Hermógenes Balzola

## Juez Municipal

ESTEBAN LOS SANTOS

En el año 1871 comenzaron a funcionar los registros civiles, por lo que en los libros de las tres secciones del nuestro —nacimientos, matrimonios y defunciones— se empezaron a asentar las inscripciones de los acontecimientos principales de la vida de las personas ocurridos en la villa. Desde ese momento estos libros, entre otras cosas, se convirtieron en depositarios de información muy interesante para quienes hemos venido detrás. No solamente solemos acudir al registro para solicitar una “fe de vida” o ejercer de testigo en la celebración de un matrimonio, por poner dos ejemplos, sino que es probable que en alguna ocasión algún trámite de carácter legal, o simplemente la curiosidad, nos ha movido a obtener información de algún antepasado.

Las inscripciones registrales más antiguas frecuentemente recogían datos que no encontramos en las actuales. En una de nacimiento era normal que se indicaran, además de la población de nacimiento de la madre y el padre, las correspondientes a la generación anterior y no era difícil que se anotara el nombre del caserío de nacimiento del abuelo o la abuela, la forma en que él o ella se

ganaba el pan, etc. Aquí quiero llamar la atención al hecho de que, habiéndose estrenado los libros del registro en 1871, podemos encontrar en ellos información de realidades que se remontan al inicio del siglo XIX.


En sentido contrario, hay que decir que en las épocas más antiguas no pocas de las personas que facilitaban en el registro los datos principales de una inscripción no sabrían leer ni escribir, por lo que el amanuense de turno se vería obligado a reflejar por escrito la información verbal recibida, con el riesgo de que, incluso tratándose de hermanos, por ejemplo, el apellido no coincidiera en inscripciones distintas.

Una particularidad de nuestro registro civil es que el momento de su iniciación coincidió con la presencia en la población de extranjeros que habían llegado atraídos por su desarrollo industrial. Naturalmente, el registro puede servir para que quien realice algún trabajo de carácter histórico, y en particular relacionado con la existencia de población foránea en la villa, complete la información obtenida en los padrones municipales o en otras fuentes. Aquí también hay que tener especial cuidado con la forma en la que encontramos escritos los nombres y apellidos. Entre las cosas interesantes o sencillamente curiosas encontradas en los libros ejerciendo durante doce años como juez de paz, recuerdo una inscripción en la que, dentro de la misma página, el apellido se encontraba escrito en tres formas distintas. Pero en justicia, y a favor de quien tuvo que escribirlo, puedo decir que se trataba de un conglomerado de bastantes consonantes y unas pocas vocales.

Durante muchos años, para consultar una inscripción fue necesario manejar el libro en el que fue asentada. Desde que todo el contenido de los libros fue escaneado, hoy







puede solicitarse una copia de cualquier documento sin que el original corra el riesgo de resultar deteriorado.

El juez municipal que en 1871 figura en los primeros asientos registrales es Hermógenes Balzola. Nacido en Irún en 1842, era hijo de Policarpo Balzola, escribano, perito agrimensor, secretario del Ayuntamiento de Irún, colaborador de la Diputación de Guipúzcoa en la implantación del sistema métrico decimal, muy conocido por sus conocimientos matemáticos y por sus inventos, entre los que aquí citaré, a modo de ejemplo, el de una máquina automática de realizar operaciones aritméticas. Hermógenes, que sin duda encontró en la familia un ambiente propicio para el estudio, obtuvo el título de ingeniero industrial.

En la *Historia de Rentería* publicada por el ayuntamiento en 1996, el historiador Miguel Ángel Barcenilla dice que *estuvo relacionado con nuestra villa por hallarse emparentado con los Gamón y asociado a ellos en su fábrica de lino*, empresa que fue fundada en 1858 con el nombre de Gamón Hermanos. Añade que perteneció al cuerpo de Voluntarios de la Libertad de la villa, en el que en 1869 fue nombrado sargento primero, informaciones que también se encuentran en un artículo

de la historiadora María Teresa Gabarain publicado en *Oarso* nº21, (1986).

Antes de que ejerciera de juez municipal, su nombre aparece entre los cerca de ciento cincuenta ingenieros industriales firmantes de la *Memoria sobre las causas del atraso de la industria española e indicación de las medidas para hacerlas desaparecer*, trabajo que salió de la imprenta en 1869. Me atrevo a recomendar su lectura a quien quiera profundizar en el conocimiento de Balzola pues podrá conocer mejor con qué ideas sintonizaba.

El matrimonio formado por Josefa Echevarne, natural de Puerto Rico, y Hermógenes Balzola vivió con sus hijos Valeriano y Antonio en el número veintisiete de la calle Sanchoenea. Al fallecer en 1879 Policarpo Balzola, Hermógenes sucedió a su padre en el cargo de secretario del Ayuntamiento de Irún. Falleció en 1917.

Seguramente existirán otros aspectos de interés relativos a la personalidad de quien ocupó en la villa el puesto de juez municipal encargado del registro civil en un momento tan especial como fue el comienzo de la actividad de éste. Pero espero que con lo escrito por lo menos habré ayudado en alguna medida a que el nombre de Hermógenes Balzola no caiga entre nosotros en el olvido.

# Elkarbizitzaren ibilbidean

## Jaioko dira berriak

MIKEL UGALDE

Gure Errenteriaren ibilbidean geroz eta nabarmenago sumatzen dugu herri bizia garela. Herri honek badu bihotza, badu argia, badu lanerako gogoia, badu herri bezala aurrera egiteko indarra. Bere aniztasuna aberasgarri gertatzen ari zaigu. Harritzekoa ere bada zenbat eta zeinen alor desberdinetako ekitaldiak, eta zeinen arrakastatsuak, antolatzen diren urtean zehar. Gu geu ohitu samartuak gauden arren, kanpotik hurbiltzen zaizkigunek aho batez goraiatzen dute gure herri honen izaera berezia. Hau guztia nabarmena denez, ez dugu aipamen luzamenduetan ibili beharrik.

Hemen dioguna ez da gaurko edota oraingo kontua. Iraganean ere alor politiko, sozial eta kulturalen biziki ahalegindu izan zen herria da gurea.

### Aurrera begira

Iragan kontuak joan ziren eta egungoa bizi dugu geroari eta etorkizunari begira. Egia da gure herri honen bizitzan era askotako gertaerak bizi izan

ditugula eta, zenbaitetan, ez direla guztiak gozoak izan.

Kontua da ezagunak zaizkigun arrazoiengatik, behin baino gehiagotan herritarron arteko harremanak artesitu, bihurritu, mingostu izan zaizkigula elkarbizitza bera ere astintzeraino. Herri bizia gara bai, baina gure artekoa ez da guztia urre gorria izan.

Zorionez, iraganean eginiko akatsak zuzendu eta egoerak aldatzeko, normalizatzeko, elkargu-neak lantzeko, elkarrekin aurrera egiteko gogoia indartzen doakigula sumatzen dugu. Gertatuak gertatu, aurrera begira jartzea ezinbestekoa dugu. Eta horregatik. hain zuzen, aintzat hartzekoa da herritar talde batek elkarbizitza gogoan, eginiko ahalegina.

### Elkarrizketarako ekimena

Apirilaren amaieran zabaldu eta ezagutarazitako agiriak biltzen du egokien ekimen honen non-



ARGAZKIAK: IKERNE ZARATE (OARSO BIDASOKO HITZA).

“Ekimenean esku hartu duten kideak”

"Santoñako traizioa" deitu izan den jazoera dela eta, hainbat eta hainbat euskaldunekin batera, faxistek *Lurgorri* atzeman zuten eta Duesoko presondegira sartu zuten. 1937ko irailaren 27an epaitu zuten. Azaroaren 28an, Senra zeritzan itsasontzian Bilbora eramane zuten. Eta handik Larrinagako kartzelara: 53 zenbakiko ziegara sartu zuten. Derioko kanposantuko ormaren kontra fusilatu zuten Jose Mari Azkarraga 1937ko abenduaren 16ko egunsentian. Erregistro Zibileko (Hirugarren Ataleko) 23 liburuan, 262-476 orrialdean, egun hartako ziurtagiria irakur daiteke: "Falleció".

Hil aurreko orduetan Azkarraga abertzaleak bere ziegatik idatzitako eskutitzak ditugu testigantzarik adierazgarriena gazte hark bizi izan eta amesten zuenaren gainean. Guraso eta arrebei, Emiliano anaiari, amaren aldeko osaba-izebei eta Juan Ajuriaguerra EAJko buruzagiari zuzendutakoetan, pertsona ausart, zintzo, eskuzabal eta maitagarriaren mezuak irakurtzen dira. Abertzale- letasun eta euskaltzale- letasuna izan zituen helburu Jose Mari gazteak bere bizitza-ibilbidean. Horregatik erail zuten.

Jose Mari Azkarraga Mozo *Lurgorri*, Franco jeneralaren agindupean altxatutako uhin faxistak hil zuen. Etika politikoak eraginda justiziaren al-

<sup>3</sup> "Lagercrantz" (Euzkadi/1935-02-28)

deko ideiak defendatu zituen gazteari Derioko hilerrian itzali zioten bizia. Bertako horma grisak abertzale euskaltzalearen odolaz tindatu ziren abenduaren 16 hotz ilunean. Euskal Herriaren ametsa, berriz, hamarkadetarako belztu zen.

Sarraski hartatik hamarkada luzeak igaro diren arren, eraile haien ondorengoetako inork ez du krimenarengatik urrikalpena erakutsi. Gertatu izan ez balitz bezala. Areago, faxista haien kumeen kumeak Historiari buruzko irakurketa kolpista berri batean justifikatzen ari dira altxamendua eta haren ondorio latzak. Memoria historikoa arbuiatzen dute, ariketa ziniko lotsagarrian.

Baina Jose Mari Azkarraga Mozorenaren gisako kasuak ditugu giza duintasunaren sendotasunean sinesten laguntzen digutenak. Euren herriaren askatasunarengatik eman zuten nork eduki dezakeen ondarrerik baliotsuena: bizia. Eta ohore hori ez die inongo faxismok lapurtuko.

Oharra:

Jose Mari Azkarraga *Lurgorri*ri buruz gehiago jakiteko:

<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/lurgorri/00005095.pdf>

*Y CUANDO LEJOS DE TI.  
YA DE MI SE OLVIDE EL MUNDO,  
CUANDO NADIE SEPA YA  
QUE DE ESOS VALLES ORIUNDO  
SOY Y EN ELLOS NACÍ,  
MI CORAZON TE AMARÁ.*

José M<sup>a</sup> Azkarraga  
"LURGORRI"

**UNIVERSIDAD VASCA  
HOMENAJE**  
a  
**JOSE MARIA AZKARRAGA «LURGORRI»**  
PRESIDENTE DE EUSKO IKASLE BATZA  
FUSILADO EL 16 DE DICIEMBRE DE 1937.  
\*  
ACTO CULTURAL CON LA INTERVENCION DE:  
\* FELIPE LIZASO  
\* KOLDO MITXELENA  
\* JOSE ANGEL CUERDA

EAJ PNV

DIA 16 DE DICIEMBRE 1977  
HORA: 8 TARDE  
LUGAR: CINE IRADIER  
(PRUDENCIO MARIA BERASTEGUI N.º 12)

Omenaldia Lurgorri heriotzaren 40. urteurrenean





Homofobiaren Aurkako Zebraidea 2015.

JUAN QUIROGA - EHGAM

# Euskalgintza berritzen - II

IMANOL MINER ARISTIZABAL

Demagun inoren erreakzioei begira egon gabe iazko idazlanean abiatutako bideari segida ematea erabaki dudala, ulertzen baitut, hobetsi beharreko norabidearen erakusle eta gidari ere badirela herriko euskalgintzetan, une honetan bertan, goizeroko kafesne-zopetan aurki ditzakegun psikolastoak, ika-mikak eta isiluneak, nabarmentasunak eta elipsiak, maitaldi suharrak, ezin ikusiak eta gainerako debozioak, bizi dugun momentuaren adierazle diren neurrian. Batzuetan badirudi ahaztu egin zaigula nondik gatozen, eta ondorioz, sinistu egiten dugu gauzak orain ezagutzen ditugun bezalakoak izan direla beti, bai orainaldian eta baita etorkizunean ere horrela izan daitezen bermatzeraino. Bada ez. Garaiak aldatu direnez, aldatu beharra dago ezinbestean, bakoitzak bere abiaduran, elkarri enbarazu egin gabe.

Izan ere, Euskaltzaleen Topaguneak urtarrilean Durangon antolatutako XIII. Topaldia jardunaldian, Imanol Larrañagak, Elgoibarko Izarra euskaltzaleen topaguneko kideak eta behinolako Adorez eta Atseginez mintegiko partaide izandakoak, euskaldunak batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa ote den galderatik abiatuta, gogoetarako proposamen gisa hurrengo gaia mahaigaineratu zuen: euskara

elkarteez gizarteko bestelako gaietan busti eta gainontzeko herri mugimenduekin lankidetzan jardun behar al dute? Informazio gehiago nahi duenak, Topaldiaren webguneko ponentzia eta bideoetara jo dezake, baita 2016/04/10eko *Argia* astekariaren 2.502 alean, Onintza Irureta kazetariak egindako elkarrizketara ere. Ez da nolana hiko galdera, eta bera ere ez da edonor, beteroetan beteroena izaki, bere herriko euskaltzaleen topaguneko eragile lanetan 25 urte baino gehiago eginda.

Elgoibarko Izarrako bidegileak partekatutako galderek erakusten digute herri, auzo, lantoki eta bazter ugaritako euskaltzaleen topaguneak aurrera egiteko zein arrastoren atzetik gabiltzan; Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaritzako kideentzat ere gaia ez da arrotza, gainerako euskalgintzetan ez den bezalaxe, esate baterako, *Argia* astekariaren ildo editorialak egindako apustuari begiratu bestela. Gurean, iazko idazlanean aurreratu bezala, azken hiru urteotan, Saretuz proiektua, galdera bertsuen bueltan erantzunak esperimentatzen hasita dago, eta uste dut huts egiteko arriskurik gabe esan dezakegula posible dela demostratzen ari dela eta gainera emaitza onak ematen dituela. Oraindik erantzun baino galdera gehiago ditudan



Ikastolaren lidergoa herriko euskalgintzan (<http://ikastolareneguna.blogspot.com.es/>)

arren, susmoa dut horrelako esperimentuak, herriko euskalgintzentzat arnasbidea izateaz gain, Lau Haizetara bezalako euskaltzaleen topaguneen I+G+B (Ikerketa + Garapena + Berrikuntza) ere izan daitezkeela, ezagutzen ari garen oztopoak gainditu eta txukun xamar kudeatzen asmatuz gero behintzat.

Kontua da herrian bertan ditugun gainerako euskalgintzetako kideekin, eta herrigintzetakoe-kin, galderak zergatik ez ditugun partekatzen oraindik, halaber bizipenak, kezkek, erronkak eta buruhausteak. Azken urteetan bakoitza bere zilborrari begira bizi izanak begi-bistako kalteak eragin dizkigula esateko moduan gaude jada. Horregatik aurtengo Orereta ikastolaren batzarrean esanda geratu da ez dela posible finantzetan sendo eta ekonomikoki bideragarri diharduen ikastola *metrosexualaren* ondoan Lau Haizetara *ihartuta* egotea batetik, eta bestetik, ikastolan ere ikasleak eguneroko bizitzan euskaraz bizi ahal izateko beharrezko lanabesik gabe *desarmatuta* ateratzen ari direla oraindik ere; bi ebidentzia hauek, ikastola sortu zutenen ikuspegi eta helburuekiko egoki jokatzeko ari ote garen galderaren aurrean jartzen baikaituzte. Horregatik, beharbada, hasita daude ikastolan izpi berriekin euskalgintzaren

gaiari argi egiten, barruko eta inguruko eragileen laguntzaz, praktika onen bidetik, portaera eredu-garriak sustatzen eta hizkuntza erabilera prozedurak zehazten, esate baterako.

Orereta/Errenteria bezalako herri batean euskara biziberritzeko erantzukizunak partekatuta izan behar duela erakutsi digute azken hamarkadek, eguneroko behaketan eta erakundeen estatistikaren emaitzetan. Orereta ikastola bera aitzindari gisa, eta geroztik euskarazko irakaskuntzan batu zaizkion ikastetxe guztiak elkarrekin jardunda ere, ez dira nahikoa herria euskalduntzeko, gainerako euskalgintzak esparruka isolatuta nahikoak ez diren bezalaxe. Hezkuntza komunitateek bere egitasmoa osatu ahal izateko, beraz, gainerako euskalgintzen beharra dute eta alderantziz.

Gurea bezalako herri batean euskaltzaleon topagune behar lukeen Lau Haizetararekin gertatzen ari dena ondorio zuzena ari da izaten, esate baterako, haur edo gazte batek ikastetxetik atera eta kalean topatuko dituen aisialdi, kirol, kultura eta hedabide eskaintzari eta hizkuntza batean edo bestean baliatzeari dagokionean bere hizkuntza sozializazioan zuzen-zuzenean eraginez: zenbat eta espazio/aukera gutxiago euskaraz, orduan eta erabilera apalagoa, eta ondorioz, orduan eta



Euskalgintzetako kideak elkarlanean, Errigora 2016. (Esther Boticario-Saretuz).

hizkuntza gaitasun mugatuagoa. Modu berean eragiten ari zaio euskalduntze esparruari, euskara ikasle bat euskaltegiko klaseetatik atera eta ka-lean, bere egunerokoan topatuko dituen zerbitzu, eskaintza, hedabide, lagunarte eta topaguneei dagokienez. Eta okerreana dena, norabide berean ari da eragiten adin guztietako herritarrongan, hiztun garen neurrian, euskara jakin edo ez, euskarazko kultur transmisioari, ikuspegiei, bizipenei eta bizimoduari berari dagokionez.

Orereta/Errenterian, elkarbizitzaren gainean hausnarrean hasita gauden honetan, euskaraz bizitzeko autodeterminatu garenok euskaraz sanoki biziko bagara, eta gainerakoekin etorkizuneko elkarbizitza euskaraz (batez) ere bideratuko badugu, zerbait berria pentsatzen hasi beharrean gaude, gaurtik bertatik, orain arteko formulek nora eramán gaituzten agerikoa baita. Gure zilborretik burua altxa eta guk baino hobeto egin dutenengandik ikasteko, 2016/05/29ko *Argia* astekariaren 2.509alean, “Ederki izerdituta lortutako miraria” izenburuarekin Onintza Iruretak Lasarte-Oriako kasuari buruz egindako erreportajeak pista dezente ematen dizkigu, besteak beste, gure ezinen aterabidea herrian bertan daukagula jabetzen hasteko, esate baterako.

Herri bateko hizkuntzen erabileraren normalizazioan, eta beraz, hizkuntzen eta hiztunen elkarbizitzan aurrerabidea egiteko, J.M. Sánchez Carrión, *Txepetx* hololinguistaren arabera, lehenago beste oinarrizko lengoia bat normalizatu behar izaten da, eta gure euskalgintzetan, bestea aitortzea eta denok kabitu behar dugula ulertzea, oraindik zintzilik ditugun ikasgaiak dira. Norberak egiten ari(tu) denaren ardura hartzea tokatzen da, eta behinola aktibatutako iraganeko portaera patroiak desaktibatzea ere bai, nola erakunde mailan, hala norbanako mailan ere, gizalegea eta jendartekotasuna gure jardunaren muinera ekartzeko, biktimismoa gainditzeko, aniztasuna kudeatzeko eta garen honetatik burua jaso, memoriak osatu eta etorkizunari aurrez aurre begiratzen hasi ahal izateko.

Euskalgintza desberdinen artean etorkizuneko elkarlanak eta sinergiak abiatzeko ahaleginean elkarrenganako arduraz jokatzeko eta iraganeko akatsak ez errepikatzeko, egiten duenaren ardura hartu eta bere jarduna etengabe berrikusten duen mugimendu bezala abiatu behar izan du Saretuz proiektuak. Hizkuntzen gainean eta hiztunen buruetan azken hamarkadetan eratu diren gezurrak elikatzea saihestuz, egia, justizia eta errepara-



Sardexka Izan...: irudi zirikatzailea (Sareuz proiektua).

zioaren bidetik, betaurreko/software berrien lantuntzaz, duintasuna berreskuratuz, hiztunen eta hiztun taldeen memoriak osatzen ahalegintzen ari da, askotariko euskalgintzekin lankidetzara osagarrian, elkarbizitzari eta bizitzaren garapenari ekarpena eginez. Inguruko hiztunekin, hizkuntza komunitateekin eta hizkuntzekin harremanetan bizitzea merezi izango duen eta elikagarri izango den mugimendu experimental gisa, euskalgintzak herrigintzaren muinean behinola galdutako lekua berreskuratuzeko xedez dihardu.

Eta honen guztiaren erdian, zertan dihardut nik? Zein rol ari naiz jokatzen eta zer ari naiz elikatzen? Eta batez ere, zer da egiazki eta zehazki nahi dudana? Horra euskalgintza berriak abiatzeko, edota zaharrak berri eta eraldatzeko galdera nuklearrak, edo nahiago baduzue, etengabe berri-tzen ari den martxa baten lehen notak.



Ereintza Dantza Taldeko mutilak *Makil Handi* dantzatzen Betelun.

# Ereintza Dantza Taldea

## 2015 eta 2016 urteetan

### ANDER OIARBIDE

Urtero legez, azken urte honetan ere Ereintza dantza taldean oinak astinduz aritu gara, bai herrian baita beste udalerrri batzuetan ere. Ezkontzak, ikuskizunak, ekintza kulturalak... Jakina da ez dugula aitzakia handirik behar dantzaz jartzeko, eta horrexegatik hemen duzue 2015-2016 bitartean egin ditugun dantzaldien laburpen bat:

**2015eko maiatza:** maiatzaren 9an Erreterian ospatu zen lehen Musikaldia jaialdian parte hartu genuen, aipagarria da arratsaldean Landarbaso abesbatzarekin batera dantzatu genuela *Donostia-ko hiru damatxo* kantaren bertsioa.

**2015eko ekaina:** Ekainaren 6an Gure Esku Dago egitasmoaren barnean joste egunean parte

hartu genuen *Iruten ari nuzu* kanta dantzatu. Bi aste geroago, 21ean hain zuzen ere, Anoetan egin zen ekitaldian egon ginen.

- San Juan Bezpera: Ereintza dantza taldeko dantzari guztiok dugu egun hau egutegian markatua. Urtero bezala, soka Udaletxearen arkupeetatik atera zen urteko egunik luzeenari amaiera ederra emateko asmoz. Alkateak eta Alain Mayak bidea ireki zuten eta lehenengo aldiz Erreteriarren historian, neska atzeskulari bat izan genuen, Nagore Indakoetxea, alajaina.

Ekainari agur esateko 28an Betelun izan ginen gogotsu herriaren aurrean emanaldi bat eskaintzeko.



Ereintza Dantza taldea Atlantikaldian.

### 2015eko uztaila:

- Salou: Esaera batek dio ohitura onak ez lira-tekeela inoiz galdu behar, horregatik urtero egin ohi dugun bezala, Salouen igaro genuen uztaileko lehenengo astea; Salouko Euskadiren eguna ospatzeko eta bertan parte hartzeko asmoz.

Saloutik bueltatu ginen, baina deskantsatzeko ia astirik gabe: gure taldeko neska batzuk Kukai dantza taldearen *Kukaikaxa* lanaren estreinaldian dantzan aritu ziren.

Madalenak ia gainean genituela urtero bezala ez genuen hutsik egin Erromeria egunean, uztailearen 18an. Dena dela, aurreko egunean Madalenetako omenduek (Hibaika arraun taldeko kideak) guk ere arraun egiten bagenekiela ikusi zuten, bada bateleren zortzikoa dantzatu genien.

Madalenen barnean ere ezin ahaztu 22 eta 25 egunetako prozesioan amabirjinari eskaini genion ezpata-dantza. Uztaileari amaiera emateko, eta abuztuan hartu genuen deskantsuaren aurretik, Loiolan ikuskizuna eskaini genuen.

**2015eko iraila:** Pilak inoiz baino kargatuago genituen entseguetara bueltatu ginenean, hasi eta berehala, 17an, Atlantikaldiaren bigarren edizioa etorri zitzaigun gainera, bertan Nafarroa Behereko dantzak egin eta Kukaikaxan parte hartu genuen berriro ere Kukai Konpainiarekin batera. Igandean Andra Mari abesbatzarekin batera amaiera eman genion jaialdiari.

**2015eko urria:** Urriaren lehen asteburuan Iurretan izan ginen bertako taldearekin batera

San Migel jaiak ospatzeko gogoz. Aste-bukaera horretan bertan gure dantza taldeko dantzari diren Beñat Salegi eta Luis Garciak Euskal Herriko Aurreku txapelketan parte hartu zuten; gainera, Beñatek hirugarren postuan sailkatzea lortu zuen. Bi aste geroago Idoia Besada estreinakoz aritu zen Euskal Herriko Dantza Solte txapelketan bere bikote den Xabi Artolarekin batera, eta hori aski ez dela, bigarren postuan sailkatzea lortu zuten.

**2015eko azaroa:** Azaroaren bigarren astean Extremadurako astea ospatu zen eta bertan gure parte hartze aktiboa izan zen, inaugurazio ekitaldian dantzatu baikenuen. Ondorengo egunetan ere hainbat emanaldi izan genituen.

**2015eko abendua:** Santo Tomas eguna Errenterian oso egun berezia izaten da, txistorra postuak, animaliak, azoka... Herriak urte batzuk atzera egiten du eta baserritarrak baserrietatik herrira jaitsi bailiran, txapelek, blusek eta soinekoek Errenteria xarma berezi batez janzten dute. Ereintza dantza taldeak ere bere aletxoak jarri zuen txistorra eta taloen postua jarrita.

**2016ko otsaila:** Aurten inauteriak goiz etorri zaizkigu, eta horregatik urte berriari hasiera eman eta berehala gure moztarok prestatuta genituen.

- Azeri dantza: Errenterian jada tradizio bihurtu den ekitaldian Ereintzako sasi-mutil eta sasi-neska guztiok ohiko kalejira luzea martxan jarri genuen. Taldeko dantzariok eta festara apuntatu ziren bikoteek gure alde ganberroena aterata inauteriei hasiera ezin hobea eman genien.



EREINTZA DANTZA TALDEA

Ereintza Dantza Taldea Azeri dantzan.

Otsailari hasiera ona eman bagenion ere, ezin izan genituen nahi bezala agurtu inauteriak, ezen eguraldi txarrak sardinaren ehorzketa bertan behera uztera behartu baitzuen.

**2016ko apirila:** Udaberriaren etorrerarekin batera, urtero bezala Hernanin ospatzen den Dantzari egunean izan ginen Euskal Herriko beste talde askorekin batera; aurtengoa XXI. edizioa izan zen.

Apirilaren 21ean ETB 1en Aiko taldeak grabatutako Jotamentala proiektua telebistan estreinatu zen, non gure taldeak bere ekarpena egin zuen, preseski Sabin Bikandiren eskutik jasotako klasean eta gure taldeak dokumentalerako espresuki grabatu zuen fandangoan.

Apirilaren azkeneko asteburuan, 30ean, hain zuzen ere, Errenteriako Sagardo eguna ospatu zen eta egunari jai-giroan hasiera ematearren, Foru plazan Sagar dantza egin genuen.

Horrenbestez, atzera pixka bat begiratu ostean, ikusi duzue urte aktiboa izan dugula Ereintza dantza taldean, baina betiko poztasunarekin eta gogotsu egin dugu emanaldi, dantza eta emandako urrats bakoitza. Orain, aurrera begiratzuz eta uda datorrela eta, ekitaldi eta ikuskizun ugari datozkigu gainera, San Juan bezpera, Salou, Erromeria Eguna... eta, ohi bezala, ez dugu hutsik egingo. Gainera abuztuan Txekiar Errepublikara bidaia egingo dugu, gure kultura eta dantza bertara erroteko asmoz, baina hori beste egun batean kontatzeko kontua izango da...



EREINTZA DANTZA TALDEA

Ereintza Dantza Taldea Hernaniko XXI. Dantzari Egunean.

# Ipurtargi

## El señor de la noche

ION ARRETXE

—Seguro que lo conoces —dijo Lorena—. Aunque parezca más joven que tú, debéis tener una edad parecida. Si lo has visto una sola vez, ya no lo olvidas.

La primera vez que oí hablar de Ipurtargi fue a Lorena; lo dijo con estas mismas palabras o con otras muy parecidas.

Debo reconocer que me molestó un poco su comentario sobre la edad y las apariencias, pero no le dije nada. Lorena tenía esas cosas, al menos conmigo; tal vez era una de sus mil argucias para protegerse de mí. Sospechosamente, yo me había convertido en poco tiempo en el parroquiano que más frecuentaba su bar, que aunque se llamaba Bar Mesón Bellas Montañas de Gipuzkoa —y así lo certificaba un largo cartel sobre la fachada— todos los vecinos de Beraun lo conocíamos como el Lorena's Bar.

Desde que murieron mis tías y regresé al apartamento de la calle Maurice Ravel, donde me crié con ellas tras la dramática desaparición de mis padres en una expedición a la cara sur del San Donato, adopté la costumbre de bajar casi a diario a comer en aquel garito.

Ofertaban un menú del día que cocinaba con bastante arte y mucho esmero su simpática madre, la señora Alsacia, una enigmática mujerona nacida en Cintruénigo, aunque de madre alemana y padre francés. Era un menú bastante variado —hacía honor a los gustos cosmopolitas de la cocinera—, muy bien condimentado y a un precio más que razonable. Y en cualquier caso, yo lo prefería a tener que comprar y cocinar cada día; cosa que evitaba a toda costa para conjurar lo mejor que podía la obligada soledad con la que me había tocado afrontar el último tramo de mi consumida vida.

Jubilado prematuramente, y apartado de la vida social antes de lo que a mí me hubiera gustado, había decidido invertir los últimos meses que me quedaban de vida en escribir artículos para la re-

vista *Oarso*. Artículos que enviaría después a mi editor y viejo amigo D.P.M. para que, una vez yo hubiera muerto, los fuera entregando regularmente en la redacción de la revista, al ritmo de uno cada año, y de esta manera, al menos así lo creía yo, nadie notara mi ausencia.

—Ipurtargi, luciérnaga —le dije sin más.

—Le llaman así porque sólo sale por las noches —me respondió Lorena.

—Ya.

—Y porque lleva una luz.

—¿En el culo?

—No, en la frente.

Además de la esquivada simpatía de la guapísima Lorena, a cuyos encantos yo no estaba dispuesto a renunciar, y del buen yantar al que ya me he referido, otra de las cosas que me atraían de aquel bareto, y me invitaba a pasar las horas muertas en él, era un puzzle de tamaño descomunal que ocupaba casi por entero una de las paredes del local, la pared que quedaba a la derecha de la entrada, frente al ventanal. Debía estar formado por más de 30.000 piezas, y representaba el mural que Don Valeriano Leceta pintó con tanta paciencia como maestría en la sala capitular del Ayuntamiento de Errenteria.

A decir verdad, era el único puzzle del que yo tuviera noticia que superaba en tamaño a la obra original; y eso que, en este caso, la obra original era un fresco de dimensiones gigantescas.

Me encantaba perderme en cada pormenor de aquella imagen, recorriendo pieza a pieza los detalles de la magnífica composición. Empezaba por la marcada anatomía de los fornidos portadores del escudo de la villa, que destacaban por encima de los otros personajes; seguía por la hierática estampa de los frailes, con sus calvas antiguas y sus ojos velados por el estudio de las miniaturas y la mansedumbre; estudiaba después los rostros sonrosados de las mujeres, que parecían tallados en alguna madera noble





JON ARRETXE

y dócil; me entretenía, cómo no, en el grotesco trazado de los tocados femeninos, tan carnales como inverosímiles; mi vista se recreaba en las numerosas aristas de las peñas de Aya, y en la sobria geometría de los bloques de cemento del extremo opuesto del cuadro, donde el futuro proyectado era ya una antigualla; y así, pieza a pieza, personaje a personaje, recorría cada tarde siglos y siglos de historia sin moverme siquiera del bar.

A veces, para contemplar según qué detalles, me tenía que subir a una silla. Y hubo alguna ocasión en que, debido a lo inaccesible de las piezas más extremas del gigantesco puzzle, y aprovechando que Alsacia y Lorena estaban ocupadas y distraídas en sus quehaceres, me subí encima del fútbol.

Según me contó Lorena, el puzzle ya estaba ahí cuando les traspasaron el bar y, aunque le faltaba una pieza, decidieron conservarlo.

—¿Le falta una pieza? —pregunté, mientras examinaba con atención el enorme cuadro.

—Sí. Justo encima del remo. Entre la punta de la pala y el cero de 1320, ¿la ves?

—¿Cómo quieres que la vea, si falta?

—¿(...)?

—Era una broma.

Efectivamente. En la parte superior de la imagen, casi en el centro de la composición, en la franja comprendida entre la leyenda “Villanueva de Oiarso 1320” y las Peñas de Aya, a la derecha de la pala del remo que sujeta un *arrantzale* vestido de verde aguamarina que está de espaldas, faltaba una pieza de color dorado. En su lugar había un hueco de forma lobulada, como suelen ser las piezas de los puzzles; un pequeño vacío irregular con tres entrantes en los lados contiguos y un saliente en el lado superior.

A finales de junio, como los dolores de mi innombrable enfermedad no me permitían conciliar

el sueño, decidí liarme un cigarrillo con la marihuana que me había recetado la doctora y salir a fumar tranquilamente por las calles del barrio. Por respeto a mis difuntas tías, cuya presencia se materializaba ante mí en cada tapete de ganchillo de los cientos que adornaban el apartamento, y aún siendo por estricta prescripción médica, he de reconocer que me sentía incapaz de narcotizarme entre las paredes de la que había sido su decentísima casa.

Así que, aprovechando que hacía muy buena noche y las calles de Beraun invitaban al paseo, salí del edificio, envuelto en una nube de humo denso y dulzón. Me dejé llevar por el sinuoso trazado de la calle Norberto Almandoz y, antes de darme cuenta, ya estaba bajando hacia Pontika por la empinada cuesta.

Desde el pequeño bosque que me separaba de la silenciosa autopista —a esas intempestivas horas, ¿quién iba a viajar de Bilbao a Behobia?—, llegaba el leve rumor de las hojas sacudidas por el viento; y un profundo y familiar olor a sal marina inundaba el valle.

Fue entonces cuando lo vi.

Al principio, no voy a negarlo, di un respingo ante la inquietante aparición. No era para menos. En aquel paraje solitario, alguien con el rostro completamente cubierto se acercaba hacia mí subiendo la cuesta con pasos indecisos, torpes, lentos.

Estuve a punto de lanzar un grito al descubrir horrorizado que la capucha con la que se cubría la cabeza estaba tejida con cabellos. Sí, con hebras de pelo castaño, lacio y desordenado, que empezaba a blanquear en algunos sitios.

Traté de guardar la compostura antes de que el terror me paralizara por completo. Y, aún sin la certeza de que él me hubiera o no me hubiera descubierto, tuve la osadía y los reflejos necesarios para hacerme a un lado y esconderme tras uno de los coches que dormían alineados a lo largo de la calle. De dónde saqué tanto valor es algo que todavía hoy, cuando ha pasado más de un año de la aciaga noche que relato, me pregunto una y mil veces, y otras tantas me quedo sin respuesta.

Esperé agazapado junto a la rueda trasera, hecho un ovillo, fundido en la negrura del neumático y la noche.

¿Aquello estaba sucediendo de verdad, o era la consecuencia de unos inevitables efectos secundarios que la medicación opiácea me producía?

¿Quién era el monstruo aquel que se acercaba hacia mí de manera vacilante y amenazadora?

Cuando rebasó mi posición y vi que ni siquiera se inmutaba, respiré aliviado al comprobar que, con toda seguridad, no había reparado en mi presencia.

Continuó avanzando como si nada, con su arrasado caminar de alma en pena. ¿Acaso era ciego aquel abominable ser? Poco a poco, fui girando sobre mis talones para no perderle de vista. Me quedé completamente estupefacto al ver que en su nuca llevaba un dispositivo luminoso. ¡Miento! No era en su nuca, sino en su frente, donde llevaba la luz con la que iluminaba la estela de sus pasos.

Entonces, lo entendí todo. O casi todo. Un hombre con una linterna en la frente, un ser que no podía ser otro que Ipurtargi, subía la cuesta andando hacia atrás.

Tardé varios días en recuperarme de aquella terrible visión. Las fiebres me retuvieron en casa, sin poder moverme de la cama, asustado y desesperado como un naufrago que bracea contra un mar de sudores y delirios.

Poco a poco recobré el ánimo y la cordura. A pesar de mi delicadísima salud, más deteriorada aún tras los terrores de aquella infausta noche, reuní las fuerzas suficientes para levantarme de la tumba en la que se había convertido mi empapada cama y continuar con la rutinaria vida que me había propuesto en el aquel momento crepuscular.

Pero dos preguntas habían quedado grabadas a fuego en mi atribulada alma: ¿Quién era el tal Ipurtargi? ¿Qué le había llevado a convertirse en aquel esperpéntico ser?

Las palabras que siguen son un humilde intento de desvelar tan enigmáticos misterios. Con nadie más que contigo -ni siquiera con Lorena, amigo lector-, he compartido estos descubrimientos.

Aunque no era músico y jamás pretendió serlo, de hecho era duro de oído y cantaba como un moscardón, Ipurtargi se hizo un hueco indiscutible en la historia del rock local. El hecho de disponer de una pequeña furgoneta con la que hacía el reparto de los perfiles metálicos que fabricaba su tío Bixente en el taller de Gaintzurizketa, le convirtió en pieza indispensable a la hora de trasladar los instrumentos y los equipos de música por los gaztetxes de la geografía vasca.

Una serie de fallidas inversiones —la empresa Bixente Tallerrak dedicó un esfuerzo ímprobo y un capital desorbitado en desarrollar una pieza

metálica que, adaptada a las botas de fútbol profesional, posibilitaban una parábola infalible en el disparo de faltas directas desde fuera del área—, y los rigores de la reconversión industrial, hicieron que el pequeño taller familiar cerrase sus puertas; puertas que, curiosamente, eran de madera, haciendo validar el dicho de que “en casa del herrero, cuchara de palo”.

Cuando el hastío, la avanzada edad de sus componentes, o el cambio de gustos musicales dieron al traste con los grupos del momento, Ipurtargi decidió dedicarse a otra cosa.

**(Nota del editor:** Tiene su gracia, o a mí me lo parece, el uso de la expresión “dar al traste” cuando se habla de asuntos musicales).

Pero la vida nocturna había afectado de tal manera a su organismo, que su reloj biológico se desconfiguró por completo. Y cuando se volvió a programar, lo hizo según unos parámetros tan diametralmente opuestos a los habituales, que Ipurtargi ya no fue capaz de adaptarse a la vida diurna ni al horario y las costumbres de las llamadas “personas normales”.

Probó en diferentes y variados oficios; desde aparcador de autos de choque, hasta calibrador de caracoles en una granja de Altzibar, justamente detrás de Carbónicas Santa Klara. Y el resultado fue siempre el mismo: o se levantaba de la cama cuando su jornada laboral estaba a punto de finalizar, o se dormía en su puesto de trabajo, sin escatimar en ruiditos y ronquidos, contraviniendo con ello los más elementales principios de la seguridad y la higiene laboral.

Así que Ipurtargi tuvo que aceptar, no sin cierta desazón, su incompatibilidad con los horarios matutinos.

Fue una vecina suya, amiga de su madre, la que le dio la idea: ¿Por qué no trabajas de panadero? Si quieres hablo con Julián, el del obrador, que es amigo mío de toda la vida.

¡Cuántas veces, de *gaupasa*, Ipurtargi y sus amigos se habían acercado con las primeras luces del alba a la puerta trasera del obrador de Julián, a comprar unos bollos de leche recién horneados, unos rascacielos de hojaldre y merengue, o un delicioso *gâteau basque*!

La tribu noctámbula conoce todas las puertas traseras y las entradas secretas de la ciudad; acceden de un garito a otro por ocultos laberintos a medida que van cayendo los cierres, y siempre

encuentran a dónde ir; porque saben, en cada momento de la noche, dónde encontrar la bebida, dónde la comida, dónde la fiesta, la droga, el baile, o cualquiera de los mil y un placeres que la oscuridad les brinda.

Dicho, y hecho. A última hora del día siguiente, Ipurtargi se presentó en el obrador de Julián. Aquella fue la primera y última vez que entró en la panadería por la puerta normal. Según me contó M.A.V., la vecina que lo había recomendado, y a la que tuvo la oportunidad de entrevistar años después con el fin de recabar información para este reportaje, Ipurtargi se entrevistó con el dueño de la tahona; intercambiaron unas breves palabras con el fin de acordar el horario y el sueldo, jugaron tres partidas al tute, una al puntto y dos al mus y, sin más, fue admitido.

Una tarde, cuando volvía a casa después de comer, encontré en mitad de la acera una pequeña pieza de cartón con la misma forma que el hueco del puzzle del Lorena’s Bar. Por un momento, sentí la excitación de quien asiste a un milagro. Me agaché a recogerla, y al ver que además era una ficha de tonos dorados, desandé mis pasos y volví al bar.

Se la mostré a Lorena. Ella la cogió con sumo cuidado entre sus delicados dedos; sin dejar de mirarla, se acercó conmigo hasta el fragmentado mural. Tuvo que subirse a una mesa para colocarla en el sitio adecuado y compararla con el hueco.

—No es de aquí—sentenció—. Tu pieza es de tres entrantes y un saliente, y la que falta es de dos.

En pocos meses, Ipurtargi se hizo un experto panadero; y ni la masa madre, ni la levadura, ni los tiempos de cocción de las distintas variedades, guardaban secretos para él.

Pero la competencia de los panes congelados y la bollería industrial, y la mala fama que cayó de repente sobre los hidratos de carbono como responsables de las gorduras y los colesterolos de la humanidad, obligaron al viejo Julián a cerrar su obrador antes de que Ipurtargi adquiriera por méritos propios su primer trienio de antigüedad.

Para entonces, la nocturnidad de Ipurtargi ya era imparable. Así que, como un conde Drácula cualquiera, Ipurtargi decidió no volver a salir de casa antes de las tres de la madrugada, esa hora en que las calles se infestan de incertidumbres y amenazas, y las alimañas que se alimentan de sombras salen a cazar.

Cómo en apenas cinco años, aquel hombre pasó de ser un eficiente panadero a convertirse en una criatura sin apenas voluntad, que caminaba marcha atrás con una luz en la frente, es algo que a la psicología, a antropología, o a cualquier otra “logía” entre las que se reparten las humanidades, le tocará explicar alguna vez.

No sé a ciencia cierta cuando tomé la decisión. Solamente sé que, después de buscar por todos los medios a mi alcance, y convencerme de que no había en el mundo otro puzzle igual a aquél, invertí todos mis ahorros en encargarle a una empresa australiana que me lo fabricaran.

Tardé más de un año en hacerlo. Además, como no cabía en ninguna habitación del pequeño apartamento, me vi obligado a tirar varios tabiques, lo que retrasó aún más mi titánica empresa.

Nunca he sido un gran aficionado a los puzzles. Sabía, de oídas, que es mejor empezar por las esquinas, y poco más. Pero al final, dejándome la vista y la poca salud que me quedaba en el empeño, lo completé. Era el día de San Isidro, y los cohetes de las fiestas de Zamalbide se oían desde el salón de casa.

Una vez acabado, busqué minuciosamente la pieza que faltaba en el puzzle de Lorena y se la llevé.

Estaba sola. La acompañé hasta el mural, y la ayudé a encaramarse a lo más alto.

—Ahora sí —dijo ella—. Dos entrantes y dos salientes. Encaja a la perfección.

—Parece un milagro, Lorena.

—Parece el milagro del amor.

**Última nota del editor:** Hasta aquí, el primero de los tres artículos que me entregó J.R.A. para que los fuese enviando puntualmente a la redacción de esta revista. Aunque es evidente que su plan literario era mucho más ambicioso —escribir una veintena de textos para perpetuarse, al menos durante dos décadas, en la memoria de sus vecinos—, el avanzado estado de su fatídica enfermedad no se lo permitió. Eso, y el hecho de que repartiera el poco tiempo que le quedaba de vida entre la escritura, las cada vez más continuas visitas al médico, y los paseos y puzzles con Lorena, con quien mantuvo un precioso idilio hasta el final de sus días.

Como editor, debo advertir que tal vez no pueda cumplir el compromiso que adquirí con J.R.A. de entregar puntualmente los restantes artículos.

De la misma manera que los nuevos gustos fueron arrinconando a los grupos punk con los que colaboró Ipurtargi, que la reconversión industrial acabó con el taller de su tío, y la bollería industrial con el obrador de Julián, la crisis del papel y las nuevas tecnologías están poniendo en serios aprietos a una pequeña y modesta editorial como es la nuestra.

Pero puedes estar seguro, querido lector, que si no cumplo mi promesa como editor, la cumpliré como amigo. Que así sea.

**FIN**

# Añarbe baso erreserbako arotz hegodunak

TOMAS AIERBE

Añarbeko haritz eta pago basoan, paisaia irekia desagertu egiten zaigu. Hor aritzen dira birigarroak, garraztarroak, zozoak, txantxangorriak, txepetak, kaskabeltzak, amilotxak, garrapoak, erregetxoak, pinpinak, euli-txoriak eta abar kantari bakoitza bere bikotearekin bere eremutxoazaintzen, inolako “intrusorik” sar ez dadin beraien ehiza eta bazka lekuetara.

## Basoetako arotzak

Badira baina, txori kantuz gain beste soinu batzuk sinfonia honetan tartekatzen direnak, perkusio atala, hain zuzen ere. Mokoarekin enborra joz soinu ugari egiten duten hegaztiak dira eta **pizidoak** deitzen zaie. Denok uler dezagun pizidoak, enbor zulatzaileak dira, zurginak edo “pájaro loco” moduko hegazti arotzak.

Familia honetako hegaztiak enborraren zurtoinean zutik egoteko gaitasuna dute, hankako 4 behatzak binaka jarriak baititu, bi goian eta bi behean. Gaitasun honek hainbat aukera irekitzen dizkie. Alde batetik, elikatzeko enborraren eremua erabiltzeko aukera ematen die bertako inurri, ar eta bestelako intsektuak harrapatuta. Beste aldetik, postura bertikal honek mokoarekin enborra joz bertan zuloa egiteko aukera ematen die.

## Añarbeko sei okilak

Pizido guztiek ez dituzte ahalmen berdinak. Batzuek ez dute indarririk zuloak eraikitzeko, lepitzulia kasu, beste batzuek zuloa egiteko gaitasuna badute baina egur bigunetako enborretan, gaixorik edo hilda dauden zuhaitzetan esate baterako (okil handia edo ertaina). Azkenik, badira zulatze-ko ahalmena muturreraino eraman dutenak eta zuhaitz bizi trinkoan zulo handi bat eraikitzeko gaitasuna dutenak. Azkeneko kasu honen adibide nabariena **okil beltza** da.

Okilak orokorrean eta okil beltza bereziki mokoarekin enborra kolpatzeko prestatuta daude. Ematen dituzten kolpeak ez dira txantxetakoak.



Okil beltza (*Dryocopus martius*).



Lepizulia (*Jynx torquilla*).

Mokoa eta burmuina oso gertu daudenez elkarrekiko nolabaiteko isolamendua eskatzen du, burmuinak lesiorik jasan ez dezan. Okilak egin duena da burmuina likido batez inguratu, nolabait kolpe horietatik isolatuta geldi dadin. Arrazoi berdinarengatik, mokoaren hasieran malguki moduko bat du. Mihia mokotik haratago irteten zaio zuloak arakatzeko eta itua eranskor bat du bertan inurri eta bestelakoak itsatsita geldi daitezten. Ezpalak askatzen direnean begietara joateko arrisku bizia egonik, kolpe bakoitzean begiak babesten dituen huntz babesle batzuk ere aktibatzen dira aldi berean.

Esan dugun moduan, enberrari ematen dizkion kolpeak handiak dira. Horretarako lepo gaineko giharrak oso garatuak ditu beste hegaztien aldean. Gorputzeko giharrak lepo gainean garatzeak beste toki batzuetan murriztea ekarri du, esate baterako hegokoak. Esango genuke okilak, orokorrean ez direla oso hegalaria trebeak, ezta behar ere. Izan ere beraien bizitza basoan eginik nagusiki, ez dute distantzia handietara mugitu behar eta bestalde ez dute abiadura handirik harrapatu behar ehizarako edo harraparietatik ihes egiteko, baso barruan nahiko ezkutaleku baitaude. Kol-

peak eraginkorrak izateko gorputza ondo asentatuta eduki behar du. Horretarako ditu diseinatuak atzamarrak eta isatsa. Honen lumak oso gogorrak dira gorputza enborren kontra ondo pausatuta egon dadin eta balantza egin ez dezan.

Baina okil guztiek ez dute zuhaitz bizi baten enborra zulatzeko gaitasunik. **Lepitzuliak**, esate baterako, ez dute hainbesteko indarririk mokoan. Hauek habia egiteko, orokorrean lehendik egingako zuloak, zartadurak edo zirrikituak erabiltzen dituzte.

Lepizulia izango dugu, seguruenik gure okilen artean arraro edo bitxiena. Eta zergatik? Lepoa erabat biratzeko ahalmena duelako. Hau da, burua 180º atzeraka jartzeko trebezia du. Azken hau erabili izan du harrapariaren batek edo gu geuk zuloan ezustean topatutakoan. Burua biratzen hasten da buruko luma guztiak harrotuta dituela, ziztuka, lepoa gora eta behera erabiltzen duen bitartean. Hau da harrapariak uxatzeko erabiltzen duen modua, gure zelai inguruetako zuhaitz korrotxoetan udaberrietik aurrera hegazti hau atzematea ez baita oso zaila. Eta udaberri eta udaran entzungo dugu, negua Afrikan pasatzen baitu. Hau da gainontzeko okilengandik bereizten dien beste




Okil berdea (*Picus viridis*).

ezaugarria. Azkenik, bere familia kideak ez bezala, lepitzuliak oso kolore diskretuak ditu. Enborra-rengandik bereiztea kosta egiten da eta askotan gertatzen da oso metro gutxitara eduki pausatuta, kantari hasi, begiratu eta ez izan gai ikusteko.

**Okil berdeak**, aldiz, oso kolore deigarriak ditu. Goialde berde horitsu batek bular eta hego alde pikarta estaltzen du, eta denen gainera buru gainean kapela gorri deigarria azaltzen zaio. Hain kolore biziak eduririk ez zaio gustatzen berarengandik oso gertu egotea eta berehala urrutiratzen da edo enborraren atzean ezkututzen da. Mokoia ez du okil beltzarena bezain indartsua eta ondorioz habia egiteko nahiago izaten du lehortzen hasitako zuhaitzak erabili.

Azkenik badira 3 okil, orain arte aipatu ditugunak baino txikiagoak. Hirurek kolore antzekoa dute: txuri beltz pikarta gorri ukitu batekin. Okil hauek, okil handia, okil ertaina eta okil txikia dira eta filogenetikoki elkarrengandik gertu daude, genero berekoak baitira (*Dendrocopos*). Baina ugaritasun alorrean alde nabarmena dago hiruren artean.

**Okil handia** da dudarik gabe ugariena. Baso itxia du gustuko, baina mota desberdinetako ba-




Okil handia (*Dendrocopos major*).

soetan aurki dezakegu, bai hostozabaletan zein eta koniferoetan. Zulo borobil-borobila egiten du eta askotan lehortzen ari den enborra erabiltzen du.

**Okil txikiari** aldiz ez zaio baso itxia gustatzen. Nahiago ditu tartekatutako enbor handiko zuhaitz zaharrak. Hau da, adehesatutako baso irekiagoak ditu gustuko; hori bai, beti hostozabalak aukeratzen ditu, ia sekula ez pinudiak. Okil guztietan txikiena da.

### Añarbeko zeruetako bitxia


**Okil ertaina** da une honetan Añarben dugun harri bitxia. Okil hau oso zorrotza da bizilekua aukeratzekoan. Ez da edozer gauzarekin konformatzen. Hariztiak edo ameztiak gustatzen zaizkio, baina ez dozena bat zuhaitzen korrotxoak, hektarea mordoxka dituzten eremuak baizik, eta zuhaitz helduak tartekatuta dituzten eremuak, gainera. Horrelako haritz edo ametz sailak topatzea ez da erraza Gipuzkoan. Eta Añarbeko Baso Erreserban dugu, hain zuzen, Gipuzkoako hariztiarik handiena (haritz kanduduna, *Quercus robur*). Ez da orduan kasualitatea izango okil ertainaren Gipuzkoako lehenengoetako aipuak Añarben iza-



Okil txikia (*Dendrocopos minor*)



Okil ertaina (*Dendrocopos medius*)



Okil ertainak Iberiar penintsulan eta Frantzia hegoaldean duen banaketa.

tea (Irungo Endaraz gain). Oso zaila izan arren, topatu dira ale batzuk Añarbeko basoan. Oraindik umatu dutenik ez da baieztatu, baina litekeena da hurrengo urteetan hori ere baieztatzea. Aipu hauen garrantzia adierazteko ondoan azaltzen den mapa ikusi besterik ez dago.

Mapak espezie honek Iberiar Penintsulan duen banaketa erakusten du eta banaketa ikus daitekeenez Kantabriako Mendilerrera, Arabako Izkiz ingurura eta Piriniotako puntu isolatu batzuetara mugatzen da. Beraz azkenaldiko aurkikuntza honen garrantzia ez da makala.

Ez dira berri txarrak, bada, ingurumenaren alorrean. Azken urte hauetan bada makina bat hondamen egina naturan eta bioaniztasunean. Baina bestalde kontserbazio alorrean basoen egoera hobetu da. Baso heldu eta konplexuen presentzia handitzen ari da, ustiaketa asko murriztu da eta basoak “abandonatu” egin dira. Merkatal ustiaketaren falta honek egur hila ugaritzea ekarri du eta honekin batera baita hainbat inurri, zomorro, kakalardo xilofago eta abarrena ere. Okilen bizitzeko baldintzak beraz hobetu egin dira. Batez ere baso itxia gustatzen zaienenak, okil handia eta okil beltza kasu. Zuhaitzi irekiagoak gustatzen zaienen kasuan ez da hain garbia hobekuntza. Lepitzuliarren, okil berdearen edo okil txikiren kasuan ez da ikusten populazioen hazkunde ikusgarririk. Beharbada populazioen tamainak egonkor mantentzen du edo litekeena da behera egin izatea; aztertu beharko litzateke.



# Errenteriako iragana ezagutzen

OIHANA ARTETXE FERNÁNDEZ

Errenteria historia luzeko herria da. Denboran ibilbide luzea egin duen orok bezala, gertaera desberdinek utzitako aztarnak ikusgarri ditu bere azalean. Denboran iraun eta aurrera egin nahi bada, ordea, eraldatzeko gaitasuna beharrezkoa da. Bizirik mantentzeko, egoera desberdinetara egokitzea ezinbestekoa da. Eraldatzeko eta denbora berrietara egokitzeko gai ez dena, fosil bilakatzen da. Zaharra, ederra eta bitxia izango da, baina bizirik gabekoa.

Errenteriak momentu eta errealitate desberdin ugari ezagutu ditu eta guztiei aurre egin eta moldatzeko gai izan da. Jaio zenetik etengabeko eraldaketan murgilduta egon da. Jaio eta bizi, baina inoiz ere hil. Azaleko zimur eta orbanak esperientziaren seinale dira eta esperientzia hori belaualdiz belaualdi transmititzeko nahia erakusten dute. Aztarna horiek erakusgarri ditu guztiok ikus eta uler ditzagun. Izan ere, gaur egungo Errenteria esperientzia bakoitzak sortu dizkion eraldaketek osatzen dute eta, bizirik jarrai dezan, ezinbestekoa suertatzen da hori jakinaraztea; errenteriarak hortaz jabetzea. Atzera begiratzuz aurrera egiteko tresnak lortzearen garrantziaz jabetzea.


Errenteriako Udalak badaki transmisio hori ezinbestekoa dela eta helburu horrekin zenbait bisita gidatu programatu izan ditu. Oraingoan, ordea, aurrerapauso bat eman eta Errenteriaren historia ezagutzera emateko proposamen desberdinak jasotzen dituen katalogoa osatzen hasi da. Katalogo honek Errenteriako memoria historikoa transmititzea, duen ondarea balioan jartzea eta belaualdi desberdinei dinamikotasunaren garrantzia helaraztea ditu helburu nagusi.

Helburu horiek lortzeko, Errenteriak bizi izan dituen aldaketak agerian uzten dituzten bisita gidatuen eta ekintzen programa osatzen hasi da. Katalogo honen lehen zatia osatzeko ardurak *Ereiten Kultur Zerbitzuak S.A.* enpresak izan du eta 2016ko lehen sei hilabeteetan gauzatu da. Enpresa honetako ki-



ASIER PERALES

Jautarkol plaza.



Erdi Aroko armarrria Santxoenea kaleko 28. zenbakiaren ondoan. (EUA A090F105)

deak izan dira, baita ere, 2015etik Udalak eskaintzen zituen bisitetako gida lanak egin dituztenak.

### Denboran bidaiatzeko proposamen desberdinak

Aurtengo lehen eginkizuna, Errenteriako alde zaharrean gauzatzen zen bisitaren diskurtsoa modu egokian osatzea izan da. Bisita hau ezaguna izango zaie zenbait errenteriarri, izan ere, 2015ean behin-behinean martxan jarri zen. Oraingoan bisitaren helburuak zehaztu, ibilbidean eskaintzen zen informazioa behar bezala antolatu eta diskurtsoaren haria landu dira. Horrela, Errenteriak dituen sustrai itsastarrak ezagutzeko helburu orokorra duen bisita antolatu da, **“Orereta: itsas hiria”** izenarekin bataiatu dena. Bisita honen ibilbidea Alde Zaharrean zehar egiten da, bertako ondare historiko-artistikoa ezagutzeko eta Erdi Aroko eta Aro Berriko hiribilduaren bizimodura gerturatzeko.


Bigarren eginbeharra eskolako haurrei eta familiei zuzendutako ekintzak osatzea izan da. Horretarako herriko ikastetxe desberdinen beharrak aztertu eta helburu pedagogikoak kontuan izan dira. Aurten bi ekintza berri sortu dira herriko historia eta ondarea adin txikikoei modu egokian gerturatzeko asmoz: **“Orereta - Errenteria: 5 ateen bila”** pista-jokoa eta **“Egun batez batzarkide”** bisita-tailerra. Bi ekimenak 13 urte azpiko eskola haurrei zuzenduak daude, baina pista-jokoa familian egiteko ere oso egokia suertatzen da.

“Orereta - Errenteria: 5 ateen bila” pista-jokoak aurrean aipatutako bisita gidatuaren gaiarekin lo-

tura zuzena du. Umeek, ekintza honen bidez, Erdi Aroko eta Aro Berriko Errenteria ezagutzeko aukera dute. Horretarako hiribilduak zuen harresiaren 5 ateen kokaguneak topatu behar dituzte. Parte-hartzea eta talde-lana bultzatzen dituen ekintza dinamikoa da. “Egun batez batzarkide” bisita-tailerrak berriz, Udaletxea ezagutzeko eta honen funtzionamendua jakinaraztea ditu helburu. Umeek eskolan lantzen dituzte herriaren antolakuntzaren nondik norakoak eta proposamen honek herriko etxea barrutik ezagutu eta bertan erabakiak nola hartzen diren ikasteko balio die. Egun batez udalbatzako kide bihurtzen dira eta, helduek egiten duten antzera, gai baten inguruko erabakiak hartzen dituzte elkarrekin eztabaidatuz eta adostuz.

Aurrean aipatutako hiru proposamenak martxan jarri ondoren, eta Udala osatzen ari den katalogoaren helburu nagusia kontuan izanik, Errenteriak duen iragan industrialari lotutako bisita gidatuaren diskurtsoa osatu da. **“Manchester Txikira Bidaia”** izena duen bisita berri honetan 1845 eta 1936 bitartean herriak bizi izan zuen industria aroa ezagutarazten da. Izan ere, Errenteria azken bi mendeetan gehien itxuraldatu duen prozesu historiko nagusia industrializazioa izan da. XIX. mendearen bigarren erdira arte, Errenteriak Aro Berrian irudikatu zuen plana izaten jarraitu zuela esan daiteke eta errenteriarrek nekazaritzatik eta arrantzetatik bizi zirela.

Gertuko garaiak diren arren, belaunaldi eta errenteriar berrientzat arrotzak suertatzen dira. Industriek josten zuten herrigunea izatetik, lan-



Linoko Ehun lantegia, Nafarroa hiribidetik ikusita. (EUA A011F001)

tegien arrastorik mantendu ez duen hirigintzarako pausoa eman da. Plaza eta auzoen izenak gogora ekarri nahi dituzte garai horiek, baita tente dauden tximinia bat edo bestek ere. Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Egungo herritarrak industrializazioaren seme eta biloba sentitu daitezkeen arren, datozen belaunaldietan ez da sentimendu hau mantenduko transmititzen jakiten ez bada. Bisita honekin, herriarentzat horren garrantzitsua izan zen industrializazioa ezagutzeko aukera eman nahi du Udalak. Industrializazioaren hastapenetatik Gerra Zibila piztu bitarteko Erreneriara gerturatzeko proposamena da. *Manchester txikira* bidaiatzekoa, hain zuzen.

### Harrera paregabea

Urteko lehen hilabeteetan osatu eta martxan jarri diren proposamenek harrera bikaina izan dute ikastetxe eta herriko taldeen artean. Helduen artean, "Orereta: itsas hiria" bisita gidatuak harridura sortzen du. Bisitari gehienek ezezaguna zuten Erreneriako historiaren zati bat ezagutzeko aukera izan dutela aitortzen dute ibilaldian zehar, baita ordurarte erreparatu ez dituzten elementuak ikusi dituztela ere. Izan ere, Erreneriak duen egungo

fisionomia kontuan izanik, gehiengoa ez da urez inguratutako hiribildu bat bezala irudikatzen gai. Oso arrotza gertatzen zaie Erdi Aroan eta Aro Berrian itsasoari estuki lotutako Erreneria hartako bizimodu itsastarra. Hau da bisita gidatu honen erakargarritasun nagusia.

Haurrentzat antolatutako ekintzek ere interesa piztu dute ikastetxeetan. Herriko ikastetxeetako talde ugari izan dira bi ekintza hauek egiteko interesa aurkeztu dutenak. Haurrek asko disfrutatu dute herriko kaleetan gora era beheara harresi zaharrak zituen galdutako ateen bila, baita momentu batez herriaren inguruko erabakiak hartuz ere. Umeentzat oso proposamen egokiak izan direla egiaztatu da, herriko historia eta ondarea modu dinamiko eta parte-hartzaile batean helaraztearen eraginkortasuna agerian utziz.

Jadanik martxan dauden hiru proposamen horiei, hemendik gutxira "Manchester Txikira Bidaia" izenekoa batuko zaie. Honek ere beste eskaintzek izan duten harrera paregabea izatea da Udalaren nahia. Hemendik kultur eskaintza hauek gozaten jarraitzeko gonbidapena egin nahi zaie erreneriar guztiei. Animatu eta aukeratu denboran bidaiatzeko gustuko den proposamena!



# Ciudad Laboral Don Bosco

## Centro de referencia en excelencia e innovación en Formación Profesional

JOSÉ ÁNGEL RODRÍGUEZ MEDINA

